

# Zu hemen zaude.

# goiena



## 60KO ETA 70EKO HAMARKADETAKO ARRASATE, IKUS-ENTZUNEZKO BATEN

Pedro Sologaitza 'Laso' argazkilariak filmatutako irudiekin osatutako lana estreinatuko du Arrasate Zientzia Elkarteak hilaren 23an / 12



**+**  Emakumeak medikuntzan: oraina eta geroa

Josu Martinez zinemagileari elkarrizketa

**SINADURAK**

	AMAGOIA LASAGABASTER / 8		EIDER NAJERA / 23
	MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 11		ANDER ETXEBERRÍA / 40

### Merkealdia

# 2mó 189€

lehen 229€

## erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kengalduaren ezaugarriak.



8.85. 91/20

## MULTIÓPTICAS

943 79 29 95  
Otalora Lizentziaduna, 18  
ARRASATE



eskatu hitzordua

943 76 15 75  
Ibargarai, 16  
BERGARA



www.multiópticas.com



Ibai Alberdi aretxabaletarra, haren traktorearen aurrean. JULEN MURUA

## Borrokan jarraituko dute baserriek bizirik irauteko

Astlehenean irten ziren kalera Gipuzkoako baserritarrak, haien egoeraren larritasuna ikusaraztera, eta, haien artean, hainbat debagoiendar egon ziren. "Baserriek bizirik jarraitzen dute baina itotzen ari dira, eta egoera, gaur gaurkoz, larria" dela dio

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA Otsaileko lehenengo astean hasi ziren protestak Europako zenbait herrialdetan, eta Espainiako hainbat autonomia erkidegotan ere hedatu ziren. Protesta horiek Euskal Herrian zehar ere zabaldu eta hiriburuetan batu ziren nekazariak eta baserritarrak, haien aldarriak egiteko. Era berean, egoera horrek guztiorrek

Debagoiengan izan du eragina, bailaran ere badaudelako lehenengo sektoretik bizi direnak; haietako asko ere batu dira egunotan egin diren protesta eta mobilizazioetara.

Andoainen eta Zarautzen elkartu ziren joan den astelehen goizean, hilaren 12an, eta Gipuzkoako hainbat nekazari eta baserritarrek Donostiarako bi-

dea hartu zuten, han egoeraren gainera protesta egin eta sektoreak bizi duen egoeraren larritasuna ikusarazteko. Egunotan egin diren protestetara batu diren baserritarren eta nekazarien artean daude Eider Murgoitio eta Ibai Alberdi debagoiendarrak, eta haiek ere lehen sektorea "kinka larria" dagoe-la uste dute.

### Egoera larria

Egunotan, "sektoreak bizi dituen larritasun eta nahasmenak" mahaigaineratu direla dio Murgoitio. Izan ere, Donostian amaitu zen mobilizazioan zenbait gauza aldarrikatu nahi izan zituzten baserritarrek; Alberdik dioenez, "burokrazia maila altuagatik, baldintza duinen ga-beziagatik, sektorearen ezegonkortasunagatik eta beste gauza askorengatik" egin zuten protesta. Murgoitio gaineratu du lehen sektorearen errealitatea ez dela bera munduko toki guztietan, baina, era berean, guztiek ideia berbera partekatzen dutela dio: "Bizirauteko elikagaiak sortzen dituzten pertsonak lan-baldintza ez-duinetan bizi direla".

Hori dela eta, eta baserria maite duten arren, "itota" daudela aitortu du Alberdik: "Ez badigute laguntzen, gure produktuak zilegitasunez ordaintzen edo ez badugu errentagarritasunik lortzen, baserritar gazteok beste nonbait aurkitu beharko dugu jateko ogia".

### Guztiaren gainetik, baserria

Alberdik nabarmendu nahi izan du "gazte baserritarrek hasitako ekintza bat dela eta garrantzitsua dela ikustea Gipuzkoan zenbat gazte gauden baserritik lan egin nahi dugunak eta baserria maite dugunak". Era berean, egindako mobilizazioak kontu politikoetatik kanpo daudela ere jakinarazi nahi izan du: "Guk gure egoerari erreparatzen dio. Ohar bidez ere adierazi genuen mobilizazioetan ez goazela ez alderdi politikoekin ez sindikatuarekin batera. Baserritar batzuk elkartu gara gure sektorearen barruan bizi dugun eze-gonkortasun egoera salatzeke;

guztiaren gainetik baserria jarrita ari gara borrokan".

### Kontzientziazio beharra

Aldaketak maiz norbanakoaren ohitura aldaketetatik hasten direla dio Murgoitio, eta, beraz, "kontzientziak astindu" egin behar direla aitortu du. Ereindajan proiektuko ekoizlea da hura, eta bertan, "tokiko garapena eta lehenengo sektoreko iraunkortasuna eta kontsumitzaileen arteko elkarlana" bultzatzen dute. Bertakoari garrantzia ematea da ekoizleek egiten duten eskaeretako bat, eta Alberdik ere ildo beretik jo du: "Asko dira azoketara joaten direnak, haiek ekoiztutako produktuak saltzera, eta eurek ere bultzada bat behar dute. Kontzientziaziotik abiatu behar da aldaketa bideratzeko".

### Aurrerantzean, zer?

Egindako protestetan zenbait aldarri egin dituzte baserritarrek, eta egoera aldatzen ez den bitartean aldarrikapenak egiten eta kalera irteten jarraituko dutela aitortu dute Murgoitio eta Alberdik; izan ere, "garrantzi handia izan zuen asteleheneko mobilizazioak".

### "KONTU GUZTIEN GAINETIK BASERRIA JARRITA ARI GARA BORROKAN"

IBAI ALBERDI, BASERRITARRA


### "KONTZIENTZIAK ASTINDU BEHAR DIRA; KONTSUMO OHITURETATIK HASITA"

EIDER MURGOITIO, BASERRITARRA

bertako  
igogailuak | ascensores  
**KORRIKAN ERE**

**EUSKARA,**  
**GURE HELBURU**  
**PARTEKATUA**

943 903 450 bertoko.eus



# EH Bilduk 'Geuretik Loratzen' aurkeztu du

Debagoieneko EH Bilduk 'Debagoiena geuretik loratzen' dinamikaren berri eman zuten eguaztenean Arrasaten. Helburua da bailaran martxan dauden edo datozen urteetan abiarazi nahi diren "proiektu eraldatzaileak" ezagutaraztea

**Jokin Bereziartua** ARRASATE

Arreta trantsizio sozioekologikoan, zaintzan eta elikadura burujabetzan jarrita, Debagoienean lantzen ari diren edo lantzean dauden ekimenei balioa eman eta horiek ezagutarazi gura ditu Debagoieneko EH Bilduk. Eguaztenean Arrasaten egin zuten agerraldian elkartu ziren eskualdeko herrietako EH Bilduko udal ordezkariak eta herrigintzan ari direnak. Amaia Etxabek eman zuten dinamikaren berri. "Hitzaldiak eta irteerak antolatuko ditugu. Hala, hiru hilean behin irteera edo lanketa bat egingo dugu. Trantsizio sozioekologikoa, zaintza eta elikadura burujabetza izango dira dinamika honen baitan landuko ditugun gaietako batzuk", adierazi zuten agerraldian.

**Burujabetza energetikoa**

Oñatiko alkate Izaro Elorzak adierazi zuten lehen ekimenak, Oñatira egingo duten irteerak, "energia burujabetzarekin" due-

la lotura. Hala, Oñatiko Ur Jauzietara bisita egin eta telekomunikazioen alorreko Onaro proiektua bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dela esan zuen. Otsailaren 24an, zapatua, egingo dute irteera hori.

**Sinergiak aprobetxatu**

Dinamikaren bitartez, eskualdea indartu eta herrien arteko sinergiak sortu eta esperientziak konpartitu gura dituztela gehitu zuten Amaia Etxabek. Eta, horretaz gain, baita "hainbat gaierako interesa" duten herritarrek elkar ezagutu eta hartu-emanak sakontzea. "Hein batean, garenetik ikasiz, etorkizuna eraldatzea da asmoa. Geuretik loratzea. Beraz, hitzaldi-txango horietan parte hartzeko interesa duen herritar orori dei egingo diogu".

Hiru hilean behin antolatuko dituzten ekimenen berri aurrerago emango dutela adierazi zuten.

## Diputazioa eta alkateak bus zerbitzua hobetzeko gertu

Eskualdeko alkateek diote Diputazioarekin batuko direla herrien arteko eta kanpoko konexioak hobetzeko

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE

Debagoieneko alkateek prentsa-ohar bidez jakinarazi dutenez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketako diputatu Azahara Dominguezekin batuko dira, joan den azaroan egin zuten moduan. "Elkarlanaren bidean pausoak emateko konpromisoa" hartu zuten bi aldeek orduko batzar hartan.

Oraingoan, bi lan-lerrotan aritu nahi dute alkateek, autobus zerbitzu publikoa hobetze-

ko asmoz: batetik, Debagoienaren barneko eta kanpo konexioak areagotzea. Izan ere, Debagoienak autobusa du garraio publiko bakartzat, eta "zerbitzua indartzeak tresna estrategikoa" izan beharko luke eskualdearen garapenerako".

Horrez gain, erabiltzaileen eskaeretan ere arreta jarri dute, hala nola ordutegiak eta autobus lineen arteko konbinazioak hobetzean, puntualtasuna bermatzean eta langileen zein erabiltzaileen segurtasun arazoei konponbidea ematean.



Eskualdeko EH Bilduko ordezkariak eguazteneko agerraldian. JOKIN BEREZIARTUA




## Gure ikasleen ahotan



**Izen-abizenak:** Julene Rosado Garcia  
**Herria:** Aretxabaleta  
**Adina:** 22 urte  
**Egindako ikasketak:** Batxilergo Musikala.  
**Gradua:** Ikus-entzunezko Komunikazioa  
**Zaletasunak:** Musika, bideogintza eta argazkilaritza.

### "Proiektu errealean oinarritzen diren lan praktikoak egiten ditugu"

**Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko laugarren mailan zaude; zergatik aukeratu zenuen gradu hori eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?**

Txikitatik musika gustatu izan zait, eta hainbat modutan kontsumitzen nuen; Youtuben, adibidez. Youtubek irudien bitartez musika beste modu batera sentitzeko aukera eskaintzen zidan, eta, harrezkero, bideogintzak eta argazkilaritzak erakarri naute. Mondragon Unibertsitatean ikastea erabaki nuen, bertan betiko hezkuntza eta metodologia

tradizionalak alde batera utzi eta beste hezkuntza eredu eta metodologia bat eskaintzen dutelako. Hau da, ikasi bai, baina praktikan jartzeak ere bere garrantzia daukalako pertsona bakoitzaren garapen profesionalerako.

**Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?**

Orokorrean, esperientzia bikaina izaten ari da; gorabeherekin, noski. Lau urte hauetan denetarik ikasteko aukera izan dut. Ikasitakoarekin nire ibilbidea garatzeko aukera ere izan dut; unibertsitateko proiektuez gain, nire lan propioak ere egin ditut. Horrez gain, esperientzia horiek beste esparru batzuk probatzeko aukera eman didate.

**Zein metodologia erabiltzen duzue?**

Teoria jasotzeaz gain, proiektu errealean oinarritzen diren lan praktikoak garatzea izaten da helburua. Praktika horien bitartez, enpresa baten premiei erantzuteko

beharrezkoak diren gaitasunak garatzen dira, eta etorkizunera begira pertsona bakoitzaren garapen profesionalerako baliabideak eskaintzen ditu.

**Unibertsitateetik zer gustatzen zaizu gehien?**

Batetik, unibertsitateak eskaintzen dituen ikus-entzunezkoetarako prestatuta dauden espazio profesionalak: platoa, edizio-gelak, irrati-gela... punta-puntako materialez osatuta; eta, bestetik, materiala mailegatzearen eskaintza: edozein momentutan edozein material behar izanez gero pertsona bakoitzak material hori mailegatzeko aukera dauka edozein proiektu garatu ahal izateko.

**Etorkizunari begira zein asmo daukazu?**

Oraingoan, unibertsitatea amaitzerakoan ez daukat ikasten jarraitzeko asmorik; lan egitea gustatuko litzaidake. Ikus-entzunezko Komunikazioko lan-esparrua nola dagoen ikusi, aztertu, eta gauza berriak probatu eta ikasi nahi ditut.

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) aste honetan emandako datuen arabera –2023ko hirugarren hiruhileko datuak–, heriotza kopuruak behera egin du Debagoiengan. Guztira, 140 heriotza erregistratu ziren bailaran 2023ko hirugarren hiruhilekoan; 2022ko garai bereko datuekin konparatuz gero, 47 heriotza gutxiago izan ziren: 187. Eta 2023ko aurreko bi hiruhilekoekin alderatuta ere behera egin zuen zenbatekoak; izan ere, lehen hiruhilekoan 194 heriotza izan ziren eta bigarrenkoan, 167.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) datuetan ere norabide hori nabaria da; hain zuzen ere, %15,6 gutxitu ziren heriotzak 2023ko hirugarren hiruhilekoan.

**Etengabe beherantz**

Herrika 2023ko hirugarren hiruhileko datuak 2022ko garai berekoekin alderatuta behera egin du herri guztietan, Aramaion izan ezik, orduan bost heriotza jaso baitziren eta oraingoan hiru. Eustatek kaleratu dituen 2023ko datu guztiak alderatuta, Arrasaten 57 heriotza izan ziren –aurreko bietan 78 eta 71–. Aretxabaletan eta Eskoriatzan hamarna izan ziren, baina Aretxabaletan aurreko bi hiruhilekoetan hamasei eta hamaika izan ziren hildakoak eta Eskoriatzan hamaika eta hamasei. Antzuolako kasuan, hiru pertsona zendu ziren hirugarren hiruhilekoan, eta beste bietan, sei eta lau. Eskoriatzan, aldiz, 22 eta hamazazpi; Elgetan, bakarra; Antzuolan, hiru; Leintz Gatzagan, bat ere ez.


Bergaran ere jaitsiera izan zen hirugarren hiruhilekoan, 34 heriotza zenbatu baitziren, eta bigarren hiruhilekoan, aldiz, 43; hala ere, bigarren hiruhilekoan gorakada izan zen, urtearen lehen hiruhilekoan 37 pertsona hil baitziren.

**Aurreko hiruhileko kopuru bera**

Oñatin, Elgetan eta Gatzagan mantendu egin zen heriotza kopurua bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, baina behera egin zuen lehen hiruhilekoarekin konparatuta. Oñatin 20 lagun zendu ziren bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan; lehenengoan, 30. Elgetan, berriz, bana, baina urte hasieran lau. Eta Gatzagan, urtearen lehen zatian pertsona bakarra eta beste bi hiruhilekoetan inor ere ez.

**Debagoieneko heriotza kopuruaren bilakaera**

ITURRIA: EUSTAT



**Behera egin du heriotza kopuruak Debagoiengan**

Eustat-en datuen arabera, 2023ko hirugarren hiruhilekoan 140 pertsona hil ziren, 2022ko garai berean baino 47 pertsona gutxiago. Ibarreko herri guztietan egin du behera heriotza kopuruak, Aramaion izan ezik, 2022an baino bi pertsona gehiago hil baitira

Aramaion, aldiz, mantendu egin zen heriotza kopurua lehen hiru hiruhilekoetan; hiruretan, bosna heriotza erregistratu ziren. 2022ko laugarren hiruhilekotik mantendu zen bosteko kopurua.

2023ko eta 2022ko hirugarren hiruhilekoetako datuak alderatuta, Aramaio izan zen heriotza-tasak gora egin zuen herri bakarra ibarrean: 2023an bost izan ziren eta 2022an hiru.

**EAEen ere joera bera**

Eustatek argitaratutako datuen arabera, EAEen 5.099 pertsona hil ziren 2023ko hirugarren hiruhilekoan; aurreko urtean baino %15,6 gutxiago. Gipuzkoan

1.712 heriotza erregistratu ziren 2023ko hiruhileko hartan –2022an, 1.940; %11,8 gutxiago–; Bizkaian, 2.735 –2022an, 3.338; %18,1 gutxiago–; eta Araban, 652 –760; %14,2–.

Heriotza-kausa nagusiak tumoreak izan ziren gizonezko nahiz emakumeengan –dena, 1.519 heriotza–; zirkulazio-sistemako gaixotasunak 1.158 heriotza eragin zituen –607 emakumeengan eta 551 gizonezkoengan–; hirugarren heriotza-kausa, berriz, nerbio-sistemako gaixotasunak izan ziren, 339 heriotzarekin.

121 heriotzatan COVID-19a izan zen kausa nagusia. Heriotza horiek guztiak baieztatutako koronabirus kasuengatik izan ziren; gainera, beste 36 heriotzatan COVID-19a heriotza-kausa ziurtatuen artean egon zen, baina funtsezko kausa izan gabe.

Orokorrean, abuztuan eta irailan jaitsi egin ziren heriotzak; hurrenez hurren, %9,2 eta %2,6 aurreko urteko hilabete berberen aldean. Hala ere, uztaileko beherakada nabarmendu dute, %30,9 jaitsiera izan baitzuen heriotza-tasak: "Gogoratu behar da 2022ko hirugarren hiruhilekoan heriotza kopurua nahiko handia izan zela; 2023ko hirugarren hiruhilekoko datuak 2019ko hiruhileko bereko datuekin alderatuz gero –COVID-19aren pandemiaren aurreko urtea–, %2,8ko igoera gertatu da".

**2022ko laugarren hiruhilekoa**

Hala, 2022 eta 2023. urteen bitartean heriotza kopuru handiena –208 heriotza– 2022ko laugarren hiruhilekoan zenbatu zen Debagoiengan. Ibarreko datuen joera, ordea, orokorrean, ez da izan EAEko datuenen bera; izan ere, batez beste, hiru lurraldeetan hirugarrenkoan jo zuen goia heriotza kopuruak –Eustatek gogorarazi du koronabirusak baduela zerikusia goranzko joera horrekin–. Ibarrean 2022ko hirugarren lauhilekoan 187 heriotza zenbatu ziren.

Eustatek jakinarazi du 2023ko laugarren hiruhileko datuak maiatzaren argitaratuko dituela.

**EAE-N ERE JOERA BERA IZAN DA: HERIOTZA-TASAK %15,9 EGIN DU BEHERA**

**Debagoieneko hildakoak hiruhileko bakoitzeko**

	H1/2022	H2/2022	H3/2022	H4/2022	H1/2023	H2/2023	H3/2023
Arrasate	74	50	76	76	78	71	57
Bergara	54	46	36	52	37	43	34
Oñati	36	31	35	43	30	20	20
Elgeta	6	5	3	1	4	1	1
Antzuola	4	5	4	4	6	4	3
Leintz Gatzaga	2	0	0	1	1	0	0
Eskoriatza	16	11	11	12	16	11	10
Aretxabaleta	16	13	19	14	22	17	10
Aramaio	2	7	3	5	5	5	5
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>210</b>	<b>168</b>	<b>187</b>	<b>208</b>	<b>199</b>	<b>172</b>	<b>140</b>

ITURRIA: EUSTAT

# Tortura kasuak ikertzeko aldarrikapenak izan dira

Kulturateko areto nagusia bete egin zen 'Tortura Arrasaten, genero ikuspegitik' lanaren aurkezpenarako eguaztenean. Arrasateko zortzi emakumeren testigantzak jasotzen ditu Nekane Ayensak, Iñaki Barrutiak eta Juan Ramon Garaik sinatutako lanak

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Intxorta 1937 Kultur Elkartek kaleratu du *Tortura Arrasaten, genero ikuspegitik* liburua. Nerea Ayensak jaso ditu testigantzak, eta Iñaki Barrutia psikologo klinikoak osatu du marko teorikoa. "Testigantza gogorrak dira. Torturaren kutsu sexista jasotzen duten lan gutxi daude, eta badago zer kontatu. Beste edozein herritan egin daiteke ariketa bera", dio Ayensak.

Xantaia emozionala, mendeku politikoa, indarkeria sexualak... denetik jaso dutela azaldu du Barrutiak. "Lekukotasuna eman duten emakume gehienek izan dute trauma osteko estresa: lo



Liburuaren aurkezpen ekitaldia, eguaztenean. IÑIGO BARRENA

## Sortuk salaketa-ekintzak egin ditu

"Aitortzen garaia" dela aldarrikatu du Sortuk Torturaren Aurkako Egunean, eta kale-ekintza bana egin ditu Arrasaten eta Bergaran. Arrasaten, herriko 111 tortura kasuak salatu dituzte Seber Altuben ipinitako instalazioan –argazkian ikusgai–. Bergaran, Irala kalean egin dute beste instalazio bat herriko 44 kasuak salatzen. "Aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzen bermea" eskuratzeko bidean eragin beharra dagoela aldarrikatu dute alderdi abertzaleak. "Torturaren errealitateak ardurak onartzea eta argitzea eskatzen du. Hura posible egiteak eta iraunarazteak arduradun politiko, instituzional, polizial, mediku, judizial eta mediatikoen inplikazio zuzena izan du. Torturaren beraren existentzia ukatzeak, sakonean, Euskal Herriak estatuekin duen gatazka politikoa ezkutatzea bilatzen du".



Sorturen kale-ekintza. SORTU

egiteko zein kontzentratzeko arazoak, oroitzapen errepikakorak, beldurrak... baina nik erresilientzia nabarmenduko nuke: torturatik bizirik atera dira". Emaitzarekin pozik daudela esan du Intxorta 1937 Kul-

tur Elkarteko Juan Ramon Garaik. "36ko gerran errepresaliatuak eta erailak izandako gure senideekin ez da oraindik justiziarik egin, eta geroko erresistenteekin ere ez da egin; ez da egia osoa ezagutzen".

**ai** arizmendi ikastola

**BISITA  
PERTSONALIZATUAK**  
Ikasturte osoan zehar

Hartu zure txanda hemen!



[www.arizmendi.eus/guikastola](http://www.arizmendi.eus/guikastola)

943 77 20 25

**MATRIKULAZIOA**  
otsailaren 7tik 23ra

ai ikastola

# Lehen pausoak ospitale berriaren eraikuntzan

Osasun Sailak jakinarazi duenez, Debagoieneko Ospitalearen eraikin berria egiteko obren lizitazioa lehiaketara atera du Osakidetza. Hain zuzen, lanak urtearen bigarren erdian hasia eta 30 hilabeteko epean amaitzea aurreikusten dute

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA Osakidetza lehiaketara atera du Debagoieneko Ospitalearen eraikin berria egiteko obren lizitazioa. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak adierazi duenez, lanak urte honen bigarren erdian hasiko dira, eta 30 hilabete iraungo dutela aurreikusi dute. Hain zuzen ere, 29 milioi euro inguru inbertituko dituzte, nahiz eta kopuru horri altzarrien eta ekipamenduaren prezioa ere gehitu beharko zaion.

Bloke berria ospitale zaharra zegoen leku berean eraikiko dute, Arrasateko Txeta eta Zalduspe kaleen arteko izkinan. Hark hainbat zerbitzu hartuko ditu bere baitan; besteak beste, eguneko ospitale mediko-kirurgikoa, medikuntza fisikoko eta errehabilitazioko eremua, endoskopia-unitatea, larrialdi-zerbitzua eta erresonantzia magnetiko nuklearreko zerbitzua. Eraikin berri horrek amaiera emango dio 2022. urtearen bukaeran ospitale zaharraren eraiste lanekin hasi zen prozesu guztiari.

## Eraikinaren ezaugarriak

Osasun Sailaren arabera, eraikinak 9.300 metro karratuko azalera izango du, guztira, bost solairutan eta bi sototan banatuta. Solairu guztiak 1.200 metro karratu baino gehiagokoak izango dira. Horretaz gain, bloke berriak ondoan dagoen kanpo kontsulten eraikinarekin zuzeneko konexioa izango du. Konexio hori gauzatu ahal izateko, blokearen inguruko eraikinetan 2.000 metro karratu berrituko dituzte, eraikinen eta zerbitzuen arteko zirkulazioa sortzeko eta haien arteko hartu-emanak hobetzeko.

Eraikin berriak zerbitzu osagarri eta administratiboak hartuko ditu bere baitan. Gainera, solairu bat hutsik erreserban geratuko da, momentuan mo-

mentu sor daitezkeen osasun beharrei egokitu ahal izateko. Bost solairuek behar teknikoei erantzuniko diete eta bi sotoek aparkaleku modura funtzionatu dute, egungo aparkalekua erekin bat eginaz.

## Aldaketa gehiago

Ezaugarri horiei guztiei beste zenbait berrikuntza gehituko zaizkie. Irigarritasuna hobetzea aldaketa horietako puntu garrantzitsuetako bat izango da. Modu horretan, obra-lanak aldagela bat birmoldatzea eta komunak ostomotizatutako pertsonentzat egokitzea aurreikusten dute.

Beste aldaketa bat energia-efizientziari buruzkoa da; eraikin berriak egungo araudia beteko du, eta energia-kalifikazio handiena eskuratu -A-. Kalifikazio hori energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan zein karbono dioxidoaren emisioetan lortu nahi dute.

## Herritarren beharrei erantzuna

Osasun Sailaren arabera, eraikinaren helburua eskualdeari osasun-baliabide modernoak eskaintzea da, debagoiendarren beharrei erantzuneko dien zerbitzu zabal eta eguneratua eskainiz. "Herritar guztien esku dagoen gertuko eta kalitateko arretan aurrera egiten jarraitze aldera, Osasun Sailak Osakidetza zentroak eta egiturak hobetu, modernizatu eta egokitzearekin duen konpromisoaren beste adibide bat da eraikin horren eraikuntza", adierazi dute Eusko Jaurlaritzatik.

**ERAIKUNTZA-LANEK  
30 HILABETE  
IRAUNGO DUTELA  
AURREIKUSI DU  
OSASUN SAILAK**



Eraikina nola geldituko den erakusten duen irudia. IREKIA



Eraikinaren aurrealdea nola geldituko den erakusten duen irudia. IREKIA



DEBAGOIENEN  
**GREMIOAK**



**LOREZAINNTZA**

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**

**ARETXABALETA**

Basabe poligonoa  
D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 /

616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

**ITURGINTZA**

**EGIA ITURGINTZA**

**ARRASATE**

Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
Tel.: 943 77 01 85

**URKO MANTENIMIENTO SL**

**ARETXABALETA**

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

# "Denon eskura egongo den garraioa behar dugu"

**GARAZI IGLESIAS ETA LIHER EGUREN** DEBAGOIENENKO ERNAIKO KIDEAK

Etzi Eskoriatzan egingo duten agerraldian, eskualdeko garraio publikoaren egoera "kaxkarra" sozializatu eta gazteak borroka horretara "batzera" gonbidatuko dituzte

**Iñigo Barrena** DEBAGOIENA

Domekan (16:30), Eskoriatzan, Debagoieneko Ernaik *Garraio publiko duina* izeneko dinamika politikoari ekingo dio, gazteek dituzten aldarrikapenak eta kezkek plazaratzeko. Horren harira, Garazi Iglesias (Eskoriatza, 2001) eta Liher Eguren (Bergara, 2004) ibarreko Ernaiko kideekin izan da GOIENA.

**Zein da gurean garraio publikoaren egoera? Ze kezka eta aldarri dituzte?**

Egiten dugun diagnosis ez da positiboa. Eider Mendozak Goienan egindako adierazpenetan adierazi zuen Debagoiengan garraioak zituen arazo guztiari aterabidea eman zaiela. Argi dago ez duela gure eskualdeko autobus zerbitzua erabiltzen; erabiltzaile orok daki konexio, irisgarritasun eta segurtasun arazoak gure egunerokoaren parte direla. Argi utzi nahi dugu gure kezkek garraio publikoa erabiltzen duen edozein gazteren kezkek direla, urteetan luzatzen eta areagotzen joan direnak. Gurea oso eskualde isolatua da Gipuzkoan, ez dauka burdin sarearekin lotura zuzenik eta bailara barneko garraioaren eskaintza ez da nahikoa. Alboko herrira joateko bi autobus hartu behar izatea da horren adibide. Horrek eramaten gaitu bailarako mugikortasuna auto pribatuen menpe egotera.

**Nola eragiten die horrek gazteei?**

Guri, zein astean zehar gurean ikasi edo lan egiten duen pertsona bati, batez ere, gazteei, askok ez dugulako gidabaimenik, ezta autorik ere. Azken boladan bizitzaren garestitzeak ere arazoa sakondu egin du. Era berean, aipatu behar dugu autobusak zein autobus geltokiak ez direla gune seguruak neska\* gazteontzat, eta gaueko zerbitzu muga-tuek etxerako bidea luzatzen dutela.

**Pertsona zaurgarriak ere badira...**



Garazi Iglesias eta Liher Eguren. DEBAGOIENENKO ERNAI

## "SEGURUA ETA ERABILGARRIA IZANGO DEN GARRAIO PUBLIKOA BEHAR DUGU"

Haiek ere modu berezitan kolpatzen ditu egoerak, sektore horretako askorentzat garraio publikoa delako mugitzeko duten modu bakarra. Uste dugu egun ezagutzen dugun sistema oso garestia dela eta doako bilakatzeko urratsak egin behar direla. Dena den, uste dugu garraio publikoa erabiltzeko kultura sustatu behar dela, klima aldaketak eta krisi sozioekologikoak ezinbestean behartuta, baina gurean dugun zerbitzuak ez du horretarako biderik ematen. Hori indartu eta prezioei mugak jarri beharra dago, trantsizio ekologiko justu baterantz.

**Zer egin da eskualdean garraio publikoaren egoera hobetzeko?**

Egoera hobetzeko egin diren ekintzak ontzat jotzen ditugu; Elorregiko autobus geltokiaren berritzea, esaterako. Dena den, ezin dugu ahaztu prozesua lu-

zea bezain lotsagarria izan dela, eta egin diren aldaketak ez direla nahikoak.

**Zer behar du eskualdeko garraio sistemak duina izateko?**

Herritar ororen zerbitzura egongo den garraioa behar dugu. Denontzat segurua, irisgarria eta erabilgarria izango dena. Horrek guztiz publikatua egotea eskatzen du, langileen zein erabiltzaileen mesedetarako, enpresa pribatuen interesetatik aldentu eta garraioa herritarren interesetara jartzeko. Herritarra erdigunean jartzeko. Garraio publikoak herri eta gizarte bezala ditugun beharrei erantzun behar die; inoiz baino garrantzitsuagoa da garraio duina izatea.

**Zer da eta nola eramango duzue aurrera *Garraio publiko duina* dinamika?**

Gure aldarriak eskualdeko garraioaren bueltako erabakiak hartzen diren guneetara eramanez, eskualdeko gazteon eskariak aplikatu eta garraio duina lortzeko helburuarekin. Datozen asteetan hainbat ekintzaren bidez aldarriak sozializatu eta herritarren aktibazioarekin urratsak egitea da asmoa.

## GARAIA TALENTUAREN KUDEAKETA 2024

GARAIA Parke Teknologikoak, Orekan Biziren laguntzarekin, talentuaren kudeaketara zuzendutako ekintza desberdinak proposatzen ditu, 09:00etatik 11:00etara GARAIA Parke Teknologikoan.



### JARDUNALDIAK:

**OTSAILAK 22**

• Psikologoa etxean. Osasun mentala nola autokudeatu. Jon Zabal (Teknodidaktika).

**OTSAILAK 29**

• Enpresa osasungarri baten boterea. Markaren lehiakortasuna eta boterea handitu. Belen Urrutia (Sistematia)



Jardunaldietan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da IZEN-EMATEA.



IZENA EMAN HEMEN





ZABALIK

AMAGOIA LASAGABASTER

## Hogeita bosti, bost!

Aztikerrek, EITB Focusek, Ikerfelek, Metroskopiak, CISek... eta beste dozenaka enpresa kontsultari/ inkestagilek egindako ikerketen emaitzak aurkitzen ditugu medioetan aldian behin. Bakoitzak bere metodologiarekin, gizarte osora estrapolatzen dituzten emaitzak interpretatzen dituzte. Ez dut dudan jartzen profesionaltasun, zehaztasun eta objektibotasun zabalenaekin aritzen direnik, baina ni ez naute konbentzitzen. Errezelo galanta daukat.

Idatzi hau egin dudanerako –otsailaren 6a; ez zait azken orduan ibiltzea gustatzen–, Urkulluk oraindik ez digu iragarri hauteskundeak noiz izango diren. Hala ere, dozenaka egunkari-orri bete dituzte inkestok. Zergatik erabiltzen ditu media-talde handi bakoitzak bere inkestagileak? Zergatik, egindako galderaren erantzunak berdintsuak izanik, bakoitzak bere ondorio propioak bihurtzen ditu titular?

Nik ere inkesta egin dut eta 25 pertsonari galdetu diet ea erreparatzen dieten inkesta horiei –familiakoei, lankide batzuei, herriko dendari bati, lagun bati ...–, eta 25etik hamalauk esan didate ez dituztela begiratzen; 25etik hogeik ez diete sinesgarritasunik aitortzen –euren bizitzan ez dute inkesta horretan parte hartu duenik ezagutu–; eta 25etik 25 ados daude gauza bakarrean: herritarren iritzia manipulatzeko besterik ez dutela balio diote.

Duela hilabete batzuk, Espainiako Estatuko medio garrantzitsu batek zera argitaratu zuen: inkesta baten arabera, gizonezkoen %44, berdintasunaren izenean egindako borroken ondorioz, diskriminatuak sentitzen dira. Gainera, *feminismo* hitzak galdetutako gizonezkoen %62ri gaitzespena eragiten die. Duda barik, ederra inkesta horrek genero berdintasunari egiten dion ekarpena. Berdintasunaren aldeko borrokan, badakigu pribilegiatuen aldetik erresistentziak topatuko ditugula. Ez diezaiegun inkesta bateko titullarrak *oparitu* haiei!

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Harritzekotan

BLANCA URGELL

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/EBA96](https://labur.eus/EBA96)

Euskaltzaindiak argitaratu berri duen edizio batean egileek deitoratzen dute harridura-markarik ez egotea: "Pena da, batzuetan esaldiak interpretatzea zaila delako" (Salaberri, Zubiri & Salaberri 2023). Ignazio Bergara goizuetarraren 1787-1811 bitarteko gutunak txukun- txukun eman dituzte, grafia gaurkotuan gainera, eta dudarik gabe bada gutun horietan jakingarriagorik – gehiena kontuak dira, baina badago mamirik: inor animatuko ahal da hortik

filmik ateratzen, ea Goyak irabazten dituzten–, baina filologiaren frikilandian gaude: ba ote zen halako markarik orduan, ba?

Erdi Aroko kopiagileek ikurrak ugari erabiltzen omen zituzten, artean "harridura-puntua" omen zeritzana latinez (*punctus admirativus*). [...]

Halako ipuin usain bat hartzen zaio azalpen horri, baina, dena dela, ez dezagun pentsa egiatan hain zaharra denik. Jacopo Alpoleio italiar humanista aipatzen dute askok Interneten harridura-markaren sortzailatzat, edo haren erabilera aldeztu zuen lehenengotzat behintzat; ez, ordea –harrigarri bezain

susmagarriki–, italiarazko Wikipediak. Berriz, honek dio inprimatuetan XVI-XVII. mendeetan sartu zela, eta alemanezko literaturako lehen lekukotasuna Luteroren Bibliaren 1797ko edizioan dagoela.

Luterorenak berrehundik gora urte behar izan zituen holakorik izateko. Horra hor aitzakia ederra gure Ignazio Bergarari erabili ez izana barkatzeko. Ezin barkatu, oster, haren zatitxo bat ekarriko ez bagenu, ahogozagarri: "Beratar meakari hoiek beti bondade haundia dute, eta mea gutxi egin! Ni nago Aranoko Kondejuan egiten duten zorren diña mea ote duten".

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura),  
Maketazioa  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.550 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK

## Garraio publiko duina

AIMAR ANDUAGA GARAI  
ONATI

Tren bidezko garraioarekiko guztiz isolatua dagoen eskualdea da gurea; izan ere, 1975etik, burdinbidetik isolatua dagoen Gipuzkoako eskualde bakarra gara. Debagoienean garraio publikoaz hitz egitea autobusaz hitz egitea da; ez daukagu beste aukerarik. Hamarkada luzeetan zehar zenbait instituzioren partetik ahanzturan eroriak garen bitartean, gure herriak bakartuak izan dira eta, aldi berean, gure beharrak asetzen ez dituen AHTa da *kudeatzaile onen* inbertsio nagusia Mugikortasun Sailean. Gainera, Diputaziotik gure eskualdeko garraio publikoaren arazoei konponbidea eman dietela sinetsarazi nahi digute, baina autobus zerbitzuak penagarria izaten jarraitzen du: konexio, irisgarritasun, segurtasun... arazoak gure egunerokotasuna dira.

Larrialdi klimatiko baten erdian, ibilgailu pribatuarekiko dependentzia handia sortu eta erregai fosilen kontsumo neurrigabea erreproduzitzen duen mugikortasun ereduaren aurrean urgentziatzko

neurriak hartu behar dira. Zeren, zer leku du trantsizio ekosozialak gurean? Krisi klimatikoak zer bilakaera izango du eta zelan egongo gara hemendik hamar urtera? Benetan ikaritzen gaitu etorkizunak; hau da, ziurgabetasunak.

Beraz, gazteok ibilgailu pribatua ez den egiazko alternatiba irisgarri eta jasangarriagoak behar ditugu. Autobus zerbitzu publikoen, kalitatezkoen eta duinen aldeko apustuak inpaktu esanguratsua izan dezake ingurumenaren

jasangarritasunean eta gazteon bizitzetan. Hau da, garraio publiko sistema eraginkor batekin, ibilgailu pribatuaren erabilera zuzenean murriztuko da. Horrek trafikoaren pilaketa eta, beraz, karbonoaren aztarna gutxitzeaz gain, belaunaldi berriok mugikortasun ohitura jasangarriagoak hartzera bultzatuko gintuzke. Horrela, larrialdi klimatikoarekiko erantzukizunez jokatu eta kultura aldaketa sustatuko litzateke. Gainera, espazio publikoen duintzeak sen

komunitarioa indartzeko aukera gehiago ematen dizkigu kapitalak gazteon atomizazioa bilatzeko sustatzen dituen balio indibidualisten aurrean.

Garraioa gazteen, langileen eta herritarron mesedetara egoteak, besteak beste, instituzioei arduraz jokatzera eta gazteon hitza aintzat hartzea eskatzen du, benetan garraioa etorkizun jasangarri eta inklusibo baten zutabe izan dadin.

Eskerrik asko!

## Eskerrik asko!

RAMON RAMILA

ARRASATE

Eskerrak emateko idazten ditut lerro hauek.

Joan den urtarrilaren 28an, istripua izan nuen Kurtzebarrira nindoala, basoan. Goizeko hamarretan, alanbrezko hesi batean kateatu, jausi eta pare bat metro amildu nintzen; gorputz osoan hainbat kolpe hartu nituen. Konortea ere galdu nuelakoan nago, ez naiz-eta hainbat gauzarekin gogoratzen.

Kontua da zorte handia izan nuela; izan ere, jende asko gerturatu zen laguntzeko. Mendizale ugari hasieran eta Gurutze Gorria, suhiltzaileak eta Ertzaintza ondoren. Anbulantzia eraman ninduten Txagorritxura.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, guztiei.

Ez zaituztet denak ezagutzen, baina gustura elkartuko nintzateke zuekin, ardotxo bat eta pintxo batzuk hartzera gonbidatzeko. Taberna Berrin elkartuko gara hainbat bihar, zapatua, 12:30ean. Etorri zu ere!

## Amazonian gero eta zuhaitz gutxiago; eta hemen?

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT'

EGITASMOAREN ARDURADUNA  
BERGARA

Amazoniako indigenen buru Puyr Tembe-k esan berri du euren herriak bakarrik ez daudela arriskuan, planeta osoa baizik, eta, horren ondorioz, Lur planetak oreka galduko lukeen klima aldaketa areagotu egingo litzatekeela.

Hark gaineratu du Amazonia ez dela zaindu beharreko baso bakarra, inguruan dauden bioma edo baso guztiak direla zaindu beharrekoak.

Gure inguruak basoberritu egin behar direla dio, baina lurrak bakarrik ez: pentsaera, bihotza eta elkartasuna ere bai, ondorengo belaunaldiek etorkizun duina eduki dezaten.

Eta zuk gure inguruko basoak zaintzen dituzu?

Salaketa-gutuna  
Eskertza-gutuna  
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali  
[gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

Erantzun-gutuna  
Aldarrikapen-gutuna  
Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus)

## TXOKOTIK ZABALERA

## UNAI GAZTELUMENDI

INA  
UTE  
RIAK



# Udalak guztiz berrituko du Amaia antzokia

Proiektuaren erredakziorako lizitazioa irekiko du, lehenik, eta erredaktatu ostean obrak egiteko lizitazioa. Lanak 2025eko bigarren seihilekoan hasia espero dute udal ordezkariak, eta agintaldiarekin batera amaitzea

## Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Arrasateko Udalak eskatutako kanpo-txosten teknikoak adierazi duenez, Amaia antzokiak eraberritze lanen premia du. Garazi Etxeberria Hirigintza zinegotziak esandakoaren arabera, txostenak azterketa teknikoak jasotzen du; hau da, egin beharreko lanak zerrendatzen dira bertan. Kanpo-txosten horrek zerrenda luzea erakusten du, ugariak dira-eta zaharkituta gelditu diren instalazioak.

Txostenean jasotzen diren lan tekniko guztiak gauzatzeko aurrekontua 2.674.425 eurokoa da. Hala ere, eraberritze lanek bestelako esku hartzeak beharko dituzte, eta horrek aurrekontua handiagoa izatea ekarriko du. Aurrekontu zehatzaren zenbatekoa ez da jakingo proiektu erredaktatzen den arte.

Erredakzio hori burutu ahal izateko lizitazioa irekiko du Udalak, eta 2025 hasieran prest egotea espero dute. Ostean, obren lizitazioa etorriko da, eta udal ordezkariak aurreikusten dute lanak 2025eko bigarren seihilekoan hasiko direla. Maider Morras alkateak adierazi duenez, obrak agintaldiarekin batera amaitzea espero dute.

## Aldaketa askoren beharra

Txostenak aldatu edo berritu beharreko elementu asko jasotzen ditu. Kalte nabarmenenak *hall*-ean ageri dira. Gune horrek intsonorizazioa eta suteen babeserako sektorizazioa behar ditu, gaur egun indarrean dagoen araudiak ezartzen duen babes mailara egokitu ahal izateko.

Klimatizazio sistemak ere arazoak ditu, txostenaren arabera. Hark dioenez, baldaralduta beharra dago, eta aeroterminia sistemara pasatzeko aukera egongo litzateke. Sistema hori gas sistema baino jasangarriagoa da eta ikuspegi ekonomikotik alde txikia dakar.



Garazi Etxeberria, Maider Morras eta Andoni Arratibel, Amaia antzokian. OIHANA ELORZA

## 2025EKO BIGARREN SEIHILEKOAN OBRAK HASTEA AURREIKUSTEN DUTE UDAL ORDEZKARIEK

Eraikinaren estrukturaren ere identifikatu dituzte arazoak. Esparru horretan egin beharreko lanen artean daude eraikinaren estalkiko jarduketak, fatxadaren aurkitutako zuloak itzea, atzeko kanal irekia garbitzea eta erretena garbitzea.

Areto nagusirako esku-hartzeak biltzen ditu txostenak, baina esanguratsuen hezetan dituzten paretekin eraberritzeko beharra da. Eustormen eta egurrezko panelen artean zenbait elementu jartzea aurreikusten da, modu horretan drainatze eta inpermeabilizazio egokia egin eta isolamendu termiko egokia ezartzeko. Horrez gain, beste lan txiki batzuk aipatzen ditu txostenak; besteak beste, argiak berritzea edo be-saulkiak ordezkatzeta.

Agertokirako bi hobekuntza nagusi aurreikusten dituzte:

lurzoruaren errefortzu eta berrikuspuna eta instalazio eszenikoak berrikustea. Hobekuntza horien baitan, ekipoak altxatzeko sistema motorizatu baten ezarpena aurreikusten da.

Amaitzeko, erabiltzaileen zein langileen komunitan irisgarritasuna bermatzeko lanak aipatzen dira. Horrekin batera, langileen zein artisten baldintzak hobetze aldera, ekipamenduan hainbat egokitze lan jasotzen ditu kanpo-txostenak.

## Urtebetez itxita

Andoni Arratibel Kultura zinegotziak adierazi du proiektu konplexua dela eta sailen arteko elkarlanak berebiziko garrantzia izango duela. Hori dela eta, Hirigintza, Kultura eta Obra, Zerbitzu eta Mantentze sailek elkarlan mahaia eratuko dute proiektua behar bezala gauzatzeko.

Horrekin batera, Arratibelek baieztatu du Amaia antzokia urtebetez itxita egongo dela. Itxiera horrek eragingo duen hutsunea nola kudeatu jakiteko, proiektuaren erredakzioa egin bitartean kultur azpiegituren mapa egingo dute modu paraleloan.

## Udal Gobernuak '2023-2027 Gobernu Plana' aurkeztuko du

Otsailaren 19an izango da aurkezpen nagusia, eta hilaren 20tik aurrera auzoz auzo aurkeztuko dute plana

## Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Otsailaren 19an aurkeztuko du Udal Gobernu Taldeak 2023-2027 *Gobernu Plana*. Aurkezpen ekitaldi nagusia 18:00etan izango da, Kulturateko klaustroetan. Ekitaldi horretaz gain, otsailaren 20tik aurrera herriko auzoetan aurkeztuko dute plana, auzotarraren iritzia entzun ahal izateko. San Andresen otsailaren 20an izango da aurkezpena, Etxaluzen; Musakolan 21ean, jubilatuen etxean; Santa Marinaran 22an, auzo-alkatetzan; eta Er-guinen, berriz, 23an, auzo-alka-

tetzan. Auzoetako aurkezpen guztiak 18:00etan hasiko dira.

Planaren izena *Guztion Arrasate* da, eta 70 proiektu estrategikotik gora barnebiltzen ditu; *Gobernantza hurbila eta eraginkorra*, *Bizitzeko Herria*, *Oinarri komunitarioa duen herria* eta *Herri aktibo eta ekintzailea* izeneko lau ildo estrategikotan banatuta. Udal ordezkariak plana publiko egitea gardentasun ariketa bat dela adierazi dute, modu horretan herritarrek haren betetze mailari jarraipena egiteko aukera izango dutela irizita.



IRATI CONCEPCION

## Inauteriak elkarrekin ospatzen

Lehen aldiz, Inauteriak elkarrekin ospatu dituzte Arizmendiko eta Arrasate Herri Eskolako ikasleek. Hiru gunetan banatu da ospakizuna: Uribe-San Andres gunekoak Maiatzaren 1a plazan egon dira, erdigunekoak Jose Maria Arizmendiarieta plazan eta Musakolakoak, berriz, San Isidro plazan.

## 'Arnasa betean' dokumentalaren emanaldia

Emakume Txokoak eta Kultura Sailak antolatuta, otsailaren 27an 19:30ean *Arnasa betean* dokumentala emango dute Amaia antzokian. Bertha Gaztelumendi Caballero eta Rosa Zufia Sanz dokumentalaren zuzendariak han izango dira. Lehengo eta egungo euskal emakume zinemagileen ahotsak jasotzen ditu filmak.

## Makillaje naturala egiten ikasteko ikastaroa

Otsailaren 17an, hileko hirugarren zapatuko azokaren baitan, makillaje naturala egiten ikasteko tailerra eskainiko du Ekoudalatzek, 11:00etan, Seber Altube plazan. Arrasateko Udalak jakinarazi duenez, aurrez izena eman beharko da tailerrean parte hartzeko. Izen-ematea *izenemateak. arrasate.eus* webgunean egin beharko da.

# Zuntz optikoa jartzeko lanak luzatu egingo dira

Alde zaharrera zuntz optikoa eramateko lanak sehi hilabete luzatuko dira; izan ere, hasieran baino atari gehiagok egin dute eskaera. Horregatik, Udalak lanok luzatu beharra izan du; orain, abuztuaren 26rako lanak bukatuta egotea aurreikusten da

**Iñigo Barrena Kortabarria** ARRASATE Arrasateko Udalak aditzera eman du alde zaharrean zuntz optikoa jartzeko lanak beste sei hilabete luzatuko direla; izan ere, aurreikusitakoa baino atari gehiagok egin dute eskaria. Hasieran, 85 izan ziren eskaria egin zutenak, eta, ondoren, gehitzen joan dira eskakizun horiek. Lanak zatika egiten aritu dira, eta gaur egun Iturriotz kaleko lanak amaitzear daude; horiek hilaren bukaerarako amaituta egotea espero dute.

Amaitutakoan 109 atari izango dira zuntz optikoa izango dutenak, baina, eskaria handitu egin denez, lanak luzatu beharra izan dute. Dena amaitzean, esku hartzeak ia 120 ataritan egitea aurreikusten dute. "Gure asmoa da inor ez gelditzea zuntz optikoa edukitzeko aukerarik gabe, horregatik luzatu dugu lanen epea", adierazi du Kepa Urteagak, Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotziak.

Lanak luzatzearen beste arrazoi bat ondoren egon daitezkeen arazoak ekiditea izan dela aitortu du Urteagak: "Zuntz optikoaren kaxek atari barruan egon behar dute, eta, lan horiek ez badira orain egiten, ondoren bizilagunek egin beharko litzazkete, eta, jakina, horrek atzera-

penak eta erosotasun falta ekarri ohi ditu. Horregatik erabaki dugu behin hasita lanak guztiz bukatzea".

## Kostu gehigarrik ez

Aurrerantzeko esku hartzeak berriz ere aurretik aritu diren kaleetan egingo dituzte; besteak beste, Ferreriasen eta Erdiko kalean. Lan horiek, ordea, ez dute hasierako aurrekontuan aldaketarik eragingo. "Esku hartze berriek ez dute prezioan eraginik izango eta 199.000 eurotan mantenduko da", dio Obrak,

Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotziak.

## Zuntz optikoa martxan da

Lanak amaituta dauden toki ia gehienetan zuntz optikoa martxan dago, eta gainontzeko tokietan, mugikor konpainiaren eta lanak egiten ari den enpresaren artean egiaztapenak egitea faltako litzateke, ondoren zerbitzuaren alta emateko. Abuztuaren 26rako aurreikusten dute lanak amaituta egotea; bitartean, eskaerak egiteko aukera izango da, kontratua martxan dagoen bitartean.



Langileak Iturriotz kalean lanak egiten astean. IÑIGO BARRENA

## Ikastaroa antolatu du Ekin Emakumeak Elkarteak

*Biodantza haurdun bikotearekin* du izena ikastaroak; zortzi saio izango dira. Lehen hiru saioak haurdunaldian egingo dira, martxoaren 9an eta 23an eta apirilaren 13an; gainontzekoak, haurrak jaiotakoan. Izen-ematea, elkartean, 943-79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono-zenbakietara deituta edo *emakumeakekin@emakumeakekin.eus*-era idatzita.

## Txosna Batzordea sanjuanak prestatzen hasi da

Arrasateko Txosna Batzordea 2024ko sanjuanak prestatzen hasi da. Herritarrei dei egin diete "herritik eta herriarentzat" izango diren jaiak antolatzeke. Eragile berrientzako eta haiek dituzten proposamen berrientzako "ateak zabalik" dituztela nabarmendu dute. Hurrengo bilera otsailaren 19an egingo dute, 20:00etan, gaztetxean.

## Kristina Berasainen liburua aurkeztuko dute Kulturaten

Otsailaren 20an 19:00etan izango da Kristina Berasain kazetariaren *Sahara, herri bat erresistentzian* liburuaren aurkezpena. Hain zuzen, Mendebaldeko Saharako gatazka aztertu du bertatik bertara, eta modu erraz bezain sakonean kontatzen du hango egoera. 2024ko Argia sarrietan saritua izan da, prentsa kategorian, egindako lanagatik.



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

## Nor da lapurra?

Asteburuan Madrilen izan naiz. Colon metro-geltokian jaitsi nintzen, eta Altus motxila ezin klasikoagoa bizkarrean pasa nuen Espainiako bandera ezin handiagoa. Euri asko zela-eta, Auzitegi Nazionalaren arkupean zabaldu nuen Google Maps. Ezin arrotzago sentitu.


Ogitarteko bat jateko geratu nintzen ingeles perfektuan zebilen heldu-kuadrilla baten ondoan, afalduta nahi bainuen sartu ohera. Eta begiradak nigana biratu zituzten; batek motxila aurrealdera pasa zuen eta beste batek lepotik zintzilik zeraman katea jertse azpira sartu zuen.

Ondotik pasa nintzaieanean begira jarraitu zuten; zer bait kenduko nien ustea izango zuten... Eta orduan konturatu nintzen badela, nolabait, *klase ertaina*-ren metafora on bat.

Normalean gu baikara itxura txiroagoa duen horrek lapurtuko digun beldur. Eta gu *horiek* bezalakoak ez garela uste izaten dugu; milaka euroko erlojua daramanaren antz handiagoa dugula. Eta gero, halakoetan ohartzen gara ezetz, ez dugula azken horien antzik, eta ez dugula izan nahi.

**Txotx denboraldia**  
Erreserbak  
685 72 15 93

Ingurune zoragarrian,  
bailaratik irten gabe  
Aramaioko sagarrarekin  
egindako sagardo ekologikoa  
Bus zerbitzua erabiltzeko  
aukerarekin



# Denboran atzera egitearen xarma

Arrasate Zientzia Elkarteak 60ko eta 70eko hamarkadetara bidaiatzeko aukera eskainiko die laster arrasatearrei, eta 'Foto Laso' pelikula arduratuko da horretaz

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE *Foto Laso* ikus-entzunezkoa aurkeztu du Arrasate Zientzia Elkarteak, Iban del Campo zinema-zuzendariarekin elkarlanean ondu duten dokumentala, hain zuzen, eta, funtsean, Pedro Sologaitza *Laso* argazkilaria arrasatearrek 60ko eta 70eko hamarkadetan Super 8 zinemakamerarekin grabatutako irudiekin osatuta dago lana.

Aste honetan aurkeztu badute ere, Arrasate Zientzia Elkarteak 2018an eman zituen lehen pausoak ikus-entzunezkoa egiten hasteko. "Zientzia elkarteko kide Pedro Mari Narbaizaren iloba bat etorri zitzaigun esanez garai bateko irudiak zituela gordeta etxean. Hala, egun batean Super 8 kamerarekin grabatutako hainbat bobinarekin etorri zitzaigun lokalera. Jakin-min handia sortu zitzaigun, baina hasieran arazoak izan genituen irudi horiek ikusteko, ez baikenuen proiektorik; gero, gainera, proiektorea lortu genuenean ere, ez genuen lortu martxan jartzea", azaldu du elkarteko kide Jose Angel Barrutiabengoak. Beraz, irudi horiek digitalizatzea erabaki zuten. "Bideoak ikusten hasi ginenean, argi ikusi genuen irudi horiek altxorrak zirela, ondare garrantzitsua, baina konturatu ginen 40 ordu inguru zezudela grabatuta eta aukeraketa-lana egin beharko genuela herritarrei erakusteko".

## Askotariko ekintzak grabatuta

Garai hartan oso ezaguna zen Laso argazki denda, Jose Mari Lasagabasterrek eta Pedro Sologaitza ireki zutena -bi abizen horietatik dator, hain zuzen, *Laso* izena-. "Lasagabasterrek argazkiak ateratzen zituen, nagusiki, eta arlo horretan profesionalizatu zen. Sologaitza, aldiz, ar-

gazkiez gain, bideoak ere grabatzen zituen".

Grabazio horien baitan, askotariko ekintzak zeuden. Izan ere, herrian egiten zituzten ekitaldiak grabatzen zituen Sologaitza, eta garai hartan ez zen batere ohikoa hori. "60ko hamarkadan oso etxe gutxitan egongo zen bideokamera bat. Gaur egun pentsaezina badirudi ere, orduan argazkilariek etxeko helbidea eskatzen zieten herritarrei, eta haiei ateratako argazkiak etxera bidali", dio Barrutiabengoak.

## Argazkigintzan aitzindari izan zen Arrasaten

Arrasateko argazkigintzan aitzindari izan zen Pedro Sologaitza *Laso* (1920-2009). Argazkilaria profesionala izateaz gain, zinemagile amateurra ere izan zen. Jose Mari Lasagabasterrekin batera Laso argazki denda ireki zuen -bi abizenen arteko jokoa da Laso-. Hasieran, Ferrerías kalean izan zuten denda, eta, ostean, Grupo San Juanera lekualdatu zuten denda. Argazki asko egiten zituen Sologaitza: nortasun agirietarako, tramite administratiboetarako eta bestelako ekintzetarako. Horrez gain, 60ko hamarkadan hasi eta ia 1980ra arte, askotariko ekitaldiak grabatu zituen herrian Super 8 bideokamerarekin. Horiek jasotzen ditu pelikulak.

40 orduko grabazioak zirenez, aukeraketa egin behar izan zuten, eta irizpideetako bat izan zen "desagertutako Arrasate hori" erakusten zuten grabazioak aukeratzea. "Izan ere, batetik, Arrasatek aldaketa handiak izan ditu 60ko hamarkadatik hona, eta, bestetik, ohitura asko ere bidean galdu dira. Beraz, hori aintzat hartuta, irudiak aukeratzen hasi ginen", dio elkarteko kide Jabier Bengoak. "Era berean, Iban del Campo zinemagilearekin harremanetan jarri ginen, eta hortik aurrerako guztia haren lana da".

## Hamabost zatitan banatuta

Aukeraketa eta muntaia egin ostean, 62 minutuko ikus-entzunezkoa da emaitza. Hamabost zatitan dago banatuta: 1964ko euskal jaia; urte bereko Vasco-Navarro ziklo-kros txapelketa eta 1965eko gazte mailako ziklo-kros proba; Santa Ageda abestaldearen antzinako ohiturak; Arizmendiarrietari eta beste elizgizon batzuei egindako omenaldia; hainbat urtetako San Juan jaiak; 1967an Mesedeetako ikastetxea eraikitzeke lehen harria jarri zuteneko; 1969an erretiratuei egindako omenaldia; euskal dantza, 1971ko liburu azoka, 1977ko ikurrinaren eguna, Seber Altuberi egindako omenaldia eta plazari bere izena jartzeko ekitaldia; EAJren mitin nazionala Gurea zinemaren; parrokiako abesbatzak Erromara egindako bidaiak eta Udala auzoko baserritarren aisialdia.

Bengoaren esanetan, zati hunkigarrietako bat erretiratuei egindako omenaldia da. "Gure aitona guztiak han zeuden, alkandora zuriarekin eta txaketa-rekin. Herrera egin ostean, Union Cerrajera lantegiko jatetxean egiten zuten bazkaria eta zozketak ere egiten zituzten". Barru-



Kart proba bat Arrasaten, 60ko hamarkadan. ARGAZKIAK: PEDRO SOLOGAITZA 'LASO'



Vasco-Navarro ziklo-kros proba, Arrasaten.



Arrasateko mojak, Seber Altube plazan.

tiabengoak zera gehitu du: "Lehen omenaldia ez bazen, lehenengotarikoa izango zen 1969ko hura".

## Audioa ere, ezinbestekoa

Del Campok nabarmendu du pelikulan agertzen diren irudiak zoragarriak direla. "Gaur egun, halako bideoek ez dute hainbesteko baliorik, herritar gehienek dutelako grabatzeo aukera eta ikus-entzunezkoen gaindosi bat daukagulako, nolabait. Baina garai hartan oso aukera gutxi zegoen halako irudiak grabatzeko. Beraz, badauka balio gehigarri bat material horrek guz-

tiak". Hala ere, zinemagilearen ustez, audioak ere ezinbesteko garrantzia du pelikulan. Izan ere, Sologaitza zuzeneko soinuk grabatzen zituen eta muntaia bidez lokuzioak ere eransten zizkien irudiei. Horrez gain, Del Campok *Ahotsak.eus*-eko hainbat ahots ere gehitu dizkio ikus-entzunezkoari. "Pentsatu nuen polita izango zela garai hartako Arrasateko testigantza gehitzea, eta horrelaxe egin dut. Kontakizunari erritmoa eman diote ahots horiek eta oso polita izan da ikustea testigantza ondo uztartu direla irudietan ikusten



Sokamuturra, Iturriotz kalean, 60ko hamarkadako San Juan jaietan.



Santa Ageda abestaldearen argazki bat Lasoren sinadurarekin.



Haurren danborrada, Herriko Plazan, oraindik parrokiako arkupea zegoela.

denarekin. Hori da muntaiaren magia, oso ezberdinak diren bi elementu elkartu eta ikus-entzunezkoak indarra hartzen duela ikustea", azpimarratu du zinemagileak.

#### Estreinaldia, otsailaren 23an

*Foto Laso* ikus-entzunezkoa 2020rako prest zeukaten, eta aurkeztu ere aurkeztu zuten, urte hartako martxoan. Edozelan ere, COVID-19aren pandemia etorri zen eta ez zuten aukerarik izan egindako lana herritarrei erakusteko. Gero, gainera, ete-naldia aprobetxatuta, beste hain-

bat aldaketa ere egin dizkiote azken urteotan, Barrutiabengoak adierazi duenez, eta egindako lana fintzeko baliatu dute. Beraz, orain bai, iritsi da lana pantaila handira eramateko ueña.

Hasiera batean, behintzat, doako bi emanaldi egingo dituzte, Amaia antzokian: lehena otsailaren 23an izango da, datoren egubakoitzean, eta bigarrena, martxoaren leian; biak ala biak, 19:30ean. "Zoritzarrez, Amaia antzokiaren edukiera erdira murriztuta dago, segurtasuna bermatzeko. Edozelan ere, arrasatearrak dokumentala

## "Proiektu bitxia eta berezia izan da, atzerako bidaia zoragarri bat"

IBAN DEL CAMPO ZINEMA-ZUZENDARIA

*Foto Laso* presenta ikus-entzunezkoari forma emateaz arduratu da Iban del Campo zinema-zuzendaria (Arrasate, 1971).

### Nola bizi izan duzu prozesua?

Oso proiektu bitxia eta berezia izan da niretzat, denboran egindako bidaia zoragarri bat. Funtsean, Lasoren grabaketa amateur horiek hartu eta ordubeteko filma egin dugu. Arrasate Zientzia Elkarteak digitalizatutako material guztia ikusi nuen osorik, eta, Arrasateko kontuak ez ezik, Lasoren bidaia batzuk ere bazeuden. Beraz, hainbeste material izanda, Arrasateko grabazioetan zentratu ginen, eta, nolabait, kronologikoki egituratu ditugu.

### Ezagutzen zenituen grabazio horiek aurrez?



E.A.B.

Egia esan, ez. Laso dendara joaten nintzen, arrasatear asko bezala, nortasun agirirako argazkiak ateratzera. Gero, argazkilari amateur gisa hasi nintzenez, karreteak ere hara eramaten nituen, baina ez nekien irudiak grabatzen zituenik. Horregatik, sorpresa

handia hartu nuen AZEkoek proposamena egin zidatenean.

### Haiek altxor gisa definitu dituzte irudiak; hala uste duzu?

Zalantza barik. Batetik, arrasatearra izanik, nire umetasunera bidaiatzeko balio izan didalako; bestetik, zinemagile bezala, halako materialarekin lan egin ahal izatea ederra izan da.

### Irudiak bai, baina audioa ere harribitxia dela diozu.

Bai. Batetik, oso deigarria egin zitzaidan Lasoren bobina originaletan zuzeneko soinua egon izana. Izan ere, Super 8 kamera askok ez zuten aukerarik ematen zuzeneko audioa grabatzeko, eta aparte grabatu behar izaten zen garai hartan. Lasok, gainera, zuzeneko soinuari lokuzioak gehitzen zizkion. Irudiak altxorak dira, baina baita jatorrizko bobinetan dauden soinuk eta musikak ere, garaiko abestiak ere jasota baitaude.

## Garai hartarako, "pribilegio hutsa"

Super 8 bideokamera 60ko hamarkadan sortu zuten, eta, hain zuzen, 8 milimetroko zabalera film erabiltzen duen formatua da. Garai hartan, oso jende gutxi zuen halako kamera bat Arrasaten, eta, Del Campok adierazi duenez, bazen zinema amateur egiteko modu bat. "Gainera, familia bati goi mailako estatusa ematen zion argazki kamera hori edukitzeak, ez zelako batere merkea. Horrez gain, zinema ez zegoen horren demokratizatuta. Beraz, pribilegio hutsa zen", dio. "Nik betidanik izan dut gustuko zinema analogikoa, Super 8, Super 16 edota Super 35 kamerekin grabatutakoa. Digitalizazioaren aroan bizi garen arren, zinemaren ere badago analogikoarekiko miresmen hori, eta analogikoan lan egiteak, zailtasun gehiago ere badituen arren, badu xarma berezi bat. Beste pisu bat ematen dio irudiari, beste kalitate bat".



Super 8 bideokamera bat. C.C.

ikusteko gogoz geratzen badira eta eskaria badago, emanaldi gehiago egingo genituzke", nabarmendu du Bengoak.

### Lasori egindako omenaldia

Pelikula hori Lasori egindako omenaldi bat dela dio Del Campok, azken batean, haren begiradatik jasotako Arrasate erakusten baitu. "Edozelan ere, Erromara egindako bidaiaren emaztearekin batera agertzen den arren, oro har, oso irudi gutxitan agertzen da. Horregatik, Arrasate Telebistan Jose Ramon Elorzak Lasori berari egindako elkarrizketa bat erabili dut pelikularen hasieran, ikusleek lehen momentutik jakin dezaten nor zen, hasieratik identifikatu dezaten", azaldu du zinemagile arrasatearrak.

### Arrasatearrentzako oparia

Gaineratu du Arrasate Zientzia Elkartearen ekimenez gauzatu duten ikus-entzunezkoa ikustea merezi duela, eta "herritarrentzako oparia" dela argudiatu. "Zinemagintzan, oro har, gehien disfrutatzen duzun ueña prozesua bera da. Kasu honetan, prozesua plazer hutsa izan bada ere, helburu nagusia da altxor hori arrasatearrei erakustea. Arrasatearrentzako opari bat daukagu esku artean, eta, beraz, denboran bidaiatzera animatzen ditut arrasatear guztiak. Amaia antzokian, gainera, bidaia sakanagoa da, pantaila handian".

## "DAGOENEO DESAGERTUTA DAGOEN ARRASATE ERAKUSTEN SAIAU GARA FILMAREKIN"



JABIER BENGOA  
ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA

## "60KO HAMARKADAN ARRASATEKO OSO ETXE GUTXITAN EGONGO ZEN BIDEOKAMERA BAT"



JOSE ANGEL BARRUTIABENGOA  
ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA

# Eskandinaviar ukituko rocka, hemengo pasioaz

Antzuolako eta Arrasateko Korda Rota taldeak labetik atera berri duen hamar abestiko 'Panem et circenses' lana aurkeztuko du Arrasateko gaztetxean ostiralean, hilak 23. Bost urtean landutakoa grabatuta, zuzenekoetan erakusten dabilza orain



Raul Uriarte, Francesco Basile, Aitor Alegre eta Unai Okina, gaztetxe kanpoan, disko berriarekin. H.L.

## Hasier Larrea ARRASATE

Europa iparraldeko hard-rocka dute gustuko Korda Rotako taldekideek: kuadrilla bereko hiru lagun entseguak egiteko elkartu ziren, eta Italia hegoaldeko etorritako Francesco Basile ezagutu zuten, gitarra-jole trebea. Sorpresa polita hartu zuen lehen aldiz lokalera gonbidatu zutenean: "Small Jackets taldearen

posterra zegoen zintzilik, nire anaiak bateria jotzen zuen taldearena, txikia da-eta mundua!".

## Egokitzeo gai

Sinergia bazegoela ikusita, lagunen hanka jarri zion mahaia-ri, sendotasuna eta oreka. "Hura batu aurretik, bi gitarra eta bateria ziren gure instrumentuak; beraz, baten batek baxua hartu

behar... Soilik lau akorde jotzeko gai nintzenez, niri tokatu zitzaidan", azaldu du, umoretsu, Aitor Alegre Laje-k. Abeslariaren figura Basilek eta Laje-k berak konpartitzen dute, hizkuntzaren arabera. "Ingeleseko gehienak nire kontu, eta euskarazkoetan estribilloetan ere laguntzen dut", dio Antzuolan finkatuta dagoen italiarrak.

## Gogoko dute bustitzea

Bailara inguruan eman izan dituzte kontzertuak; azkena, Antzuolako gaztetxean, diskoa kaleratu berri eta Santa Barbara taldearekin oholtza konpartituz. Hain justu, talde horrek irekiko du Arrasateko emanaldia ere, gaur zortzi, 22:00etan. Azkenaldian, gaztetxe itoginek atsedean eman dutela dirudi, baina, taldearen aurrekariak ikusita, ez dirudi gai horrek askorik kezkatzen dituenik. "Joan den udan, Elgetan, karpa txiki batean jotzeko gonbidatu gintuzten, erromeriaren ostean, ordu txikietan. Unea iritsita, sekulako euri-jasa eta haize-ufadak zirela, aurrera egitea erabaki genuen. Oholtza igerileku bihurtu zen eta gitarren pedalak izorratu zitzaizkigun. Arroz artean sikatuta konpondu genuen aberia", kontatu dute laurek.

## Gozamena oinarri

Errekurtsuak badituztela ezin uka. Musikazaleak berdina pentsa dezake euren abestiak entzunda bakarrik. Musikan zentratu dira, gehienbat, detailerik txikiena ere ondo zainduta. Hala, trinkoak dira konposizioak, eta freskoak hitzak. "Rocka kritika soziala egiteko leiho bat da, eta guk alienazioari, sare sozialei, pobrezari eta eutanasiari buruz hitz egiteko baliatu dugu. Baina azaleko gaiak ere aipatzen ditugu modu arduragabeagoan", azaldu du Raul Uriarte Rufo-k.

Emaizta horretara heltzeko gakoa "egunerokotasunaz disfrutatzea" da, Rufo-ren ustez: "Astearte batean lokalera joatea plazer hutsa da, musika pasio bezala, zaletasun bezala, ikusten dugulako. Denbora dezente eskaintzen diogu, bai elkarrekin gaudenean eta baita etxean ere,

bakoitzak bere kabuz egiten dituen lanketak".

## Bidelagun "aparta"

Hamar kantuak nahiko borobil-duta zeuzkatenean joan ziren Aretxabaletako kuartera, haien lagun Asel Errastirengan konfiantza osoa jarrita. Laje-rentzat, esaterako, lehen esperientzia izan da grabaketa estudio batean, "Asel alboan izanda, egunero" errepikatuko lukeen esperientzia. Rufo-k ere hitz ederrak besterik ez du musika-ekoizlearentzat: "Oso gustura egon gara Aselekin; hasieratik inplikatu zen. Entsegu batera etorri zen, zer egiten genuen entzuteran, eta, antza, asko gustatu zitzaion. Sekulako lana egin du, abestiak grabatu ez ezik, nahastu eta masterizatu egin dituelako".

Urria eta azaroa arteko aste-buru haiek gogoratzen, onartzen dute "energia handia" jarri zutela diskoan, baina merezi izan duela erabat: "Denok baikaude oso pozik".

## Salmenta-puntuak

*Panem et circenses* lana fisikoan eskuratu nahi duenak Dat, Osorik eta Taupa tabernetan aurki dezake, baita Aretxabaletako Kixkorren eta Antzuolako Aitz Garbin ere. Gainera, sare sozialei bitartez ere entzun daiteke. Diskoaren diseinuari dagokionez, proposamen artistikoa Basileren lehengusu Antonio Bob Della Ragione egin du. Gozatu ogiaz eta zirkuaz!

## "INOIZ GITARRAREN PEDALAK BUSTI ETA APURTZEN BAZAIZKIZUE, SIKATU ARROZ ARTEAN"

## Arrasate Musikalen bandarentzat ez dira bukatu Inauteriak

Joan den asteburuan musika eskolako ikasleek eta big band txarangak egin bezala, moztortuta joko dute kontzertua domeka honetan bandako musikariek, Amaia antzokian, 12:30ean hasita. Aratusteetako ohiko kontzertua izango da, eta aurten espazioa hautatu dute gaitzat: "Hala, hainbat film eta telesail-etako soinu-banda ezagun mor-

doxka joko ditugu; esaterako, *Star Wars*, *Star Trek*, *Independence Day*, *Doraemon* eta *ET*-renak; familian etortzeko moduko ikuskizuna eskainiko dugu", azaldu du Arrasate Musikaleko Edorta Ayastuyk. Leihatila ordubete lehenago irekiko dute eta gehienez 400 sarrera banatuko dituzte, doan.

Bestalde, hilaren 21ean, gitarra elektrikoarekin jarduten duten ikasleek Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean eman go dute kontzertua, 18:00etan.

## Ahoz Aho jaialdiak presentzia nabaria izango du Arrasaten

Etxean bezala sentituko dira, beste behin, ahozkoatasunaren nazioarteko jaialdiko kontalari gonbidatuak. Intujai konpainiak antolatzen duen zirkuituaren baitan, Debagoienean hainbat geldialdi egingo dituzte; tartean, Arrasaten.

Hain justu, atzo inauguratu zuten jaialdia, Kulturaten, Charo Pitak eta Odei Arregik hau-

rrantzako ipuinak hizpide hartuta. Datorren asteazkenean, publiko helduari zuzenduko zaio Aldo Mendez kubatarra, toki berean, 19:00etan hasita. Munduaren ikuskera poetiko bat adierazten maisua da Gaztela-Mantxan bizi den kontalaria.

Haurrentzako ipuinak Santa Marinako liburutegian entzuteko aukera ere eskainiko du Ahoz Aho jaialdiak; hilaren 28an izango da hori, 18:00etan, Ane Gebararen eta Nelson Calderonen eskutik, euskaraz eta gaztelera.

## Arte dramatiko eta dantza ikasi nahi dutenentzako hitzaldia

Bilbon dagoen Dantzerti eskolako ikasketaburuek informazio-hitzaldia egingo dute otsailaren 19an, astelehena, 18:30ean, Kulturaten, Doke antzerki eskolak antolatuta. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arte dramatiko eta dantza goi mailako eskola da Dantzerti, eta etorkizuneko profesionalak formatzea du helburu.



Aramaioko Iturrizuri kaleko edukiontzia. I.A.A.

## Errefus kopurua murrizteko modua lantzen

Gorbeialdeko Kuadrillak berak dauka kuadrilletako zabor kudeaketaren ardura, eta errefusa murrizteko estrategia ari da lantzen; gakoa herriko konpostajearen dagoela dio Gorbeialdeko Ingurumen teknikariak, eta ideia hori babestu du Aramaio Udal Gobernuak

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARAMAIO Gorbeialdeko Kuadrilla zaborren kudeaketaren estrategia lantzen ari da herriekin lankidetzan, eta horren aurkezpena egin zuen Gorbeialdeko Ingurumen teknikari Jon Toñak Aramaio Udal Gobernuaren eta auzo-alkateen aurrean. Helburu nagusia da errefus kopurua murriztea. Ara-

ban gaur egun sortzen den hondakinaren %63k zaborregian amaitzen dutela azaldu zuen Toñak: "Helburu nagusia eta guri eragiten diguna da 2035ean hondakinaren gaikako bilketa %65 izatea; egun, %35 banatzen dugu". Araban 402 kilo zabor sortzen du biztanle bakoitzak urtean. Arabako errefusa Jundizko plantara doa, eta

handik %6 bakarrik birziklatzeko bidean jartzea lortzen da.

Azaldu zuen helburuak lortu eta errefusa murrizteko gakoak direla errefus edukiontzien kontrolik gabeko erabilera saihestea, bilketa maiztasuna murriztea eta organikoaren kudeaketa. "Argi daukagu. Organikoaren bilketa eta trata-

mendua indartu behar da eskala lokalean, eta hori etxeko nahiz auzo konpostajearen bidez egin behar dela uste dugu", azpimarratu zuen Jon Toñak. Organikoaren kudeaketaz herri bakoitza arduratuko da eta Aramaio Udal Gobernuak adierazi du euren apustua dela herrian sortutako organikoa herrian bertan geratzea, konposta egiteko guneak jarritz: "Non jarri eta nola egin oraindik ez dugu erabaki, baina asmoa hori da; pentsatu egin behar dugu nola kudeatu".

### Eskumen aldaketa

Duela gutxira arte, Kuadrilla mailan partzuergo bat osatuta zegoen hondakin kudeaketarako, baina bertako kide ofizialak ziren udalerrietako ordezkariak erakundea desegiteko erabaki politikoa hartu zuten.

Aramaio ez zen partzuergoko kide, baina elkartearen zabor biltzetaren zerbitzua erabiltzen zuen, urte amaieran likidazioa ordainduta.

Ingurumen teknikariak azaldu zuenez, hondakin kudeaketaren eskumena Kuadrillara igaro da eta ardura izango du hondakin kudeaketarako. Era berean, Aramaio Udalak eskumen osoa izango du: "Kuadrilla mailan ari gara gaia lantzen, estrategia definitzeko momentuan gaude eta ikusten dugu elkarrekin heldu beharreko erronka potoloak ditugula aurretik".

## HELBURU NAGUSIA DA 2035EAN HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA %65 IZATEA

## Arabako Bertsolari Txapelketako finalerdietan bost aramaioar

Lehen finalerdia Aramaio Udal Kultur etxean jokatu da hilaren 24an, 17:30ean; sarrerak Interneten eros daitezke

### I.A.A. ARAMAIO

Domekan Laudion jokatu zen final-laurdenean erabaki zen ze hamabi bertsolari izango diren finalerdietan. Horiestat bost dira aramaioarrak: Peru Abarrategi, Manex Agirre, Xabi Igoa, Aitor Ugarte eta Paula Amilburu. Danel Herrarte eta Martin Abarrategi kanpoan geratu dira.

Hilaren 24an jokatu da lehen finalurrekoa, Aramaio Udal Kultur etxean. 17:30ean hasiko da saioa eta bertan lehiatuko dira Peru Abarrategirekin eta Manex Agirrekin batera Ekaitz Sama-

niego, Eli Zaldua, Iñaki Viñaspre eta Unai Anda. Bigarren finalerdia, berriz, Dulantziko Kultur etxean izango da, martxoaren 2an. Xabi Igoaren, Aitor Ugarteren eta Paula Amilbururen txanda izango da Aroa Arrizubieta, Asier Otamendi eta Izar Mendigurenekin batera.

Sarrerak salgai daude [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean. Sarrera arruntak 10 euro balio du; Bertsozale elkarteko bazkideek 7 eurotan eskuratu dezakete sarrera; eta 6-18 bitarteko gazteek, doan.



IDOIA ARANBARRI ARZUAGA

## Filmak Aratuste-martitzenean

Martitzenean ospatu zituzten Aratusteak Aramaio Herri Eskolan, eta Aramaio Udal Zinemaldia egin zuten. Filmak izan da aurtengoan aukeratutako gaia, eta hainbat pelikulatako pertsonaiaz mozorrotuta irten ziren desfilean, eskolatik plazaraino. Herriko plazan dantzak egin zituzten eta eskolara itzultzean txokolatea dastatu zuten ikasleek.

## OHARRAK

### Jaietako inkesta

Aurtengo San Martin jaietako programa osatzeko iritzia eman dezakete herritarrek Udalaren webgunean dagoen inkestan.

### Ahoz Aho 2024

Ahokotasunaren Nazioarteko Jaialdiaren barruan, haurren emanaldia egingo du Birjiñe Albirak astelehenean, 17:00etan, Kultur etxean.

### Hitzaldia

Gorka Lopez de Muniainek *Los caminos del Románico Alavés* hitzaldia egingo du otsailaren 20an, 18:00etan, Kultur etxean, +55elkartegiak egitasmoaren barruan.

# Abian diren proiektuekin jarraitu eta berriei ekiteko aurrekontua onartu dute

Hamasei milioi euroko aurrekontua izango du Udalak 2024rako; inbertsio handienen artean daude Markoleko berdegunea, Andramariko proiektua eta komentu ingurua

**Mirari Altube** ARETXABALETA

2024ko udal aurrekontua onartu berri du Aretxabaleko udalbatzak, hilaren 14an hain zuzen ere, ezohiko osoko bilkura eginda. Aurrekontu horretan 14.952.920 euroko gastua aurreikusi dute, eta horiek finantzatzeko 12.741.587 euroko sarrerak espero dituzte; falta dena osatzeko 2.211.332 euroko mailegua txertatuko dute. "Dena dela, ez da mailegu horren beharrik aurreikusten, Udalak baduelako likidezia nahikoa horri aurre egiteko", azaldu du Gari Iturbe alkateak. Esandako gastu horiei, gainera, gehituko dizkiete iaztik datozen konpromisoei aurre egiteko beharrezko direnak; bereziki, komentuaren obraren bukaerari aurre egiteko. Hala, orotara, 16.322.119 euroko aurrekontua izango da 2024koa.

**Gobernuaren ildoak txertatuta**

Udal Gobernu berriak aurkeztutako lehenengoak izan dira. "Neurri batean, aurreko agintaldiko proiektuek baldintzatutakoak dira, hasitako proiektuak amaiera fasean sartuko direlako", adierazi du alkateak. Hala ere, proiektu estrategiko berriek ere izango dutela lekua gaineratu du, eta horiek zehazterakoan kontuan hartu dituzten ildoak aipatu ditu: "Berdintasuna, dibertsitatea, herrigintza, zaintza eta auzoen zentralizatetik eta irisgarritasunetik asko dute. Ikuspegi aldaketa bat ekarri nahi duten partidak txertatuko dira aurretik datozen beste batzuekin batera".

**Inbertsio garrantzitsuenak**

"Zaintza ekosistemaren erdigune" izango den komentuaren lanekin jarraitzeko 180.000 euro gehiago bideratu dituzte. Lan horiek 2023ko azarorako bukatuta egon behar bazuten, ere ez

da hala izan, eta data berria zehaztu dute: 2024ko martxoaren 31. Behin amaituta, eguneko arreta zerbitzuaren gunea eta komentuko taberna hornitzeko 85.000 euro zehaztu dituzte. Inguruko lorategia ere berriro egingo dute, eta horretarako 350.000 euro izango dira. Andramari auzoko urbanizatzeko lanak ere aurreko agintaldian aurreikusi zituzten, eta horietara 400.000 euro bideratu dituzte orain.

Kiroldegi aurreko berdegunearen proiektua da aurreko agintalditik datorren beste bat, eta han kirol eta aisialdi gune bat egokitzeko 450.000 euroko partida onartu dute.

Bestalde, Arkupeko klimatizazio eta berogailu sistemak berriro beharra dauka, eta 305.000 euro aurreikusi dituzte. "Azken urteetan izan dituen matxuren eta sistemaren zahartzearen ondorioz, berriro beharra du".

## ZAINTZAREN ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO APUSTUA EGIN GURA DU UDAL GOBERNUAK

**Jou Díaz**  
  
**Harakina**  
 Durana 15  
 Tel.: 943 79 71 69  
 20550 ARETXABALETA

Partida horretako 69.000 euro izango dira teiltuan eguzki-plakak jartzeko.

Eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak egiteko Arbizelai inguruan kokalekua izango duen ikastetxe berrirako lurrak erosteko 100.000 euro zehaztu dituzte, lehen ordainketa egiteko.

Udal Gobernuak, bestalde, garrantzi handia eman dio Aretxabaletan gune estali bat egokitzeari, eta horretarako 200.000 euroko inbertsioa aurreikusi du.

**Zaintza-ekosistema**

"Zaintza-sistema erdigunera ekartzeko bideari ekingo diogu", aditzera eman du Iturbek: "Hala, bakardadearen gaineko lanketa egingo da, eguneko arreta zerbitzua martxan jarri eta zainzaileak kontuan izango dituzten ekintzak bultzatuko dira". Adituen laguntzarekin garatu gura dute proiektua eta 32.000 euroko partida gehitu dute. Zaintza-lanetan dihardutenen beharrei erantzuteko formakuntza-saioak antolatu dituzte, eta horretarako 30.000 euroko partida bat sortu dute.

Zaintza, baina, herriko hainbat arlotara zabaldu gura dute:



Komentua izandako eraikina eta ingurua. MIRARI ALTUBE

"Nerabeen eta gazteen ongizate emozionala bultzatzeko helburuarekin, diagnosi bat egingo da, prebentzio mahaia bideratuta, nerabeen beharrak eta kezak aztertzeko". Horretarako, 21.000 euroko partida bat sortuko dute, eta egoera larrien aurrean laguntza psikologikoa bermatzeko 5.000 euro gorde dituzte. Era berean, Udalak dituen etxebizitzak txukuntzeko partida bat sortu dute, eta, hain zuzen ere, helburua da aurten "etxebizitza guztiak erabilgarri" edukitzea.

**Berdintasuna, "estrategikoa"**

Berdintasun Saileko partidek igoera izango dute, "apustu estrategikoa" delako Udal Gobernuarentzat. "Batetik, Berdintasun teknikariaren plaza ateratzea aurreikusi da, barne egiturari txertatzeko; eta, bestetik, partida berri batzuk sortuko dira". Horien artean daude honako hauek: Udalaren berdintasun barne plana, 5.300 eurorekin; LGTBI+ diagnosis, 6.000rekin; eta gune moreak, 3.000rekin. Berdintasun barne plan hori 2024ko lehen hilabeteetan egin gura dute.

**ASENSIO • KILIMA  
 HANKABELTZ • KILOKA  
 BELAR META • TAK  
 ALMILA SHOP**

**IXADEBALDE**  
*Aretxabaleko XXVI. merkealdien azoka*

**Otsailak 23  
 10:00 - 20:00**

**50 euroko 7 bonu**

**Plaza behealdean**

**ALDIZKARIA**  
 Aretxabaleko Udala

**Udala**  
 Aretxabaleko Udala

**Mobiliario  
 ARENAZA**

**ALTZARIAK  
 DISEINUA  
 APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
 ARETXABALETA



Aipatutakoez gain, berdintasuna bultzatzeko dagoen partida 4.000 eurora igo dute, baita kirolean berdintasuna sustatzeko kantitatea 3.000 eurora igo ere. "Kirolean emakumeen parte hartzea areagotzeko ekimenak antolatu gura dira, eta, horretarako, herriko eragileen arteko lankidetzaz bultzatuko da".

#### Auzoek diru gehiago

Bestalde, auzoak erdigunera eroan gura dituzte, eta horiei bideratutako diru kopuruak igoera izango du, bi partidaren bitartez: bideak konpontzeko 105.000 euro eta konponketa txikiak egiteko 40.000 euro. "Hori guztia auzo-alkateekin gabilta lantzen, haiek izan daitezkeen non inbertitu erabakiko dutenak".

Merkataritzari dagokionez, bonuetarako 36.5000 euro zehaztu dituzte: "Eta partida bat sortuko da beste bonu sistema bat garatzeko".

#### Oposizioaren ekarpenak

EAJ Udal Taldea abstenitu egin da bozketan, nahiz eta onartu duen "orokorrean bat datorrela aurrekontuarekin". Inbertsioe-

## Udal aurrekontuaren ezaugarriak

#### Udalak 2024rako onartutakoa.

- Udal aurrekontua: **16.322.119 euro.**
- Inbertsioak: **2.986.598 euro.**

#### Inbertsio aipagarrienak.

- **450.000 euro** Markoleko berdegunea.
- **400.000 euro** Andramari auzoa urbanizatzea.
- **350.000 euro** Komentuko lorategia.
- **180.000 euro** Komentuko lanak.
- **305.000 euro** Arkupeko klimatizazioa eta eguzki plakak.
- **200.000 euro** Gune estalia.
- **145.000 euro** Auzoetako bideak eta konponketak.
- **100.000 euro** Lurrak erostea institutuarendako.

#### Beste partida batzuk.

- **32.000 euro** Zaintzaren gaineko proiektua.
- **21.000 euro** Nerabeen gaineko diagnostia.
- **36.500 euro** Merkataritzako bonuak.

ITURRIA: ARETXABALETAKO UDALA

tarako onartutako partidekin "gustura" agertu da Mikel Uribebarria bozeramailea: "Aurreko agintalditik datozen proiektuak direlako, guretzat estrategikoak, eta jarraipena izango dutelako". Horien artean aipatu ditu komentuko eraikina eta

ingurunearen urbanizazioa, Iturrizar auzoko igogailua, Andramari auzuneko urbanizazioa, kiroldegi aurreko berdegunea, Arkupeko klimatizazioa eta lur erosketak institutuarendako.

Era berean, EAJk egindako hainbat ekarpen onartu egin ditu

Udal Gobernuak eta zenbait lan egiteko partidak sartu dituzte aurrekontuan: herriko garbitasunerako; autobus geltokien mantentze-lanetarako; eta zebra-bideetan argiztapenerako eta mantentzerako. Horiez gain, konpromisoa hartu du Gobernuak komentua eta Iturrizar plazaren arteko pasabidearen proiektua idazteko partida sartzea eta udal bideak konpontzeko dagoena handitzea, beharren arabera. Onartu ez dutenen artean dago Lausittako PEASaren proiektua idaztea: "Eta hori oso garrantzitsua zen guretzat".

Uribebarriak plangintza baten beharra azpimarratu du: "Faltan igarri dugu agintaldi honetako proiektu estrategikoak jasoko dituen plangintza bat; izan ere, garrantzitsua da jakitea lau urteko inbertsioak zeintzuk izango diren".

Alkateak erantzun dio badutela hori egiteko asmoa: "Guk geuk ere beharrezkotzat jotzen dugu, horrek zehaztuko duelako lau urteko ibilbidearen iparra. Elkarrean eta herritarren beharrik jaso ostean, ekainerako eginda izan gurako genuke".

## 'Ispiluak eta leihoak' erakusketa aurkeztuko dute gaur

Diego Burgos argazkilari gasteztarraren *Ispiluak eta leihoak* erakusketa dago Arkupen ikusgai joan den astea ezker. Argazki horien gaineko bisita gidatua egingo du gaur, egubakoitzan, 19:00etan, erakusketaren komisario eta argazki proiektuaren tutore Gustavo Bravok.

*Arabacllick* argazki jaialdiko *Jardín remoto* beka irabazi zuen 2022ko urrian Burgosek. Artistaren unibertso sortzailean barneratzen gaituzten erretratuek eta natura hilek osatzen dute erakusketa eta kaleetan harapatutako irudiak eta barne mundua erakusten ditu. "Ikusleak argazkilariak ikusten duena ikusiko du eta, aldi berean, argazkilaria bera bere argazkien bidez deskubrituko du", adierazi dute antolatzaileek.

Erakusketa otsailaren 29a arte egongo da ikusgai Arkupen; hona hemen ordutegia: astelehenean egubakoitzera, goizez (11:00-13:00) eta arratsaldean (18:00-20:00); eta zapatuetan, goizez bakarrik.



**Pausoka**  
haur eskola

**0-3**  
urte

## Etorri eta ezagutu!

Izen emate epea: otsailaren 7tik 23ra

Hitzordua hartzeko, deitu.

943 77 03 77  
pausoka.he@gmail.com  
www.pausoka.eu

 619 44 95 97

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

zeuria  
zeuena  
geuria





Golf klubak irabazi zuen mozorro lehiaketako lehen saria. IMANOL SORIANO



Drag queenak, hirugarren saria. I.S.

# Kaleak jendez lepo izan dira Aratuste egunetan

Udala "pozik" dago herritarren erantzunarekin, eta herri bazkarian "inoiz baino jende gehiago" batu dela azaldu du; eta Karnabalen Lagunak ere "gustura" daude, karrozetan aurreko aldietan baino haur gehiago" izan direla azpimarratuta

## Amaia Ramirez de Okariz

### Kortabarria ARETXABALETA

Ez da aparteko berezitasunik izan aurtengo Aratusteetan; ez, behintzat, egitarauari dagokionez, baina, aurreko urteetan bezalaxe, jendez lepo bete dira kaleak. "Balorazioa ona da, eta pozik gaude. Jende mordo bat zen kaleetan, eta giro ona izan zen nagusi", adierazi du Ibai Zangituk, Aretxabaletako Udaleko Kultura zinegotziak.

Txino dantza eta kuadrillen desfilea izan ziren eguerdiko izarrak, eta herri bazkariak izan ziren ondoren. Hain justu, Zangituk nabarmendu du "inoiz baino jende gehiago" bildu zela: seihun lagun batu ziren kirol-



Aratuste-martitzena ospatu zuten Aretxabaletako ikasleek. TXOMIN MADINA

degian eta 540 frontoian eginiko bazkari *golfo*-an.

Udala, ordea, ez da Aratustee-tako antolatzaile bakarra, buru-belarri lanean aritzen baitira Karnabalen Lagunak ere. "Elkartekoak ere gustura gaude.

Karrozak egiten, adibidez, aurreko aldietan baino jende gehiago batu da; batez ere, haurrak. Etorkizuna bermatuta dago", erantsi du Zangituk, Udaleko zinegotzia ez ezik, elkarteko kidea ere baita.

## Bi edukiontzi erre dituzte

Bi edukiontzi erre zituzten joan den domekan, otsailaren 11n, Markole auzoan. Ertzaintzaren esanetan, 23:30 inguruan jazo zen gertakaria, Ibarra futbol zelaiaren aurrealdean, eta, horren ondorioz, alboan aparkatuta zegoen auto batek ere su hartu zuela jakinarazi dute ertzainek. Hantxe izan ziren suhiltzaileak, eta ez zen zauriturik izan.



GOIENA

## Torturaren aurkako jardunaldiak egingo dituzte Urbaltzen

Torturaren aurkako jardunaldiak egingo dituzte Aretxabaletako Urbaltz elkartearen asteotan, hitzaldi bana antolatu baitute otsailaren 17rako eta 25erako. Hain zuzen, *Oso latza izan da* liburua aurkeztuko du Xabier Mendiguren Elizegi idazleak bihar, zapatua, 11:30ean, elkartean bertan; Joxe Arregiren tortura kasuaren kontakizun

literarioa egiten du. Amaitzeko, gainera, antolatzaileek jakinarazi dutenez, jan-edana egongo da bertaratzen direnentzat.

Datorren astean, berriz, hilaren 25ean, domekan, Nafarroako Torturatuen Sareko kideen hitzaldia izango da, euren esperientzien berri izateko, Urbaltz elkartearen arratsaldeko seietan. Orduan ere jan-edana egongo da ekintza bukatzean.

Hain justu, joan den martitzenean, hilaren 13an, izan zen Torturaren Aurkako Eguna.

## Dorleta Kortazar ipuin kontalariaren saioa izango da egunean

Loramendi kultur elkarteak antolatuta, Dorleta Kortazar ipuin kontalari eskoriatzarrak 5 eta 8 urte arteko umeentzako saioa egingo du hilaren 22an, egunean, Aretxabaletako udal txeko zaharrean, arratsaldeko bostetan; hain justu, *Egin Putz* ipuin-saioa aurkeztuko du. Elkartearren 30. urteurreneko ekintzetako bat da.

## 'Harira' saioan izango da Gari Iturbe alkatea otsailaren 23an

Gari Iturbe alkatea Goiena telebistaren *Harira* saioan izango da hilaren 23an (18:30, 20:30 eta 22:30). Herriko kontuen gaineko galderak erantzungo ditu. Herritarrek ere galderak egin ditzakete, hilaren 19ko 15:00ak baino lehen bidalita. Posta elektronikoz: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus); edo Whatsapp zein Telegram bidez: 688 69 00 07.

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

## GARI ITURBE

ARETXABALETAKO ALKATEA

### 'HARIRA'

OTSAILAREN 23AN, EGUBAKOITZA, 18:20, 20:20 ETA 22:20

### BIDALI ZUK ERE GALDERA:

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) ☎ 688 69 00 07  
EPEMUGA: OTSAILAK 12, ASTELEHENA



DESCARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.





Eskoriatzako alkate Edorta Zubizarreta Alegria, Goiena telebistako platoan, otsailaren 12an, astelehenean. IMANOL BELOKI

# "Geotermia proiektua birplanteatuz, inbertsio kostua murriztu dugu"

Aurreko agintalditik datozen proiektuak bideratzea eta aurrekontua onartzea izan dira, besteak beste, alkatearen hilabeteotako zeregin nagusiak. Herritarren ekarpenak jasotzeaz gain, musika eskolaren kokapenari irtenbidea ematea da erronketako bat

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Astelehenean izan zen Edorta Zubizarreta Eskoriatzako alkatea Goiena telebistako platoan. EH Bildu ordezkatzeko alkatetzan zazpi hilabete egin ostean egin duen balorazioa positiboa da, eta, aurreko agintalditik egiteko zeudenak mahai gainean jasotzeaz batera, esku artean proiektu berriak dituztela gaineratu du.

Ez da lehenengo aldia Zubizarretarena Eskoriatzako Udaleko jardunean: 1999tik 2003ra bitartean herriko alkatea izan zen, eta zinegotzi, aurretik, 1995etik 1999ra bitartean. Aurreko esperientziak lagundu arren, 20 urteren ostean gauzak aldatu egin direla dio, eta, batez ere, aldaketa teknologikoetara egokitu behar izan duela nabarmendu du. Bi hamar-kada hauetan eguneroko lanak egiteko modua aldatu egin dela dio, eta gaur egun herritarrak

geroz eta gehiago gerturatzen direla ere azpimarratu du.

## Aurrekontuak onartuta

Agintaldi honetako lehenengo erabakien artean, azpimarratzeko izan da 2024ko udal aurrekontua onartu dutela Eskoriatzako udalbatzako kideek. 6.101.465 euroko aurrekontua da, eta, izango dituzten sarrerak eta gastuak zeintzuk diren finkatuta, lizitazio berrien igoerak eragin dutela udal aurrekontuan azpimarratu du Edorta Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak: "Kale garbiketarena 51.000 euro

## GEOTERMIA PROIEKTUA KIROLDEGIAN ETA LUIS EZEIZAN EZARRIKO DUTE

gehiago, lorezaintzarena 36.000 euro gehiago eta etxez etxeko zerbitzuarenak 90.000 euro gehiago. Horiek gastuetan eragina izan dute, baina hiru kontratu edo zerbitzu horietara diru gehiago bideratu behar izan dugu; izan ere, kontratu horiek duela bost urte egindakoak ziren, eta lan-baldintzak hobetzeko beharra zegoen. Orain arte, hitzarmen estatala zuten, eta orain, berriz, hitzarmen propioa egin dugu, lehenengo aldiz".

Oposizioak ezeko botoa eman zion EH Bilduren Udal Gobernuak proposatutako aurrekontuari, "eskasak" direla adieraziz, eta "diru gutxi" bideratu dituztela inbertsioetara erantsiz. "Nik dakidanez, proposamen bakarra egin dute. Gainera, ez da batzorde baten egindakoa; udaletxean egindako ohiko sarrera baten bitartez egin dute. Alferrrikakoa

da dirutza handiko proiektuak sartzeko aurrekontuan, gero ez gauzatzeko...".

## Geotermia proiektua, aurrera

Aurrekontua iazkoa baino %23 txikiagoa da, eta horren arrazoia ere azaldu du Zubizarretak: "Iaz, geotermia ezartzeko proiektu handi bat ezarri zuten, 1.400.000 eurokoa. Horrek aurrekontu guztia baldintzatu du, eta diru hori aurtengo aurrekonturako ez da sartu, gerakinetik egingo dugulako. Gerakinetik 2.500.000 euro inguru ditugu, eta gero, Foru Funtsetik 200.000 euro gehiago izango ditugu sarreretan. Mailegurik, bestalde, ez dugu eskatuko".

Hasiera batean egindako planteamendurekin, bost udal eraikin hornitzea aurreikusten zen geotermiarekin: kiroldegia, Luis Ezeiza ikastetxea, frontoia, Haur Hezkuntzako eraikina eta Kullunka. Baina aldatu egingo dute planteamendua. "Dirulaguntzetatik jasotakoaz gain, Eskoriatzako Udalak egin beharreko inbertsioa 750.000 eurokoa izango litzateke. Hala, azterketa bat eskatu genuen, gaur egun dugun kontsumoari begira, eta zenbat aurreztuko genuen aurreikusitako. Lan hori amortizatzea 20-25 urtekoa izango zela ikusita, ez zela errentagarria izango ikusi genuen. Birplanteatu egin dugu proiektua, eta, dirulaguntza berekin, kiroldegia eta Luis Ezeiza ikastetxea hornitzea pentsatu dugu, hasiera batean. Udalarentzat 450.000 euroko inbertsioa izango litzateke. Hau da, 300.000 euro gutxiago bideratuko ditugu proiektu horretara. Gas gutxiago kontsumituko dugu proiektu horrekin, eta, 2030erako murrizketa batzuk eskatzen zaizkionez Udalari, beteko genuke murrizketa hori egitea".

## Gimnasio berriko lanak

Inbertsioei erreparaturaz, Manuel Muñoz kiroldegian hutsik dauden bi eremu libre baliatuko ditu Eskoriatzako Udalak gimnasio berria egiteko. Lanak martxan daude, eta hiru edo lau hilabete epean amaituko di-

## MUSIKA ESKOLA LEKUALDATZEKO ZAILTASUNEKIN, PROPOSAMENAK DITUZTE ESKU ARTEAN

tuzte. "1.300 bazkide ditu kiroldegia, eta gimnasioak sekulako erabilera du. Txiki geratu da, eta muskulazioko gelan ez da sartzen jendea. 200 metro karratu inguru gehiago izango ditugu orain, eta horrek leku arazoa kenduko du".

Kiroldegiaz gain, kirola egiteko lokalen falta ere badagoela herrian dio Zubizarretak: "Joseba Inurrategi frontoiaren erabilera ere handitzen joan da. Orain arte, eskupilotakoak eta arku tiro taldekoak izan dira. Orain, areto futboleko beste bi talde ere hasi dira, eskaerak ere handitzen ari dira, txapelketak ere antolatu dira...".

## Musika eskola, inbertsio handia

Lapurreta izan zuten musika eskolan abenduan, eta, orduko kalteez gain, musika eskolaren kokapen aldaketa herritarren eskaeretako bat da aspalditik. Erronka zaila dutela aurrean dio alkateak. "Bere garaian, musika eskola lekuz aldatzeko erabakia hartu zen; nire ustez, erabaki okerra izan zen. Badakigu musika eskolaren kokapena ez dela aproposa; soto batean dago, hezetasuna itzela da, eta hogeitau urte inguru daramatzate bertan. Leku zabalagoa beharko lukete, baina musika eskola lekualdatzeko proposatu ditugun bi eraikinetan sekulako inbertsioa egin beharko genuke, bietan. Proiektu bat dugu 800.000 euroko inbertsioa egin beharko genukeena, eta dirulaguntzak ezinbestekoak izan beharko lirateke proiektua aurrera eramateko".

## Elizateetako beharrak asez

Eskoriatzako Elizateen Elkarteak Udalean ez egon arren, haien ordezkariekin, auzo-alkateekin, batzen dira euren beharrak asezteko. "Dirulaguntzak landa-bideetara bideratzen dira, eta, lehendik zegoen argiteria publikoaren proiektuarekin jarraitzeaz gain, auzo-taxi proiektua ere martxan jarri nahi dute. Auzo eta elizateetako jendeari laguntzeko, herriko taxilariak prest egongo dira bidaiak egiteko."

## Elkarrizketa osoa, gaur

Goiatz Arana Goienako kazetariak Eskoriatzako alkateari egindako elkarrizketa osoa gaur, egubakoitza, izango da ikusgai, 18:20an, 20:20an eta 22:20an, Goiena telebistan.

# Egoiliarren zerbitzuan, autokontsumoan urratsa

Jose Arana zaharren egoitzaren alboan autokontsumorako eguzki-plakak jartzen ari dira egunotan. 100 eguzki-plaka jarriko dituzte, bi eremutan banatuta; bertatik jasotako energiarekin egoitzaren energia kontsumoaren %40 estaliko dute

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Jose Arana zaharren egoitzan 32 pertsona artatzeko tokia dago gaur egun, eta eguneko zentroan beste hamalau laguntzako tokia dago; beraz, bertan dauden egoiliarren ongizatea hobetzeko asmoz jarri dute martxan energia bertan produzitzeko eta autokontsumitzeko egitasmoa Jose Arana Patronatuko kideek.

"Halako zerbitzu batean, energia zenbat gastatu den, zenbat garestitu den... erreparatzen ezin gara aritu. Hala ere, kontuan hartu behar dugu karbono azarna delakoa, eta kontuan hartu dugu energiaren garestitzea dela, kontsumoan aurreztu beharra. Gure ekarpena egiten diogu askoz gutxiago kontaminatuz, eta gaur egun energiaren autokontsumitzeko ideien aldeko hautua egiten dugu proiektu honekin", adierazi du Aitor Zubizarretak, Jose Arana Patronatuko lehendakariak.

**100 plaka, bi gunetan banatuta** 552 metro karratutako eremuan 100 eguzki-plaka jarriko dituzte, guztira, bi eremutan banatuta. Batetik, Jose Arana zaharren egoitza alboan, baratzea egon zen zonan, 50 plaka inguru jartzen izan ziren astelehenean, eta garai batean



Jose Arana zaharren egoitzaren alboan eguzki-plakak jartzen. IMANOL BELOKI

igerilekua zegoen lekuan, aldagelen gainean jarriko dituzte gainontzekoak. "Lursaila badugu, eta Jose Arana Patronatuko kideek pentsatu genuen eguzkiaren energia aprobetxatuz eguzki-plaka batzuk jartzea eta autokontsumorako energia produzitzea. Azterketa egin ostean, bertan erabiltzen dugun energia guztia ezingo dugula estali badakigu, baina bada zerbait egingarria, eta aurrera egitea erabaki dugu. 100 plaka jarriko ditugu, guztira, eta urtean 50.000 watt produ-

zituko ditugu, zaharren egoitzan erabiltzen dugunaren %40 produzitzeko moduan".

## 60.000 euroko inbertsioa

Saltoki enpresak egin du proiektua, eta haiek arduratzen dira obra zibila eta obra teknikoak kudeatzeaz. Hala, aurrera begira, dirulaguntzak ere aurreikusiten dituztela azaldu du Zubizarretak. "Espero dugu Eusko Jaurlaritzatik, Energiaren Euskal Erakundetik, izango dugula dirulaguntzaren bat. Ez dago oraindik dirulaguntza hori ziur-

tatuta, baina egin dugun inbertsio hau hamabi urtean erreku-peratu daitekeela aurreikusit dugu, eta gero, beste 12-16 urte geratuko litzaizkiguke etekinak ateratzeko. Inbertsioa, BEZa kontuan hartu gabe, 60.000 euro ingurukoa izan da", adierazi du Zubizarretak.

## Energia komunitatea bidelagun

Egitasmo horrekin aurrera begira, urrats berriak egitea ere ez dute baztertzeko Jose Arana Patronatuko kideek. "Gerora begira, energia komunitateekin harremanetan jartzea ere bada asmoa. Eskoriatzarako plan orokorra egitea izango litzateke ideala. Hala ere, guk argi genuen berehala egin behar genuela eguzki-plakak instalazioa. Lehenbiziko urratsa energiaren kostuetan aurreztea izan da. Gero, gerokoak...", adierazi du Jose Arana Patronatuko lehendakariak.

Eguzki-plakak instalazioa jartzen egunotan amaituko dute, eta energia aurrezten berehala hasia da Jose Arana Patronatuaren asmoa.

## Patronatuaren egitura

Fundazioaren kudeatzailea da Jose Arana Patronatua. Hamai-kidek osatzen dute, eta horietatik zazpi ordezkari Eskoriatzako Udalak izendatzen ditu; beste kide bat, Elizak; beste bat langileek izendatzen dute; beste bat, egoiliarren familiek; eta beste bat, Olazar Erretiratuen Elkartekoek. Udalak izendatutako zazpi pertsona horiek izendatzeko, udal hauteskundeetan aurkeztu diren alderdi politikoek proposatutako kideetatik aukeratzen dituzte ordezkariak. Ez dago zertan zinegotzia izan.

## San Pedro jaiak antolatzen hasteko bilera hilaren 21ean

Datorren astean, otsailaren 21ean, eguaztena, 18:30ean, biler irekia egingo dute kultur etxeko lehenengo solairuko areto nagusian, San Pedro jailetako egitaraua prestatzen hasteko. Herriko jaietan orotariko programazioa antolatzeko, garaiz prestatzen hasia komeni da, eta honako hau izango da Eskoriatzako Udalak egingo duen lehenengo deialdia. Interesa duen edonork izango du batzar horretan eta aurrera begira egingo diren parte hartze-ko aukera. Hain zuzen ere, Eskoriatzako Udalak herritarrek animatu nahi ditu parte hartzera, eskoriatzar guztien gustuko jaiak prestatzeko.

## Atxorrotx Kultura Elkartean batzar orokorra hilaren 24an

Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek urteko batzar orokorra egingo dute otsailaren 24an, zapatua, 11:00etan, kultura etxean. Laburbilduz, elkartearen osasuna neurtzeko baliatuko dute hitzordua. Egindako ekin-tzak erreparatuko dituzte, prestatuta dituztenak jakinarazi eta hobetzekoak identifikatu, besteak beste. Bazkideei bidalitako jakinarazpenean azaldu dutenez, honako puntu hauek landuko dituzte: aurreko batzar orokorretako aktak onartuko dituzte; 2023ko ekitaldiko kontuak mahai gainean jarri; Inkernu tabernaren egoeraren berri eman; 2024ko kultura ekitaldien berri eman; eta galde-eskeak.

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

## EDORTA ZUBIZARRETA

ESKORIATZAKO ALKATEA

'HARIRA'

OTSAILAREN 16AN, EGUBAKOITZA,  
18:20, 20:20 ETA 22:20



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



# 'Nasteborraste' dantza aurkeztu diote herriari

Eduardo Gorosarri konpositore eskoriatzarraren 'Nasteborraste' piezarekin dantza bat sortu dute, eta Aratusteetako martitzen iluntzean aurkeztu zuten herritarren aurrean dantza taldeko kideek eta propio dantza horretarako animatu direnek

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Euskal Inauteriak sustatu nahi izan ditu Eskoriatzako Udalak aurtan Aratusteetako martitzen, eta horretarako egun osoko egitaraua prestatu zuten; egitarauan hitzordu berriak ezarri zituzten.

**Haurren dantzaldia kiroldegian** 10:00etan umeen kalejirarekin hasi zuten eguna, eta 11:00etan Luis Ezeiza eta Arizmendi ikastetxeetako haurren ekitaldia izan zen, kiroldegian. Urtero Joseba Inurrategi pilotalekuan egin izan dute jaialdia, baina aurtan kiroldegian egitea erabaki du Udalak. Horrekin batera, lehenengoz, bi ikastetxeetako haurrek nahastuta egin zituzten dantzak, jaialdira joan ziren etxekoan aurrean.

**Herri Inauterietako kalejira** Arratsaldean jarraitu zuen festa, kukumarroekin. 17:15ean irten ziren eta haurren atzetik aritu ziren korrika Fernando Eskoriatza plazaren bueltan, puxika eskuan zutela. Ondoren, herri Inauterietako kalejira hasi zuten, 18:15ean.

Egunerako prestatutako *Nasteborraste* dantza egin behar zuten dantzariak dantzan egin zuten Joseba Inurrategi fron-

toitik Fernando Eskoriatza plazarako bidea, eta lehen leerroan Eskoriatzako Ad Libitium txarangako kideak izan ziren, ibilbidea musikaz girotzen. Hartza eta Mielotxin ere han izan ziren.

**Balorazio positiboa** Fernando Eskoriatza plazara iristean, herri Inauterietako dantzak egin zituzten dantza taldeko kideek, eta, jarraian, Eduardo Gorosarri musikari eskoriatzarraren *Nasteborraste* piezan oinarritutako

dantzaren estreinaldia egin zuten 50 dantzari inguruk. "Antolakuntza pozik geratu da estreinaldiarekin. Jendetza batu zen plazan eta oso ondo irten zen. Horrekin batera, kalejira ere azpimarratzekoa da; oso ondo egon zen. Hala, euskal Inauteriak errotu nahi ditugu Aratuste-martitzenean, eta *Nasteborraste* dantza urtero egitea da asmoa", adierazi du Mari Karmen Arrietak, Eskoriatzako Udaleko Euskara teknikariak. Eguna borobiltzeko, erromeria izan zen, txistulariekin.



Fernando Eskoriatza plazan dantza berria estreinatu zuten unea. OIHANA ELORTZA

## 'Bote prontoan' antzerki musikatua izango da domekan

Haur eta familientzat, bereziki, zuzenduta, Maria Zubimendi musikariak eta Esti Curiel antzezleak *Bote prontoan* izeneko antzerki musikatua eskainiko dute domeka honetan, Zaldibar antzokian, 17:00etan.

Itsasoan inspiratutako testu eta musika sortu dute bi artista zumaiarrek, eta proposamen horrekin izango dira etzi Zaldi-

bar antzokiko agertoki gainean. Malena (Esti Curiel) izango da istorioaren protagonista, kostaldera iritsi berri den emakumea eta bertako ohitura eta kondairak entzunaz herria eta herriko jendea ezagutuko du. Kontakizuna musikaz girotzeko, berriz, Maria Zubimendik akordeoia joko du ikuskizunean zehar. Sarrerak hiru eurotan daude salgai, eta, interesa duenak aldeztu aurretik erosi ditzake Manuel Muñoz kiroldegian edo *bibe.me* webgunean.

## 'Mi relación con la comida' zikloa ixteko, azken hitzaldia

Lourdes Martinez eskoriatzarraren *Mi relación con la comida* hitzaldi-sortaren laugarren saioa eta azkena izango da domekan, 18:00etan, Ibarraundi museoan. Nor bere buruarekin duen harremana ardatz, pertsona bakoitzaren pentsamenduek nola eragiten duten bizitzako arlo guztietan izango dute berbagai, besteak beste.

# LEINTZ GATZAGA | 21



Sokatiran amaitu berri, proba irabazi zutenak ospatzen. IMANOL SORIANO

## Herri kirolak ardatz, Aratusteak herri-giro ederrean ospatuta

Herri kiroletako zenbait proba egin eta gero, bapo bazkaldu zuten 40 lagun inguruk Toki-Eder elkartearen

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA Herri kirolak izan dituzte Leintz Gatzagako Aratusteak ardatz, eta, besteak beste, trontzan eta harria jasotzen ibili ziren goizean zehar gatzagarrak. "Herri giroa eta euskal giroa sustatzeko asmoz ezarri genuen Aratusteetako aurtengo gaia herri kirolak izatea. Eta, hortik abiatuta, kirolari janzteaz gainera, euskal Inauterietako pertsonaia ezberdinez ere moztarotzua dira herri-asko", adierazi du Dorleta Elkorobarrutiak, Leintz Gatzagako alkateak.

### Giro onean, kirola oinarri

Petritegiko sagardoaz betetako kupela frontoiko arkupean jarrita, sagardotegian bertan egongo balira moduan, txotx egiten aritu ziren bertaratutakoak, eta, horrekin batera, askotariko kirol probak egin zituzten herri-tarrek: lokotxak, txingak... Bai-

ta, bi talde handitan banatuta, sokatira saio ederra ere. "Azkenaldian eta azken urteetan herrira bizitzera etorritakoak zein betidanik bertan bizi garenak elkartzu ginen. Batzuentzat berria izan zen Aratusteak Gatzagan ospatzea, eta denok disfrutatu genuen", azaldu du Ainhoa Barandiaranek, Gurel Guraso Elkartearen kidea.

Horrekin batera, pintxo lehia-keta ere egin zuten, eta irabazleak izan ziren Aiora Elkorobarrutiak eta Aiane Diez.

### Baba-jana, ederra

Bazkaltzeko, berriz, 40 lagun inguru batu ziren Toki Eder elkartearen, eta, hain zuzen ere, Ina Esnal gatzagarrak prestatutako baba-jana izan zuten. Ondoren, musikarekin girotu zuten arratsalde-pasa eta gaztetxoek karaokean aritzeko tarteak ere hartu zuten.



# Jabekuntza Eskola: bost tailer martxotik ekainera

Emakumeen ahalduz eragiteko asmoz, egitarau berria aurkeztu du Udalak. Bost tailer, 'Soilik bai da bai' legearen bueltako hitzaldi bat eta etxeko zaintzaileei eta haien kontratatzaileei zuzendutako aholkularitza zerbitzua jasotzen ditu udaberriko programak

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Emakumeendako Jabekuntza Eskolaren martxotik ekainera arteko egitarauaren berri eman du Udalak asteon. Jabekuntza Eskola era askotako emakumeentzako topaketa-gunea da, Udaletik zehaztu dutenez: "Praktika eta teoria feministetan murgilduko gara; konpartitu, hausnartu eta elkarrengandik ikasi; eta nork bere buruari eta elkarrengandik zaintzeari denbora eskainiko diogu. Era berean, gure artean sareak sortu eta espazio emozional, fisiko, sozial eta politiko berriak okupatu nahi ditugu. Parte hartzeri animatuko zara?".

Bost tailer, hitzaldi bat eta zerbitzu bat jasotzen ditu egitarauak; izena emateko aukera dago otsailaren 28ra arte, Udalaren webguneko inprimakia bete, inprimakia paperean bete eta BAZen entregatuta edo inprimakia paperean bete eta [berdintasuna@bergara.eus](mailto:berdintasuna@bergara.eus) helbidera eskaneatuta bidalita.



Musikaren eta ahalduz zehaztearen gaineko saioa Olatz Salvadorrekin, 2022ko urtarrilean. E.A.

## Zozketa, otsailaren 29an

Plaza kopurua mugatua denez, zozketa egingo dute izena eman duten emakumeen artean, eta lehentasuna izango dute Bergaran errolatutako emakumeek; zozketa otsailaren 29an egingo

dute. Gero, taldea sortu eta plaza liberrik geratzen bada, aukera egongo litzateke izen-emate berrietarako.

Lehen tailerraren izenburua da *Klimateriotik menopausiara: teoriatik gorputzera*: "Klimaterioaren munduan murgilduko gara: zer gertatzen zaigun gorputzean eta zergatik. Menopausia zer den ere definituko dugu, gako feministak erabilita. Teoriatik gorputzera abiatuko gara, gertatzen zaigunaren erantzunak bilatuz. Helburua da menopausia despatologizatzea". Zoru pelbikoko fisioterapeuta eta sexologian aditu Juncal Alzugarayk bideratuko du tailerra, martxoaren 14an eta 21ean, Irizar jauregian.

Bigarren tailerrari *Mindfulness feminista* deitu diote, eta aditu Clara Wolframek bideratuko du, martxoaren 11tik maiatzaren 13ra, Agorrosinen: "Mindfulnessa meditazio praktika bat da, gorputzarekin, emozioekin; gure buruarekin eta inguruarekin kontaktuan egoteko praktika bat. Oraina emakume gisa ahalik eta askeen eta ongien bizitzeko aukera batzuk landuko ditugu".

**Dantza eta elikadura**  
*Emakumeak mugimenduan* tailerra ere antolatu dute, dantza mugimenduetan terapeuta Oihana Vicenteren eskutik: "Dantzaren bidez gure barneko sortzaileak aterako dugu, denok garela-ko sorginak, denok sortzen dugulako, neurri batean edo bestean, eta sormena lantzeak autoestimua igo eta indarra ematen digulako erabakiak modu askean hartzeko. Saio horietan parte hartzeko ez da dantzan egiten jakin behar. Dantza eta

mugimendu inprobisatuaren bidez gure dantza eta mugimendu propioak sortuko ditugu". Martxoaren 16an eta 23an elkartuko dira, Agorrosinen.

*Elikadura kontzientea* izeneko saioak egongo dira apirilaren 13an eta 20an, gaian *coach*-a den Miriam Herbonekin: "Meditazio eta bistaratze-teknikak eta emozioak kudeatzeko beste tresna batzuk erabiliko ditugu, une bakoitzean behar dugun elikagaiak modu naturalean jabetzen ikasteko. Nork bere janaria ekarriko du eta elkarrekin jango dugu, ikasitakoa aplikatuz". Tailerrak amaitzeko, Emagin elkarteak gazteendako *Autodefentsa feminista* saioa gidatuko du apirilaren 20an, gaztelekuan.

## Hitzaldia eta zerbitzu berria

Bestalde, *Soilik bai da bai* legearen gaineko hitzaldia antolatu dute martxoaren 6rako, Irizar jauregian (18:00). Gainera, zaintza eta etxeko langileei eta haien kontratatzaileei zuzendutako lege-aholkularitza zerbitzua martxan dagoela gogoratu dute Udaletik, aldeztu aurretik txanda hartuta: 943-77 91 45 edo [berdintasuna@bergara.eus](mailto:berdintasuna@bergara.eus).

**IZENA EMAN DAITEKE HILAREN 28RA ARTE; ZOZKETA EGINGO DUTE GERO, PLAZAK MUGATUAK DIRELAKO**

## Zientzialariak diren emakumeei aitortza, lehiaketa bidez

Udalak eta Laboratorium museoak herriko ikastetxeetara begira sortutako emakume zientzialarien bideo lehiaketa antolatu dute aurten ere. Iazko "esperientzia aberasgarriaren" ostean, aurten ere antolatu dute Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako ikasleei zuzendutako emakume zientzialarien gaineko bideo lehiaketa. Helburua da emakume zientzialariei, iraganekoei eta gaur egungoei, "dagokien aitortza" eskaintzea. Udalaren arabera, aurten 26 ikasle animatu dira bideoak aurkeztera. Sari banaketa ekitaldia gaur egingo dute, hilak 16, Laboratorium museoan, 12:00etan.

## Enpresareren 2024ko plana

Enpresarek urteko batzar orokorra egin zuen Miguel Altunan, 2024ko plana aurkezteko; betiere, Bergarako enpresarien arteko harremana sendotzeko asmoz. 24 enpresa daude Enpresaren, eta 1.000 langiletik gora biltzen dituen sarea osatzen dute. Elkarteko kideez gain, batzarrean izan ziren Gipuzkoako diputatu nagusi Eider Mendoza eta Bergarako alkate Gorka Artola.



# Monzon-Ganuzza saria, Jose Mari Esparzari

Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren balioak oinarri hartuta bizitza osoan Euskal Herriari egindako ekarpena saritzen duen ekimenaren laugarren edizioan Jose Mari Esparzari egingo diote aitortza Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak, martxoaren 7an

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Jose Mari Esparza idazle eta editoreak (Tafalla, 1951) jasoko du Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak antolatzen duten Monzon-Ganuzza Euskal Utopikoei Saria.

## Laugarren omendua

Euskal Herriari, haren kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omentzea du helburu Monzon-Ganuzza sariak. 2021eko lehen edizioa Seaskako lehen irakasle Libe Goñiri eman zioten; 2022koa, Mari Karmen Aiastuiri eta Jose Luis Elkorori; eta izakoa, 2023koa, Xabier Amuriza bertsolariak jaso zuen.

Iruñeko salearren eskolan egin zituen ikasketak eta 17 urterekin hasi zen lanean, orduan Luzuriaga eta orain Fagor Ederlan deitzen zuten fabrikari. 20 urtez izan zen metalgintzako langile eta sindikalista, eta fabrikari erabili zuen lehen aldiz inprenta bat; han ikasi zuen panfletoak egiten, *Fusión obrera* aldizkari klandestinoan: "Esparza fabrikari lan egiten zuen editore militantea izan zen".

## Txalaparta argitaletxea sortu


1987an, eta Juanjo Marko lankidearekin batera, fabrikako lana uztea erabaki zuen eta Tafallan bertan argitaletxe euskaldun, aurrerakoi, profesional eta abertzale bat zabaltzea erabaki zuten; denborarekin, Tafallako euskal argitaletxea Euskal Herriko "argitaletxe historiko" bilakatuko zen. Editore izateaz gain, idazle emankorra izan da; gaur egun, haren 30. liburua izango dena "amaitzean" dauka.

Saria emateko ekitaldia martxoaren 7an egingo dute, Seminarixoa (18:30) eta Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak aurrerago jakinaraziko dute zein izango den saria bera egingo duen euskal artista.



Jose Mari Esparza. DANI BLANCO

## Saria Esparzari ematearen arrazoiak



**GORKA ARTOLA**  
BERGARAKO ALKATEA

### "Anbizio handiko pertsona da, utopikotik ere baduena"

"Jose Mari Esparzak bete-betean irudikatzen du sariketa hau abiatu genueneko funtsa, haren bizitza osoan Euskal Herriaren alde hainbat esparrutatik lan egin duen pertsona izan delako. Euskal Herria ulertuta ez Euskadi-zentrismotik, baizik eta zazpi probintziek batzen gaituen gure herri honetatik. Jose Mari oso ondo islatzen du urrundik gatzela eta urrutira heldu gaitzkeela; anbizio handikoa, utopikotik ere baduena. Hurrengo belaunaldiok kontuan hartu behar dugu Jose Mari moduko pertsonen ekarpena".



**IRATXE ESNAOLA**  
OLASO DORREA FUNDAZIOA

### "Ukaezina da bizitza osoan egin duen lan mardula"

"Guretzat garrantzitsua da Telesforo Monzonen eta Maria Josefa Ganuzaren balioak bere egiten dituzten herritarrak omentzea, Euskal Herriari dioten maitasunetik. Kasu honetan, Nafarroak bereziki Euskal Herriaren historian izan duen garrantzia eta batasunaren balio oso aintzat hartu ditugu erabakia hartzerakoan. Hori goitik behera betetzen duen saridun bat dugu aurten ere, bizitza osoa euskal herrigintzari eskaini dion Jose Mari Esparza. Ukaezina da haren 72 urteetan egin duen lan mardula".



NIRE USTEZ

EIDER NAJERA

## Ongi etorri?

2022ko martxoan Ukrainako 500 errefuxiatu ostatu hartu zuten Calaisen, Frantzia iparraldean. Natacha Bouchart alkateak ostatu bat bideratu zuen bertan babes har zezaten, Mantxako kanala zeharkatu bitartean. Orduan hartutako neurrien aurka ezer gutxi esateko baldin badut ere, onurak gutxiengo batentzat izan ziren. Bouchartek, Darmaninek eta Macronek beste jatorri batzuetako etorkinekiko dituzten politiken testigu izan naiz: 48 orduan behin, CRS polizia nazionalak etorkinei kanpin denda, mugikor, janari eta beste edozein ondasun kentzen dizkie, atzean utzitako familiarekin hitz egiteko eta bertako klima gupidagabea bizirauteko premiazoak dituztenak.

Europak kontzientziak aukeratutako migrazio *à l'europeenne* horretan ez da Imar, Suleiman, Abdul eta Fatimarik sartzen, eta beraientzat ez da pasabide segururik existitzen, ezta ostaturik ere. Krisi edo fluxu deitzen zaie, etorkinak kriminalizatzeko eta gizatasuna kentzeko kanpainan. Hau ez da iritzi bat, batzuetan ahaztu egiten zaigun errealitatea baizik: Europaren batasuna selektiboa da, eta bere politika arrazistak hilkorrak dira.

## Koldo Eleizalde: izena emateko aukera dago apirilaren 12ra arte

Koldo Eleizalde lehiaketa jarri du martxan aurten ere Udaleko Euskara Zerbitzuak, eta lau generotako lanak aurkezteko aukera izango dute parte-hartzaileek: ipuin idatzia eta poesia; bertsoa; komikiak; eta kontakizuna eta interpretazioa –antzerkia, podcasta, ipuin kontaketa, txisteak edo umorezko pasadizoak–. Bergarrek edo Bergaran

bizi, ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte, bakarka zein taldeka. Lanak aurkezteko epeari dagokionez, apirilaren 12a da azken eguna, eta bi eratara aurkeztu daitezke: grabazioak –entzunezkoak edo ikus-entzunezkoak– eta idatziriko lanak, Udalaren webgunean edo papelean entregatuta.

Udaleko Euskara batzordeak hautatuko du epaimahaia, eta saritutako lan guztiekin liburu bat argitaratuko dute, gero ikastetxeetan banatzeko.

## OHARRAK

### Begarako hitanoa lantzeko ikastaroa

Begarako hikan egiten ikasteko bi orduko hamar saio antolatu dituzte aurten ere udal euskaltegian, otsailaren 20tik martxoaren 21era. Gaur, hilak 16, itxiko dute izen-ematea: 943-7644 53 edo [euskaltegia@bergara.eus](mailto:euskaltegia@bergara.eus). Prezioa 15 euro da.

### Kukubaso elkartean hurrengo landaketa

Otsailaren 24an, bertako zuhaitzak landatuko dituzte Itsasmendin; Boluko ziburuetan elkartuko dira, 10:00etan. Izena eman behar da hilaren 21erako: [kukubasoelkartea@gmail.com](mailto:kukubasoelkartea@gmail.com).

### Begarako sinboloen gaineko hitzaldia

Jardunek, Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak antolatu dute. Patxi Olabarria, Ibai Sanz eta Dekolonizatu Bergara taldeko kide bat izango dira hizlariak; hilaren 27an, Olaso dorrean (19:00).

### 'Hona bostekoa' erakusketaren azken egunak

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoaren barruko Euskal Herriko komikien gaineko erakusketa domekara arte egongo da zabalik Aroztegi aretoan. Orduetgia: gaur, hilak 16, 18:00etatik 20:30era; bihar, hilak 17, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta etzi, hilak 18, 12:00etatik 14:00etara.

# "Gure diruarekin guk agindu beharko genuke"

RUBEN ROMERO 'ELIGE PILDORA' LIBURUAREN EGILEA

Emaztea bergararra eta lantokia Bergaran duen aretxabaletarrak liburua idatzi du: "Datu objektiboekin frogatu nahi dut bitcoinei egiten zaizkien erasoak oinarri gabekoak direla"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Otsailaren 21ean, *Elige pildora* liburua aurkeztuko du Ruben Romerok (Aretxabaleta, 1976) Irizar jauregian (18:30). 2020a ezker Bergaran bizi da, eta 20 bat urte daroatza haren dirua inflaziotik nola babestu bilatzen. Bitcoinen inguruan dihardu, herritar askorentzat arrotza den mundua "modu erraz eta argian" ulertarazten saiatzeko.

**Elige pildora izenburua jarri diozu liburuari; zergatik?**

Izenburua *Matrix* filmean dago oinarrituta, argi eta garbi. Bertan, Morfeok Neori Matrixetik irtetea eta mundua benetan den bezala ikustea –pilula gorria– edo bizitza artifiziala eta manipulatua bizitzen jarraitzea –pilula urdina– eskaintzen dio. Bitcoinak pilula gorria irudikatuko luke; eta Fiat diruak –euroak, dolarrak...–, urdina. Liburuak Fiat dirua bitcoinen aurka jartzen du. Gaur egungo diru-sistemaren gehiegikeriak eta gabeziak era-



Ruben Romero, hilaren 21ean aurkeztuko duen liburuarekin, Gorlara bidean. R.R.

kusten ditu, eta bitcoina nola diseinatu zen, hain zuzen ere, gabezia horiek konpontzeko. Datu objektiboekin, betiere, bitcoinen aurka egiten diren eraso gehienak indargabetzen ditut liburuan, erabat funtsik gabeak

direla eta interes ekonomikoek zuzentzen dituztela erakutsita. **Zer lortu nahi duzu liburuarekin?** Nire asmoa bitcoina modu argi eta errazean ulertzen laguntzea da, ikasten jarraitzea galaraziko dien teknizismo askorik gabe.

Gure egunerokoan euroak erabiltzen ditugu, baina inoiz ez diogu geure buruari galdetzen nork egiten dituen, zenbat euro dauden munduan, zertan oinarritzen diren diru gehiago edo gutxiago inprimatzeko eta abar. Ez da bitcoinen inguruan oso aditua izan behar erabiltzen hasteko; gertatzen dena da he-dabideetan ateratzen diren albisteen %99 negatiboak direla bitcoinen inguruan, eta horrek beldurra sortzen du. Nire azken helburua da jendea animatzea bere diruaren agintea har dezala; gure diruarekin guk agindu beharko genuke. Oro har, jendeak bere egunean zortzi orduz lan egiten du, hilabete amaiera iritsi zain kobratzeko, eta gero, atsedean hartzen du, haren lana amaitu dela pentsatuz. Hori akatsa da; atsedean hartu beharko genuke gure dirua non eta nola jarri ikasten dugunean.

**Ze gomendio emango zenioke bitcoinekin hasi nahi duenari?**

Ezer baino lehen, egoera ondo aztertu dezala. Irakur dezala, bila dezala informazioa eta iker dezala, bitcoina zer den ulertu arte. Gomendatzen dut ikastaroren bat hartzea eta merkatura sartzeko aukera baliatzea aditu baten eskutik. Eta, garrantzitsua, sare sozialetan nagusi diren ke-saltzaileetatik ihes egin dezala. Behin ondo informatu ondoren eta sartzearabakitzeko badu, epe laburrean behar ez duen diruarekin bakarrik egin dezala.

**Arriskua ala aukera dira?**

Egia da halako inbertsioek arriskuak dituztela. Hainbat arrisku-faktore daude; besteak beste, teknologia, aktibo digitalak eta aktibo horien plataformak ez ezagutzea. Edozein inbertsio motaren aurrean, errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko binomioa hartu behar dugu kontuan. Zenbat eta errentagarritasun handiagoa, orduan eta arrisku handiagoa. Beraz, bitcoinak errentagarritasun ikaragarriak eskaintzen baditu, horietan inbertitzeko arriskuak ere halakoak izango dira. Horregatik, bitcoinetan euro bakar bat sartu aurretik, sakon aztertu behar da. Epe luzera begira belaunaldien arteko aberastasuna sortzeko aukera handiak eskaintzen ditu bitcoinak; zenbat eta beranduago konturatu, orduan eta aukera gutxiago.

**Ze etorkizun ikusten diozu?**

Badirudi diru kopuru handiak sartuko direla merkatuan. Nire kalkuluen arabera, 2024 amaierarako edo 2025 hasierarako, bankuak inbertsio-funtsak eskaintzen hasiko zaizkigu bitcoinetan edota bitcoinei lotutako beste produktu batzuetan.

**"ALBISTEEN %99 NEGATIBOAK DIRA BITCOINEN INGURUAN, ETA BELDURRA SORTZEN DUTE"**



AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

## Amodiozko gutunik onenak

32. Amodiozko Gutunen Lehiaketako sari banaketa egin zuten eguaztenean Irizar jauregian, Jardunek antolatuta. 78 gutun eta 49 esaldi jaso dituzte, guztira, eta sei lan hautatu dituzte sariak banatzeko. Sara Aranbururentzat izan da lehen saria eta losune de Gofnik eskuratu du

bigarrena. Gazte sariari dagokionez, Aroa Elortza bergararrak eskuratu du, eta Eneka Mondragonentzat izan da bergarar onenarena. Parte hartzaile berriaren saria Saioa Etxegiagak irabazi du eta esaldirik onenarena, berriz, Ibon Segura eskoriatzarrak.

## Elikadura Mahaiak sukaldaritza ikastaro berezia antolatu du

San Joxepeko sukaldean izango dira saioak, martxoan zehar, Jesus Kalboetxeaga sukaldariaren gidaritzapean

**J.B.L. BERGARA**

*Elikadura burujabetzan kataiari helduz* jardunaldien barruan, Elikadura Mahaiak oinarrizko sukaldaritza ikastaroa antolatu du martxorako. Kontsumitzaileei elikagaien aprobetxamendua eta eguneroko ekonomia errazteko ikastaroa eskainiko zaie; hau da, eguneroko menu ekonomiko bat garatzeko estrategiak landuko dira Elgetako Maialde jatetxeko Jesus Kalboetxeaga sukaldariarekin. Ikastaroak bi helburu nagusi ditu: batetik, etxeko oinarrizko sukalde ku-

deaketa eta teknikak lantzea. Nola eskatu sasoiko elikagaiak eta prestaketa era ezberdinak –gisatu, frijitu, labea edota baporea, esaterako–; eta, bestetik, etxeko ekonomia antolatze gakoak emango dituzte: prezioak, denboraren aprobetxamendua...

Ikastaroa edozein herritarri begira antolatu dute, San Joxepe elkartearen egoitzako sukaldean. Martxoko astelehen eta eguazten guztietan izango dira saioak, 17:30etik 20:00etara. Izena emateko: [ehundu@ehundu.eus](mailto:ehundu@ehundu.eus). Prezioa da hamar euro.





Begarako Musika Eskolaren 40. urteurreneko ospakizunen berri emateko agerraldia, eguaztenean, Espoloian. JOKIN BEREZIARTUA

# 40 urte bete berri, badute zer eta norekin ospatu

Begarako Musika Eskolak "herriatik herriarentzat" ospatu nahi du 40. urteurrena, eta, horretarako, hainbat ekintza ari dira prestatzen. Ospakizun-ekitaldien artean nagusietako bat izango da ekainaren 1erako prestatzen ari diren egitarau berezia

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA 1983-1984ko ikasturtean ireki zituen atea Bergarako Musika Eskolak, bergararrak musikan hezteko egiteko nagusiarekin. Orain, 40 urte igarota, esan daiteke heziketa musikalaz harago joan dela Musika Eskolaren zeregina eta izaera; gaur egun, ez dago Bergaran ospakizun garrantzitsu bat ulertzerik Mu-

sika Eskolaren parte hartze barik. Badute zer ospatu, eta, adierazi dutenez, "herriatik herriarentzat" ospatu nahi dute.

**"Ezinbesteko" eragilea herrian** 40. urteurreneko ospakizunen bueltako ekintzen berri emateko, prentsa-agerraldia egin zuten eguaztenean Espoloian. Eskolako zuzendari Marije Ugaldek lau

hamarkada hauetan eskolak berrikuntzarako izan duen joera azpimarratu zuen, besteak beste: "Heziketa musikala ezinbesteko jarduna da gurean, baina eskola heziketaz harago joan da hasieratik. 40 urte hauetan kultura eragile eta ekintzaile moduan, herrigintzan ere, errotu da eskola gure herrian. Herriko jai, ospakizun eta ekitaldi kultura-

letan eskolaren presentzia ezinbestekoa da. Ikasleak batzuetan eta irakasleak besteetan. Horrez gain, prestakuntza eta berrikuntza izan dira ardatz gure jardueran, eta urteetan zehar espezialitate berriak eskaintzen joan gara: trikitia, panderoa, txalaparta, dultzaina, gitarra eta baxu elektrikoak... Eta instrumentuez gain, Udalak 2014ean egin zigun proposamenari erantzunez, euskal dantzak lantzen ere badarogu hamarkada bat. Hurrengo proiektua fanfarrea ezagutzera ematea izango da".

## Topaketak eta jaialdiak

40. urteurrenerako hamabost ekintza edo ekintza sorta aurreikusi dituzte. Esaterako, Debagoieneko piano jaialdia Bergarara ekarriko dute, Arrasate, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Soroluzeko 71 piano-jole elkartuta. Otsailaren 25ean 09:30ean hasiko da jaialdia, Seminarixoan; asteburu horretan beste piano topaketa batzuk ere egingo dira, besteak beste, Azkoitian, Legazpin, Durangon eta Astigarragan.

Eta aurten lehen aldiz, Debagoieneko hari instrumentuen topaketa egingo dute: "Halako topaketa bat antolatzen den lehen aldian izango da. Hasiere batean, Seminarixoan egitea genuen aurreikusita, baina ondo aztertu beharko dugu, musikari askok eman dutelako izena eta ez dakigulako Seminarixoan egiterik izango dugun". Gainera, flauta-joleen topaketa bat ere egin nahi dute apirilaren 13an, Mariaren Lagundiko elizan.

Bestalde, apirilaren 6rako Euskadiko Ikasleen Orkestraren (EIO) kontzertua antolatu dute, Santa Marina elizan. "Azken urteetan, gure ikasleen presentzia garrantzitsua izan da EIO".

## Erakusketa ere bai

Askotariko topaketa eta jaialdiez gain, erakusketa bat ere antolatuko dute. Eskolaren 40. urteetako historia argazkien eta bideoen bidez kontatu nahi dute, Bedelkar merkatarik elkarteari batera antolatuko duten erakusketa baten bidez: "Herriko komertzioei egin diegu gonbidapena, eta oso harrera ona izan du, herriko 58 komertzioek edo tabernak hartuko dute-eta parte". Erakusketa maiatzaren 27tik ekainaren 8ra izango da.

## Jai nagusia, ekainaren 1ean

Hala ere, urteurreneko ospakizun ekitaldi nagusia ekainaren 1erako ari dira prestatzen. "Jai berezi hori horrenbeste urtetan boluntario lanetan ibili direnak gogoratzeko baliatu nahi dugu. Argi dugu gure proiektua herriatik sortu zela eta herritar askorik zor diogula gaur egun dugun Musika Eskola. Haiek omendu nahi ditugu; 40 urtean zuzendaritza taldetik pasatu dira gutxienez 145 boluntario", dio Ugaldek.

Kalejirak egingo dituzte eta kontzertua Espoloian izango da, eta aurreratu dute hiru abesti interpretatuko dituztela Bandarekin, Orkestrarekin, Orfeoia-rekin, Aritzeta abesbatzarekin eta txistulariekin batera: *Euskal Herrian Euskaraz*, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Musika Eskolako Martxa* eta Idoia Asurmendik eskolako ikasleekin batera sortutako abestia.

**GAUR EGUN, 550 BAT IKASLE DITUZTE, ETA, DIOTENEZ, ESKAINTZA OSATZEN ARITU DIRA ETENGABE**

## Bidaia berezia Erdi Arora

Begarako Aratusteen bereizgarri den Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren kontzertua arrakastatsua izan zen, beste behin. Udal pilotalekua ia goraino bete zuten herritarrek gozatu ederra hartu zuten *Bixamona Erdi Aroan* ikuskizunarekin. Goiena telebistan kontzertua osorik ikusi ahalko da asteburuan, otsailaren 17an (22:00) eta 18an (17:00).



IMANOL SORIANO

## Herriko Amustei taldeak joko du gaur Seminarixoan (20:00)

Mikel Garate, Kepa Leturia, Iñigo Irizar, Joseba Aldanondo eta Iñigo Ibarzabal bergararrek osatzen dute Amustei, rock amerikarraren "itsaso zabalean" mugitzen den taldea; eskarmentu handiko musikariak dira gehienak. Kontzertua gaur izango da, Seminarixoan (20:00); sarreraren prezioa zortzi euro da, eta diskoa bertan izango dute salgai.

# "Aurretiazko borondatea lagungarria da gerora"

JESUS MILLAS MEDIKUA

Pertsona bakoitzak bizitzaren amaiera nolakoa nahi duen hausnartu beharraz aritu da Millas, Felix Garcia erizainarekin batera, Olanaren; gogoeta egitea gomendatu dute

**Amaia Ramirez de Okariz**  
**Kortabarria** ANTZUOLA

Landatxope jubilatuen elkarteak antolatuta, aurretiazko borondatei buruz aritu ziren atzo, hilak 15, Jesus Millas medikua eta Felix Garcia erizaina, Olanaren. Gai horren inguruan pentsatu eta hausnartu beharra dagoela uste dute, bizitzaren amaiera arindu dezaketelakoan; norberarena ez ezik, baita hiltzeaz den ingurukoena ere.

**Hausnarketa duzue solasaldiaren oinarrian; zertaz?**

Solaskideekin hausnartu dugu nola gustatuko litzaiekeen zainduak izatea beren bizitzaren amaieran, eta nahi horiek bete zeko modurik onenetako bat senideekin edota osasun profesionalekin hitz egitea dela; egokitzen joz gero, aurretiazko borondateen dokumentua osatu dezakete, erabakitze gaitasunik ez duten unean ingurukoek euren borondateak kontuan har ditzaten. Kanean nahasmena sortzen duten kontzeptuez ere hitz egin dugu, hala nola sedazioaz, nahi ez diren tratamenduen bazterketaz eta eutanasiaraz.

**Zertan laguntzen du hausnarketak?**

Jakinekkoa da gure gizartean ez dela ohikoa bizitzaren amaieraz eta jaso nahiko genituzkeen zaintzen inguruan pentsatzea; heriotza tabu bihurtu da. Hala ere, egoera horiei buruzko hausnarketa lagungarria izango da gerora gure orde erabaki behar duten senide eta osasun profesionalentzat.

**Zer izan beharko genuke kontuan horretaz pentsatzean?**

Gure gomendioa da aurretiazko borondateak egin aurretik gogoeta egitea, pertsonala zein ingurukoek lagundua, Osakidetza webgunean eskuragarri dagoen dokumentu bat erabiltzea: *Pentsatu, hausnartu*. Hori balagarria da bizitzari balioa eta balioari kalitatea zerk ematen dion pentsatzeko; baita ar-



Jesus Millas medikua, Osakidetza zentro batean. JESUS MILLAS

**"HERIOTZA DUINA' TERMINOA ENTZUTEN DUGU, BAINA HIL ARTEKO BIZIA IZAN BEHAR DA DUINA"**

**"AUTONOMIA ARIKETA BAT DA AURRETIAZKO BORONDATEA EGITEA, BIZITZA AMAIERARA ERAMANA"**

buiatu nahiko genituzkeen neurrien berri jasotzeko ere, nahi ez dugun bizitza bat luzatu dezaketelakoan. Izan ere, *heriotza duina* terminoa entzun ohi dugu, baina uste dut hil arteko bizitza izan behar duela duina, eta hori nolakoa nahi den soilik gutako bakoitzak esan dezakeela.

**Horrek zama arintzen al die ingurukoiei?**

Aurretiazko borondateak, bizitzaren azken momentuan, gure senideei, zaintzaileei eta osasun profesionalei erabakiak hartzen lagunduko diete, jada ez bagara

horretarako gai, esate baterako, erabakitze gaitasun mental nahikoa ez dugulako; aurrez erabaki genezake, adibidez, etxean hil nahi dugun edo ez, sedazioa gura dugun edo ez, hil ondoren zer egin gure gorputzarekin... Hori lagungarria izango da ingurukoentzat, horrelako erabakiak hartzeak eragin handia izan baitezake emozionalki familia batentzat.

**Hor dago, adibidez, eutanasiaren gaia...**

2021az geroztik gure herrialdean legezkoa da hiltzeko laguntza edo eutanasia eskatzea; legeak hala baloratuz gero, behintzat. Eskatzeko ezintasun egoeran bagoa, ordea, aplikatzeko aukera bakarria aurretiazko borondateak eginak izatea da, eta gure nahia hor esplizituki agertzea. Aurretiazko borondateak egitea autonomia ariketa bat dela uste dut, bizitzaren amaiera eramana.

**Jubilatuak antolatuta dute hitzaldia, baina nori zuzenduta dago?**

Gai honen inguruan interesa izan dezakeen edonori egiten diogu gonbidapena, osasuntsua edo gaixotasun batekin, zaharra edo gaztea.

**Arreta zerbitzua izango da adineko pertsonendako**

Eguneroko trebeziak lantzeko eta gizarte harremanak sustatzeko asmoz, 65 urtetik gorakoentzako arreta zerbitzua izango du Udalak, mendekotasun arina dutenentzat, izan dezaketenentzat edo bakardade egoeran egon daitezkeenentzat. Astelehen eta eguen goizetan izango dira saioak. Izen ematea: [gizartea@antzuola.eus](mailto:gizartea@antzuola.eus) edo 943-76 62 46.

**'Punkaren beste aldea' dokumentala gaur gaztetxean**

*Punkaren beste aldea* dokumentala izango da ikusgai gaur Antzuolako gaztetxean, 19:30ean. Jesusi Etxebarria musika irakasle ohi arrasatearrari buruzko lan bat da, Perlata musika taldeak ondutakoa. Etxebarriak herriko musika giroari egindako ekarpenen testigantzak jasotzen ditu ordu erdi irauten duen ikus-entzunezkoak.

**Armañoneko parke naturala ezagutuko dute hilaren 24an**

Arrola mendi elkarteak antolatuta, Armañonera (Bizkaia) egun-pasa egingo dute otsailaren 24an, zapatua, Euskal Herriko parke naturalak ezagutzeko proiektua dela eta. Hilaren 22a baino lehen eman behar da izena, ordea; hain justu, [labur.eus/arrolaarmanon](http://labur.eus/arrolaarmanon) helbidean. Autobusean joango dira, eta hamar euro ordaindu behar dira.

**Zabalik dago body balance ikastarorako izen-ematea**

Beste ikastaro bat izango da aurrerantzean Antzuolako udal gimnasioan, body balancea egiteko aukera eskainiko baitu E-goitek enpresak, Udalarekin batera. Egubakoitzetan izango da, arratsaldeko lauretan, baina aurrez izena eman behar da, udaletxean bertan, [udala@antzuola.eus](mailto:udala@antzuola.eus) helbidean edo Antzuolako Udalaren webgunean.

**Trumans eta Hankaz Gora taldeak izango dira bihar gaztetxean**

Antzuolako Gazte Asanbladak antolatuta, Trumans eta Hankaz Gora taldeen kontzertuak izango dira bihar, otsailak 17, gaztetxean, 22:00etan. Arrasateko eta Oñatiko hiru kidek osatzen dute Trumans, eta eurekin arituko da Olatz Ugarte bergararra ere; Arrasateko eta Aramaioko lau pertsonako taldea da, berriz, Hankaz Gora.

**'Azken galdera amari' ipuina aurkeztuko du Manex Beristainek**

Antzuolako udal liburutegiak antolatuta, *Azken galdera amari* ipuina aurkeztuko du hilaren 22an, eguenean, Manex Beristain egileak, 17:30ean, liburutegian. Bospasei urtetik gorako umeentzat eta haien gurasoentzako saioa da, eta heriotzaren –zein doluaren– gaia lantzen du, kasu erreal batetik abiatuta. Haurrak gurasoekin joan behar dira.

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

# Pare bat lur-zati daude libre baratze parkean

Elgetako baratze parkeak 50 metro karratuko hogeitun lur-zati ditu. Erabiltzaile gehienak hasieratik daude eta guneak erabilera ona izan du zabaldu zenetik, 2015eko ekainean. Interesatu berriek udaletxean egin behar dute eskaera

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Bost lur-zati zeuden hutsik eta otsailaren 6an abiatu zuen Udalak horiendako erabiltzaile berriak aurkitzeko kanpaina. "Hiru eskaera jaso ditugu dagoeneko; Elgetako eta Eibarko jendea da", azaldu du Ingurumen zinegotzi Miren Ibarbiak. "Argi dago: proiektuak interesa pizten du".

Ekainean beteko dira bederatzitzi urte baratze parkea zabaldu zela. Hasieratik kudeatzen dute lur-zati bana Miren Argi Zeziagak eta Alicia Garciak. "Lagun batekin hasi nintzen, bien artean arduratuko ginelakoan. Besteak laga egin du eta nik hemen jarraitzen dut. Niretzat deskubrimendu bat izan da: zerbait landatu, hazten ikusi, jaso eta gero jan. Oso polita da", dio Garciak. "Piperrak, lekak, kalabazinak, letxugak... erraz eta asko irteten dira. Dendan, dagoena hartu behar duzu. Hemen, zuk erabaki dezakezu zein unetan jaso; tamainaren edo samurtasunaren arabera...". Dena, ordea, ez da beti hain erraza. "Tomateak zailak dira; nork aterako dituen ikus-mina egoten da taldean", gehitu du Zeziagak.

Biek nabarmendu dute taldean dagoen laguntasun giroa: "Asko hasieratik gaude, eta konplizitate handia dago. Harreman berriak egiteko ere oso egokia da", dio Garciak. "Ertortzen naitzen, egia esan, oso gustura egoten naiz. Buruarentzat ere mesedegarria da", dio Zeziagak.

**Funtzionamendua**

Elkarte izaera du baratze parkeko komunitateak. Gaur egun, Javier Valle da presidentea eta Fernando Albeniz idazkaria. Urtean 100 euroko kuota ordaintzen dio erabiltzaile bakoitzak Udalarari lurraren erabilera-eragatik, eta elkarte-ordaintzeko beste 20 bat euro ipintzen dituzte. "Denon erabilerarako dauden erremintak

partekatzen ditugu, eta bakoitzak bere kutzatilatzea du txabolan. Zerbait apurtzen bada, ordekatu egiten da. Lurra lantzeko makina eta sasi-garbitzeko makina ere erosi genituen. Orduan, diru apur bat gehiago jarri genuten".

Ekologikoan ekoiztu behar da baratze parkean. "Batzuek asko dakite eta urte asko daramate hemen. Laguntzeko prest daude beti. Gainera, denak joaten gara, gutxi gorabehera, batera. Orain, esaterako, lekekin ari gara denak. Alde horretatik, ez dago batere arazorik. Nik asko ikasi dut ingurukoengandik", aitortu du Garciak.

Hutsik dagoen lur-zati bat nahi duenak udaletxean egin behar du eskaera. "Berehala jartzen dira gurekin harremanetan, eta hutsik dauden lur-zatien artean egokiena zein den azaltzen diogu interesatuari", dio Zeziagak.

**100 EUROKO KUOTA ORDAINZEN DIOTE URTEAN UDALARI; ELKARTEKO GASTUAK BESTE 20 EURO DIRA**



Alicia Garcia, Miren Argi Zeziaga eta Miren Ibarbia baratze parkean. L.Z.L.

"Gutxienez, urtebeteko konpromisoa eskatzen da", zehaztu du Garciak.

Hasieran, soilik elgetarrendako zen baratze parkea. Orain, zabalik dago kanpokoendako ere, eta elgetarrek lehentasuna dute. "Bada kanpoko jendea, eta oso ondo. Eibartarrak dira, gehienbat", diote Zeziagak eta Garciak.

**Nekazaritza iraunkorra**

Proiektuak garrantzi handia du Udalarentzat. "Sustatzen dira nekazaritza-praktika iraunkorrak, ingurumen-jasangarritasuna, herritarren partaidetza, eta horrekin batera bultzatzen dira tokiko elikagaien segurtasuna zein azpi-erabilitako espazioen biziberritzea", dio Miren Ibarbia zinegotziak. Herritarrek ingurumen-jardueretan parte hartzea eta hiri-nekazaritza zein iraunkortasuna sustatzea garrantzizkoak dira Udalarendako. "Lur-zatien okupazio-tasa handiak eta herritarren etengabeko interesak -jaso berri diren eskaeretan islatzen da- proiektuak komunitatearentzat duen arrakasta eta garrantzia erakusten dute", gehitu du.




GOIENA

## Dantzan egin dute mozorroek

Koloretsu bezain irudimentsu joan dira Aratusteak Elgetan. Eskolako umeen kalejiraren ostean, guraso elkartearen txokolate-janak eta Udalak antolatutako *Dantza saltsa* festak girotu zuten frontoia Aratuste-barikuan. Joan dira aurtengoak, eta elgetarrak Ferixa Nagusiko jaietan mozorrotuko dira hurrengo. Buruari eragiten hasita ei dago bat baino gehiago.

## GORA ETA BEHERA



## Euskaratu dute atzera ere seinalea



2023ko iraila ezker, *Elgeta* zioen Ipurua pareko seinaleak. Euskaraz zegoen aurretik, baina seinale berria jartzerakoan agertu zen *u* letra. Berriki egin dute zuzenketa.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## Mendi Mendia Racing jairako txartelak salgai daude

Mendi Mendia Racing taldeko pilotuek hilaren 24rako iragarri dute urteroko jaiak. Ibilgailuen erakusketa, mendi lasterketa Egoarbitzara, talde-argazkia, bazkaria eta kontzertuak antolatuko dituzte. Txartelak salgai daude Elgetako Lola jatetxean eta Bergarako Arrano tabernan. Prezioa 25 euro da; kontzertua bakarrik, 10 euro.

## OHARRAK

### Kontzertua gaur

Nokono donostiarraren saioa Bolatoki tabernan, 19:00etan. Sarrera doan da.

### Herri hezitzailea

Batzar irekia eguaztenean, hilak 21, 18:30ean, udaletxean.

### Ixotzen

Batzarra eguenean, hilak 22, 18:30ean, udaletxean. Uneko egoera eta bazkide kanpaina.



Herritarrak zomorroen gaineko erakusketa ikusten kultura etxeko beheko solairuko gelan. O.E.G.

## Zomorroen bueltako jardunaldiak datoz

Tamainaz txikiak izan arren ekosistemetako funtzioetan zeinen garrantzi handia duten ikus daiteke Natur Eskolak kultur etxean jarri duen erakusketan; hitzaldiak, irteerak, azokak eta landaketak ere egingo dituzte, baita liburu bat banatu ere

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Zomorroengan jarriko dute arreta Natur Eskolak antolatutako aurtengo Ingurumen Jardunaldietan. *Xomorroak. Animalia txikiak, ikuskizun handia* izeneko erakusketa jarri dute kultura etxean, eta datorren asteko hitzaldietan ere eurei buruz hitz egingo dute.

### Martxoaren 3ra arte

"Tamainaz dira txikiak zomorroak, baina handiak zentzu askotan. Handiak dira espezien kantitateari begiratuz gero, bakoitzaren kantitatea ere handia da eta, gainera, askotariko funtzioak dituzte ekosistemetan", azaldu du Aimar Uribealgok. Panelak, habitatak eta mikroskopioak daude erakusketa gelan, eta horien bitartez ezagut daitezke, esaterako: hankadunen eta ez-hankadunen artean egiten dela lehen sailkapena, uretan jαιο baina lehorrean ugaltu eta hiltzen direnak, zomorroen ugalketa, moluskuak, anelidoak, nolakoak

diren egiten dituzten ziztadak edo hozkadak... Hitzaldietako batean, esaterako, kobazuloan bizi direnen inguruan jardungo dute, eta horri lotutako irteera egingo dute Dortoka eta Iritegi kobazuloetara: "Handik irten gabe bizi diren zomorroen bila joango gara, troglobioak, eta badakigu aurkituko ditugula". Zuhaitz azoka eta landaketak ere egingo dituzte jardunaldien barruan, urtero moduan.

Bestalde, naturari buruzko informazio pilulak eta bitxikeriak jasotzen dituen *Arraio tximista* liburua kaleratu dute, Jabi Erosarbereren ilustrazioarekin, eta Natur Eskolarekin elkarlanean ari diren eragileen artean banatuko dute; Txokolateixan ere eskuratu ahal izango da, doan.

**22AN ETA 27AN BISITA GIDATUAK EGINGO DITUZTE ERAKUSKETAN, 18:00ETAN**

## Egitaraua

### HITZALDIAK

- **Intsektuen gainbehera.** Otsailak 20.
- **Troglobios: esos bichos de las cuevas.** Otsailak 21.
- **Los límites materiales de la transición energética y digital.** Martxoak 1.

### IRTEERA

- **Dordoka eta Iritegi kobetara.** Otsailak 24.

### AZOKAK ETA LANDAKETAK

- **Azoka.** Martxoak 2
- **Landaketak.** Martxoak 3 eta 10.

Oharra: Hitzaldiak kultura etxean dira, 19:00etan.

## Auzo-konpost guneetako ongarria banatuko dute laster

Sistemaren "onurak" ikusita, herritarrei dei egiten die Udalak auzo-konpost guneetan izena emateko

### O.E.G. OÑATI

Egun, 208 familia daude herriko zazpi auzo-konpost guneetan izena emanda –Zubibarri, Bidebarrieta, Errekalde, San Martin, San Lorentzo, Eltzia eta Ugarkalde–. Horietan, guztira, 2,7 tona konpost jasotzen da urtean, eta, sistemak dituen "onurak" ikusita, Udalak dei egiten die herritarrei gune horietan izena emateko. Eskuorriak banatzen dihardu egunotan, eta bideo bat argitaratu du.



Elorza eta Oñate eskuorriekin.

### Martxoan banaketa

Konpost prozesu osoa egiten da guneetan, hezurak txikitzeraino. "Eginez ikasi da, eta ikasiz egin da; betiere, herriko guneen eta erabiltzaileen beharrak eta sistemaren arrakasta bilatuz, prozesua bera herrira egokituz", azaldu du Ingurumen zinegotziak, Iker Oñatek.

Auzo-konpost guneak erabiltzen dituzten familiek %25eko hobaria izango dute zaborraren tasan, eta lehentasuna sistematik lorturiko ongarria jasotzen. Hain zuzen ere, martxoan egingo dute hurrengo banaketa; urtean birritan egitea da Udalaren asmoa.

## Lehen Hezkuntzara egokituko dituzte emozioen saioak

POZ zerbitzuaren bidez nerabeen arlo fisikoa eta emozionala Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan lantzen da egun, eta orain, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetara ere egokituko dute, irakasleek proposatuta. Nerabeen emozioak nola kudeatu lagunduko duen tailerra hiru ikastetxei eskainiko zaie hurrengo ikasturtean.

## Domeka goizean egingo dute Arranoaitzera irteera

Domekan, otsailak 17, ospatuko dute aurtengo Arrano Eguna. Aurreko urteetan moduan, 09:00etan Santa Marinan elkartu eta handik Arranoaitzera oinez joanda hasiko dute eguna. Gora heldutakoan, ekitaldia egingo dute tontorrean, eta, ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte. Ibilgailuak Koroson uztea gomendatu dute antolatzaileek.

## OHARRAK

### Odol ateratzea gaur

Gaur, egubakoitza, da otsaileko odol emate eguna. Aurrez hartu behar da ordua odola emateko, goizean deituta: 943-00 78 84.

### Ia mila euro txokolate solidarioan

Ia mila euro batu zituen Oñatiko parrokiako misio taldeak Aratuste-martitzeneko txokolate banaketan. 926 euro izango dira Ginean ari diren Oñati eskolarako.

### Depresioa eta begirada feminista

Depresioaz eta bere errekupeazioa *Begirada soziokultural eta feminista bat* izeneko hitzaldia egingo du Maria Zapatak eguaztenean, 18:00etan, kultura etxean.

# Emakume mojen izaera erakustea da helburua

'Oñatiko mojen izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik' izeneko ikerketa-lana izen bereko liburuan kaleratu dute astean, eta horri lotutako argazki erakusketa dagoeneko zabalik dago Santa Ana antzokiko sarreran

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

50 bat emakume moja daude Oñatin egun, eta haien izaera erakutsi gura izan dute *Oñatiko emakume mojen izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik* izeneko ikerketa-lanean Itsaso Manias Muñozek eta Jone Arrazola Maiztegik. Taldeka egindako elkarrizketak izan dira oinarri. "Gutxiespen sentsazioa barneratuta zuten, baina ez digute inoiz ezezkorik eman. Konfiantza-harreman bat sortu da geure artean; erakusketan dauden irudi horiek horren ondorio ere badira. Haien bizimodua ilustratu gura izan dugu este-reotipoak apurtzeko", azaldu du



Santa Ana antzokiko sarreran dago ikusgai argazki erakusketa. AMAIA TXINTXURRETA

Maniasek. Aitane Landa Goñiren argazkiak dira erakusketakoak. Erretratuak dira batzuk, haien espazioak ere ikusten dira, eta dituzten eguneroko zereginetan agertzen dira beste argazki batzuetan; taldean irakurtzen eta josten, esaterako.

**Liburua eta erakusketa**

Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egin dioten ekarpena ikertzea da Oñatiko Udalak bultzatzen duen Selma Huxley Barkham bekaren helburua. Hirugarren deialdian, herrian dauden hiru mojen komunitateen inguruan egin dute ikerketa bi egile oñatiarrek. Astelehenean aurkeztu zuten ikerketaren ingurukoak jasotzen dituen liburua, eta lana egin bitartean ateratako argazki erakusketa zabalik dago Santa Ana antzokiko sarreran. Han eta Txokolateixan eros daiteke ikerketaren izen bera duen liburua. Erakusketa hilaren 25era arte egongo da zabalik, arratsaldeetan aste barruan -16:30etik 19:30era-, goiz eta arratsalde zapatuetan eta goizean domeketan -11:00etatik 13:00etara-.

## Zaintzako ziurtagiria lortzen laguntzeko ikastaroa egongo da

Ettxeko zaintza sektorean profesionaltasun ziurtagiria lortzen lagunduko duen formakuntza ikastaroa egongo da martxotik aurrera. "Ziurtagiri ofiziala bera azterketa baten bitartez lortu beharko dute zaintza lanetan ari direnek. Ikastaro horrek lagundu egiten die azterketa hori prestatzen", azaldu du ikastaroa emango duen Ana Fernandezek.

Martxoaren 2an hasiko dira prestakuntza saio hori eskaintzen, Zubillagako Olaburu zentroan, eta 22 zapatutan egongo dute, 15:30etik 19:30era. "Aste barruan egiteko ariketak ere izango dituzte ikasleek. Zapatuetako saioetan horiek zuzenduko ditugu eta landutako egoerak geure artean eztabaidatuko ditugu".

Bihar, zapatua, aurkezpen-saioa egongo dute, informazioa zuzenean emateko, Olaburun, 15:30ean, baina azalpen gehiago eskatzeko edo izena emateko Fernandezekin jar daiteke harremanetan: 94 479 51 70 edo [afernandez@grupossi](mailto:afernandez@grupossi).



**Urgain**  
HERRI ESKOLA

Guztiona,  
guztion artean!

Ondorengo bi asteetan eskola bisitatzeko aukera izango duzue.

Hitzordua eskatzeko 3 aukera daude:

- 1 QR kodea
- 2 [zuzendaritza@urgainerrekalde.eus](mailto:zuzendaritza@urgainerrekalde.eus)
- 3 943 89 91 34



# Irakurtzea eta idaztea gustarazi guran dabilta

Gaztetxoan artean euskaraz irakurtzeko eta idazteko afizioa pizteko helburua duen tailerra ari dira egiten Oñatiko liburutegian; LEINN graduako hiru gaztek diseinatu duten programa da Ikusmin, eta dagoeneko egin dituzte bi saio

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Gaztetxoan artean euskarazko irakurketa eta idazketa sustatzea helburu duen tailer bat diseinatu dute LEINN graduako hiru gaztek, eta Oñatiko liburutegiarekin ari dira proiektu hori gauzaten. DBH-1eko eta DBH-2ko ikasleen artean, hamaseik eman dute izena, eta astelehen arratsaldeetan elkartzen dira, kultura etxeko lehen solairuan, tailerrean parte hartzeko.

## Ikusmin proiektua

Jolasak eta askotariko erronkak erabiliz ari dira lantzen, esaterako, ipuingintza. "Euskaraz irakurtzea eta idaztea ez dela eskolan edo gelan egiten den zerbait erakutsi nahi diegu gazteei, baizik eta aisialdian ere jolasen bitartez ikasi daiteken zerbait dela", dio Maria Murgiondorekin eta Maria Ramirezekin batera Ikusmin proiektua sortu duen Uxue Iruretagoiena ekintzaileak.

Lau saioko proiektua da eta otsaileko lau astelehen arratsalde erabiliko dituzte gauzatzeko. Bakoitza ipuinaren fase ezberdinetan oinarritzen da: ikerketa, hasiera, korapiloa eta amaiera. Askotariko jolasen eta ariketen bitartez, tailerraren amaierarako taldekako ipuin



Joan den astelehen arratsaldeko saioan. O.E.G.

## LAU SAIOKO EKIMENA DA ETA DBH-1 ETA DBH-2 MAILETAKO HAMASEI IKASLEK EMAN DUTE IZENA

bat sortzea dute helburu. "Ipuin lehiaketen metodo tradizionalak erabili ordez, saiatzen gara dinamika sortzaileak erabiltzen. Taldeka daude banatuta eta taldean erabakitzen dute zeri buruz idatzi, ikerketa nola egin,

kanpora irten eta jendeari galdetu... Motibazioa behar dute gazteek, eta saioak erakargarri egiten saiatzen gara asterik aste".

## Idazle bat ere izango da

Lehen bi saioak egin dituzte, eta ekintzaileak zein gazteak, denak daude gustura tailerrak duen dinamikarekin. Hiruna orduko beste bi saio gelditzen zaizkie, hurrengo bi astelehentan egingo dituztenak. Hilaren 19kora, gainera, idazle bat joango da eta harekin elkarlanean ibiliko dira denak.

## Dantza doinuak entzungo dira Bandaren domekako saioan

Zubikoako frontoian izango da, 13:00etan, eta tangoak, erritmo latinoak zein euskal dantzak joko dituzte

## O.E.G. OÑATI

Dantza erritmoak dituen emanaldia egingo du Musika Bandak domekan. Tangoak, pasodobleak eta erritmo latinoak egongo dira entzungai, besteak beste. Zubikoako kiroldegiko pilotalekuan izango da kontzertua, 13:00etan, Aitor Biain Bidartek zuzenduta.

Denboraldiko hirugarren kontzertua izango da domekako, eta, zuzendariak adierazi duenez, "hezurrak mugitzeko kontzertu aproposa izango da". Estilo askotariko dantzak entzungo dira: tangoak, pasodobleak, erritmo

latinoak zein euskal dantzak. Adibidez, *Danzas guerreras* eta *Mambo* dira entzungo diren piezetako batzuk.

Domekako kontzertua ere doan izango da, baina aurretik hartu behar dira txartelak; Txokolateixan daude eskuragai. Emanaldia baino lehenago, 11:00etan, kalejira egingo dute musikariek.

Dantza doinuak entzungo diren domekako emanaldi hori, bestalde, Bandarekin joko duen lehen kontzertua izango da Sara Urzelai saxo-jotzailearendako; Gazteen Bandatik igotzen da.

## Habi, Ziraun eta Sara Zozaya gaztetxean aste bukaeran

Hiru kontzertu iragarri ditu Burrunda Faktoriak asteburu honetarako: Habi eta Ziraun taldeek joko dute zapatuan, 19:00etan, eta ordu berean, domekan, Sara Zozayaren emanaldia hasiko da.

Yerai Gascon eta Jon Ander Artola billabonatarrek jarri zuten abian Habi taldea. Rock estilotik etorritako musika egi-


ten dute, biko formatuan. 2019an atera zuten lehendabiziko diskoa, eta, harrezkero, urtean lan bat atera dute; azkena, 2023an, *Ohartu* izenekoa. Ziraun taldea, berriz, rock iluna eta melodia itsaskorrek gustatzen zaizkion taldea, berriagoa da Habi baino. Gernikan sortua, 2022an kaleratu zuen lehen diskoa, *Rocka*. Lauko taldea osatuta etorriko da, berriz, "gogotsu", Sara Zozaya. Gaurko *Puntua* aldizkariak dakar hari egindako elkarriketa.



OÑATIKO UDALA


## Estalkia bizikleten aparkalekuak

Azkoagain futbol zelaiaren ondoan dagoen bizikletak aparkatzeko gunean aterpe bat jarri dute, eta euritik babesteko moduan utzi ahal izango dira hainbat bizikleta aurrerantzean. Herriko beste zenbait lekutan jarrita dauden moduko estalkia da. Udala brigadako langileek egin dituzte lanak: oinarria jartzea eta estalkia bera kolokatzeta.



### NORA MURGUZUR

"Ipuinak egiten ari gara ikasten tailer horretan, jolasen bitartez; ipuinek dituzten estiloak eman dizkigute aukeran, guk geuk hautatzeko".



### IRATI ARZUAGA

"Jolas batzuk egin ditugu hasieran, eta liburu bat idazten hasi gara gero; tailerra bukatutakoan, agian, jarraituko dut idazten".



### MAIALEN MENDIZABAL

"Ipuin bateko pertsonaiek nolakoak izan behar duten eta nola deskribatu ditzakegun ikasten ibili gara, adibidez; gustura nabil".

"Aupa!

Lortu dot azkenien!

Oin, Debagoienien

nun erosi neike

auto bat?"



DESKARGATU  
Play Store-n

DESKARGATU  
APP Store-n

**goienaOkmgida**

Debagoiengan baldin badago,  
hemen dago.



Goiena  
Okm Gidaren  
eskaintza osoa.



lazko lasterketako irabazle Mayi Mujika, helmugara bidean azken metroetan, ikusleak agurtzen. IMANOL SORIANO

# Hamaikagarrena egingo dute bihar, azkena izan daitekeela jakin gabe

**MENDI LASTERKETAK** Zapatuan, 10:30ean hasita, Antzuolako 8 Miliak lasterketak 280 korrikalari batuko ditu helduen kategorian. Antolatzaileek ez dute garbi lasterketak ze etorkizun izango duen, Irimon egin nahi duten parkeak eragina izan dezakeelako

## X. Urtzelai ANTZUOLA

Zapatuan jokatu dute Deba-goieneko mendi lasterketen artean lehenengoa dena, Antzuolako 8 Miliak lasterketa. Eta iaz garaipena lortzeko borrokan protagonista izan ziren zenbait lasterkari izango dira bihar (10:30) Antzuolako plazako irteera puntuan. "Lasterketa nagusian pena da Ibai Larrea, azken urteetako irabazlea, ezin-go dela lasterketan egon, beste konpromiso batzuk dituelako, baina, hala ere, maila handia egongo da. Gizonezkoetan, Iñigo Alzola eta Aitor Zunzunegi irteera puntuan egongo dira, eta nik uste dut lehia ona izango dutela", adierazi du antolaketa taldeko Julian Ramirez de Okarizek. Emakumezkoen dagokien, iazko irabazle Mayi Mujika txapela defendatzaera etorriko da. Berez, Mujikak

kontrario gogor bat izan behar zuten, Malen Osa; izan ere, Salomon etxeko korrikalaria izena emanda dago, baina oñatiarrak GOIENARI aste barruan baieztatu dio azken orduko molestia batzuk tarteko atseden hartuko duela, badaezpada.

Puntako korrikalariak bezain garrantzitsuak dira, baina, herri mailako gainontzeko atletak, eta, guztira, 280 lagun batuko dira helduen lasterketan. "Aurten ere dortsalak segituan agortu dira; urtetik urtera geroz eta azkarrago saltzen ditugu. Datorren urtean ez dakigu jendeak iratzargailua jarrita egon beharko duen-edo, baina hori seinale ona da, gauzak ondo egiten ari garen seinale. Alde horretatik, oso gustura gaude". Hala, helduen lasterketarekin batera gazteena ere egingo dute, eta hor beste 35 lagunek eman

dute izena; haiek 10:25ean abiatuko dira eta ibilbide laburragoa izango dute.

## Ibilbidea txukuntzen

Lasterketak urteroko ibilbidea izango du -14 kilometro eta 736 metroko desnibel positiboa-. Hori bai, antolaketa taldeko lagunak tarte batzuk txukuntzen ibili dira. "Ez dago nobedaderik. Badugu jaitsiera zati baten, ba,

## "EZINBESTEKOA DA LANTALDE SENDOA IZATEA; BOLUNTARIO ASKO IZANGO DITUGU LASTERKETAN"



**GORKA ETXEZARRETA**  
A8M-KO ANTOLAKETA TALDEKO KIDEA

tira... Ogeiturri inguruan arbolak-eta ateratzen ibili dira, eta bidea hondatu samar gelditu da. Ibili dira txukuntzen hondatzeko makinarekin, eta nik uste dut horrekin eta azken asteetako ukituekin ondo gelditu dela". Hori bai, aurten ibilbidean zehar ez dute urdaiazpikorik gordeko. "Iaz, hamargarren urteurrenaren bueltan jarri genuen urdaiazpikoa, baina aurten ez dugu halakorik egingo. Hori bai, ibilbidean sorpresaren bat edo beste jarriko dugu gordeta, eta korrikalariak adi egotera animatzen ditugu", dio Ramirez de Okarizek.

## Lantalde sendoarekin

Antolatzaileek ia dena dute gertu, Gorka Etxezarretak aitortu duenez. "Azkenengo ukituak falta zaizkigu, ibilbidea markatu eta sariak prestatu, baina gainontzekoa eginda dago. Urte dezente goaz honekin eta egin beharrekoak kontrolpean ditugu". Halakoetan, baina, ezinbestekoa da lantalde sendoa izatea.

## "IRIMON JARRI NAHI DUTEN PARKEAK ERAGINA IZANGO DU LASTERKETAREN ETORKIZUNEAN"



**JULIAN RAMIREZ DE OKARIZ**  
A8M-KO ANTOLAKETA TALDEKO KIDEA

"Eta hor bi gauza nabarmenduko nituzke: batetik, uste dut inoiz baino boluntario gehiago aurkeztu direla, eta hori ondo etorri zaigu, bi lasterketa egonda beti eskatzen dugulako gehiago; eta, bestetik, enpresa laguntzaileen dirulaguntzak aurten ere inoiz baino handiagoak izan dira. Horrenbestez, horiei guztiei eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen, lasterketa hau antolatzeko ezinbestekoak direlako".

## Aurrera begira, zalantzak

Iazko urteurren borobilaren ondoren, biharkoa hamaikagarren edizioa izango da, baina antolatzaileek ez dute garbi lasterketak berak ze etorkizun izango duen. Izan ere, Irimon jarri nahi duten parkeak eragina izango duela uste dute. "Orain dela urtebete inguru hasi ginen entzuten Irimo inguruan parke eoliko bat egitekoak zirela, eta aurreko abenduaren 15ean aurkeztu zuten zentral eoliko bat egiteko proiektua, bi haize-sorgailuak kokatzeko beharrezkoak diren plataformek txikizio handia eragingo dutelako. Bada, herrian badago talde bat proiektu horren kontra lanean dabilena, eta A8M-ko antolatzaileen babes osoa dute".



# Ruiz de Azua, Carrascal eta Calbano, Ourensera

**ATLETISMOA** Pista estaliko Espainiako Txapelketak jokatu dituzte asteburuan Ourense, eta Debagoieneko hiru atleta lehiatu dira han. Iaz pertika-saltoan urrea jantzi zuen Maialen Axpe ez da hitzorduan egongo; aire zabalera begira dago jada

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE

Gauean dago Espainiako txapelketa absolutua. Zapatuan, Malen Ruiz de Azua (pertika-salto, 17:50) eta Eneko Carrascal (salto hirukoitza, 17:45) lehiatu dira; eta domekan izango da Bergarako Andoni Calbanoren txanda (200 metroko lasterketa, 11:20). Eta ez dira lehiatzerak mugatuko; izan ere, protagonistak izan daitezke, euren modalitateetan domina eskuratzeko faboritoen multzoan daude eta hirurak.

Hutsune nabarmenetako bat, berriz, Maialen Axperena izango da. Azken urteotan Bedoñakoa izan da Espainiakoan urrea jantzi duena, baina Axpe ez da Ourense egongo. Neguko denboraldia ez du nahi modukoa egin, eta dagoeneko aire libreko denboraldira begira jarrita dago.

**Ruiz de Azua faborito**

Pertika-saltorako Malen Ruiz de Azua da faborito nagusia.



Malen Ruiz de Azua, iaz, pista estaliko txapelketan. SERGIO MATEO

Arrasatekoak 4,40ko marka egin zuen joan den astean Antequeran, eta GOIENARI aitortu dio horrek konfiantza eman diola; izan ere, neguko denboraldia ohi baino beranduago hasi zuen. "Iaz, lesio batek dezente baldintzatu zidan

urtea, eta udako atsedendialdiaren ondoren ez nuen denboraldi berria arrapaladan prestatu nahi. Urrian hasi nuen denboraldiaurrea, eta egia da hilabeteko atzerapen hori igarri egin dudala; oraindik 2-3 aste geratzen

zaizkit nire onenean egoteko. Pertikarekin *feeling* hori falta zait, baina Antequerako markak lasaitu egin nau, eta txapelketa ona egin dezakedala uste dut", dio arrasatearrak. Oraingoz, hura da 2024an marka onena egin duen atleta, baina lehia polita izango du Ana Carraskorekin (4,32) eta Andrea San Joserekin (4,30). Gainera, txapelketa ondoren ez du geratzeko asmorik: "Beste urte batzuetan, aire librea hasi aurretik geldialdia egin izan dugu, baina aurten ez. Asmoa da prestakuntzarekin jarraitzea eta maiatzean izango ditugun txapelketa garrantzitsuetara ondo iristea".

**Ezustea emateko gertu**

Bestetik, Eneko Carrascal eta Andoni Calbano ere dominen borrokan ibil daitezke. Carrascal iaz min hartuta egon zen, baina joan den astean Antequeran 15,87ko marka egin zuen -urteko onena-. Hala, salto hirukoitzean Jordan Diazek ez du kontrariorik izaten, baina kubatarra ez da txapelketan egongo, eta arrasatearra Pablo Torrijosekin, Ramon Adaliarekin eta konpainiarekin lehiatuko da.

Andoni Calbanok, berriz, urtarilaren 28an Donostian egingako proban erlojua 21.21en geratu zuen, eta marka oso ona da, jakinda Daniel Rodriguez (21,08) eta Adria Alfonso (21.10) gertu egon daitezkeela.

## Domekarako errebantxa gogoz daude arrasatearrak

**ESKUBALOIA** Derbia

jokatuko dute mahoneroen kontra, 10:00etan hasita

**X.U.** ARRASATE

Gipuzkoako txapelketan lehiatzen dabiltzan Mugarri Ingouk eta Soraluze BKEk bigarren itzuliko derbia jokatu dute domekan Iturripen (10:00), eta arrasatearrak joanekoan jasotako 27-22koari buelta eman nahi diote. Nahiz eta joan den astean Leizaranen galdu (23-18), arrasatearrak badabilta lehenengo itzulian izandako akatsak zuzentzen, eta Herreroren taldea behetik gora doa. Zortzigarren postuan daude, 14 punturekin.

Soraluce BKEk, berriz, lehenengo itzulia hobeto hasi zuen, eta izan dituzte gorabehera batzuk ondoren. Baina joan den astean Elgoibarren irabazi egin zuten (17-23), eta asteburuan ere etxetik kanpora jokatzeko egokitzaren zaie. Hain zuzen, mahoneroak bosgarren postuan daude, 18 punturekin, eta sailkapeneko lau puntuko errenta handitzeko asmoz kantxaratuko dira.



## Realaren eta Mallorcaren arteko Errege Kopako partidarako sarrerak!

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Mallorca Errege Kopako partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.

Partida otsailaren 27an, martitzena, 21:30ean izango da.

Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 22a.



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena<sup>™</sup>  
kide

Okm:  
batzen gaituen  
distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



# "Asko motibatzen nau liburua euskaratzeak"

**JOANNES JAUREGI** ITZULTZAILEA ETA LITERATUR KRITIKARIA

Jon Fosse idazle norvegiarraren 'Trilogia' eleberria euskaratu beharko du Joannes Jauregi itzultzaileak, Jokin Zaitegi sariketa irabazi ostean.

**Miren Arregi Amasorrain** ARRASATE

Joannes Jauregi (Astigarraga, 1994) literatur kritikari eta itzultzaileak aurkezturiko proiektuak irabazi du Jokin Zaitegi itzulpen-lehiaketa. Jauregik Suediako Akademiak Nobel saridun izendaturiko Jon Fosse idazle norvegiarraren *Trilogia* eleberria euskaratu beharko du. 2024ko Durangoko Azokan aurkeztuko du Elkar argitaletxeak.

**Pozik sariarekin?**

Liburua oso polita da, eta ilusioa egin zidan. Zalantza apur bat baneukan, ez nintzen oso seguru aurkeztu, baina asko motibatzen nau liburua itzultzeak.

**Aurrez ibilia zara lehiaketetan?**

Itzultzaile Elkarteak duen Literatura Unibertsala lehiaketara aurkeztu izan naiz, bai, baina Jokin Zaitegin aurkeztu naizen lehen aldia izan da.

**Trilogia norvegieraz idatzita dago; zuk zein hizkuntzatik egingo duzu euskarazkoa?**

Zubi-hizkuntzak erabiliko ditut, ez baitakit norvegieraz. Lehiaketaren oinarrietan bazuten aurreikusia ez zela norvegieratik euskarara itzulpenak egiteko gai izango zen itzultzaile askorik egongo, eta zubi-hizkuntzak erabiltzeko aukera eman zuten. Nik ingelesa eta gaztelania erabiliko ditut.



Joannes Jauregi itzultzailea. EREIN

**"ITZULTZEA BERRIDAZTEA DA, AHALIK ETA GERTUEN ETA BEHAR BEZAIN URRUTIEN"**

**Nolakoa izaten da prozesua? Teknologia erabiltzen duzu?**

Bi hizkuntzatan idatzita dagoena begiratzen dut eta euskarara itzultzen dut. Ez dut itzultzaile neuronalik eta horrelakorik erabiltzen; literatura itzultzeko ez

zait iruditzen horiek erabiltzen direnik. Egia da zubi-hizkuntzak erabilia, agian, norvegierazkoa kontsultatzeko erabiliko dudala, baina, hasiera batean, ez.

**Bi hizkuntza erabiltzeak lagunduko dizu itzulpen fidelagoa egiten?**

Kasu honetan, jatorrizko hizkuntza ez jakinda, bi hizkuntza erabiltzeak fidagarritasun handiagoa ematen du.

**Beldurrik ematen du beste itzultzaile baten testuak izatea oinarri?**

Azkenean, beste itzultzaile baten erabakiak daude hor atzean. Ni itzultzen ari naiz beste bi itzul-

tzailek idatzitakoa, baina fidatu egin behar duzu. Eta, beste alde batetik, egia da gaur egun asko baloratzen dela jatorrizko hizkuntzatik itzultzea, baina, benetan, zubi-hizkuntzak erabiltzearena oso normala da eta denbora guztian egiten da. Oraintxe bertan atera da Literatura Unibertsalean *Arrabioen Gerra*, Karol Capek txekiarraren liburua, eta Koro Navarrok itzulia, eta ingelesko eta frantseseko bertsoak erabili ditu. Zubi-hizkuntzek ahalbidetzen dute euskarara hainbat liburu itzultzea; bestela, ezingo genuke.

**Nolakoa da Trilogia? Gustura ari zara?**

Liburu bakoitzak ditu bere ezaugarriak, eta aurrera egiten duzun heinean hartzen diozu tamaina estiloari, idazteko moduari...

*Trilogia*-k oso idazkera partikularra du. Esaldi motzak dira, oso era jarraian idatzita, ematen du bakarriketa bat dela, paragrafoak bereizi gabe... Horretara ere ohi behar duzu pixka bat, eta hasierako orrietan, ba, agian, kosta egiten da idazlearengan hurbiltzea, baina aurrera egin ahala hartzen diozu tamaina.

**Erosoa egingo zaizu?**

Itzultzailearen lana da edozein idazleren idazkerara moldatu eta imitatzen saiatzea, ez zurea inposatzea. Itzultzaile gisa moldatu egin behar duzu. Berridazketa bat da, hizkuntza batean dagoena zurrera botatzea. Ahalik eta gertuen, baina behar bezain urrutien. Itzultzea asko gustatzen zait.

**Itzulpengintza nola dago?**

Itzulpen literarioaren panorama orokorra analizatzeko gauza ez naiz, baina esan dezakedana da azken urteetan, behintzat, asko itzuli dela eta oso literatura itzuli ona dela; itzultzaile bikainak ditugu. Orain dela gutxi, *Moby Dick* atera zen, sekulako itzulpen batean.

## Señora Bertso Eguna bihar, lehenengoz, Soraluzen

"Bertso munduaren bueltako genero disidente guztientzat" antolatu dute egitaraua

**M.A** ARRASATE

Soraluzen egingo dute bihar, zapatua, Señora Bertso Eguna. "Azken urteetako Señora Sari- ketaren arrakasta ikusita, sariketaz gain, lehiara bideratuta egongo ez den ekimena antolatzeari pentsatu dugu", azaldu dute antolakuntzatik. Egundik hori "bertso munduaren bueltako genero disidente ororentzat ospakizun eguna" izatea gura dute. Horretarako, goizetik gauera arteko egitaraua prestatu dute. Eguerdiko hamabietan bertso-potearekin ekingo diote egunari, eta, ondoren, bazkaria egingo dute kiroldegian. Bazkalostean bertso-sortak entzuteko aukera egongo da eta 17:30ean egingo dute bertso-saioa. Amaitutakoan, Elektropottote elektrotxaranga-ekin poteoa egingo dute. Bukatzeko, 22:00etan, kontzertuak egingo dira Soraluzeko gaztetxean, Eire eta DJ Txillardegiren eskutik. Bazkarirako txartelak eskuragarri daude [bertsotxartelak.eus](http://bertsotxartelak.eus) atarian. Erreserbatu egin behar dira, eta egunean bertan 15 euro ordaindu. Bazkarira ez doazenek arratsaldeko bertso saioa bost euro ordaindu beharko dute; kontzertuak, borondatezko ekarpenaren truke izango dira.

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

**ARATUSTE  
KONTZERTUA:  
'BIXAMONA  
ERDI AROAN'**

OTSAILAREN 17AN, ZAPATUA, 22:00ETAN  
OTSAILAREN 18AN, DOMEGA, 17:00ETAN



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.





Ganbara Abesbatzako kideak Gaztelu-Urrutiarekin eta Callejarekin. A.B

# Ganbara Abesbatza beste soinu banda baten

2024an estreinatuko den Galder Gaztelu-Urrutiaren 'Rich Flu' filmaren soinu-bandari ahotsa ipini dio Ganbara Abesbatzak. Bigarren, Arantzazu Calleja konpositorearen aginduetara jarri da horretarako; hirugarren proiektu bat ere badute esku artean

**Miren Arregi Amasorrain** OÑATI Galder Gaztelu-Urrutiaren *Rich Flu* filmeko soinu-bandan parte hartu du Ganbara Abesbatzak, Arantzazu Callejak sortutako hamar piezari ahotsa ipiniaz. Filma 2024an estreinatuko da, eta jende aberatsari soilik eragiten dion birus batez diharduen thriller distopiko eta postapokalipitiko da. Soinu-bandaren grabaketak 2023ko azaroan eta abenduan egin zituzten, Elkar estudioetan, eta bai Ganbararendako eta baita soinu-bandaren konpositore Arantzazu Callejarendako ere esperientzia "oso polita" izan zen. Ez da Ganbara Abesbatzak Callejarekin lan egiten duen lehen aldia; izan ere, Paul Urkijoren *Irati* filmeko soinu-bandan ere egin zuten lan elkarrekin. "Galderrek eta biok *Rich Flu* filmak konponketa korala beharko

zuela ikusi genuenean, berehala pentsatu nuen Ganbara Abesbatzan eta Aitor Biainengan. *Iratin* elkarrekin lan egin genuen eta emaitza ikusgarria izan zen.", dio Arantzazu Callejak, soinu-bandaren sortzaileak. "*Irati*ko soinu-banda oso txalotua izan zen eta Ganbara Abesbatzak egindako ekarpena oso garrantzitsua izan zen arrakasta hartan. Oso abesbatza profesionala da, inplikazio handikoa, proposamenak egiten dituen dena ahalik eta ondoen gera dadin. Azken finean, zinemako soinu-banden konpositore gisa, oso atsegina eta lasaigarria da horrelako talde batekin lan egitea", gehitu du.

## Esperientzia berria

Aitor Biainendako eta Ganbara Abesbatzarendako soinu-bandena esploratu bako eremua

izan da orain arte, baina oso pozik eta eskertuta daude aukera sortu zaielako. "Bai *Irati*-koa eta baita azken hau ere esperientzia interesgarriak izan dira guretzat. Zinemari ahotsa jartzea berezia da: bi aste lehenago jasotzen dugu materiala eta kasu batzuetan gebazio egunean bertan eta zeri ahotsa ipintzen ari garen ez dakigu. Badauka halako magia berezi bat", dio Ganbarako zuzendari Aitor Biainek. Gainera, bi musikariek azaldu dutenez, euren artean sortu zen elkarlana oso interesgarria izan zen. "Laborategi bilakatzen da, esperientzia desberdina da; Galder Perez bera ere grabaketan izan zen, eta bai Galderrek eta baita Arantzazuk eskatzen zuten horri ondo erantzutea oso polita izan zen", aitortu du Biainek.

# Ttanttakaren 'Esnearen kolorekoa' bihar Seminarixoa

Mireia Gabilondo eta Jon Olivares aktore bergararrak igoko dira oholtzara Ttanttaka Teatroaren antzezlanean

## M.A. BERGARA

Ttanttaka Teatroak *Esnearen kolorekoa* antzezlan taularatu du bihar, zapatua, Bergarako Seminarixoa, 20:00etan. Nell Leyshonen liburuaren antzerkirako adaptazioa da Ttanttakaren

azkena, Fernando Bernuesek zuzendutakoa eta antzezleen artean bi bergarar dituen. Mireia Gabilondo eta Jon Olivares. Joseba Apaolaza, Miren Arrieta, Aitziber Garmendia eta Jose Ramon Soroz aktore ezagunek osatzen dute

aktore-zerrenda. Ez da Olivaresek eta Gabilondok elkarrekin lan egiten duten lehen aldia, *Altsasu* telesailean ama-semeen paperean aritu baitziren.

Antzezlanak, 1830eko landa giroko Ingalaterrara garamatza. Familiarekin baserri batean bizi den Mary izeneko neska gazte bat da protagonista. Esnearen koloreko ilea du eta herrena da, baina haren nekazari bizitzatik ihes egitea lortuko du, bikarioaren emaztearen neskame gisa lan egitera bidaliko dute eta.

## Goienakideen txokoa

### OTSAILEKO SARIAK

#### Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora

ERRIGORA



#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ  
GRATIAKO DA

#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harnemendenda.org  
Bidezko Merkataritzako produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"soinuen izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzelekin artean egingo da zozketa. Inbentzio deguz (30) 15/1000 legezko arazoa, jeneratzen dugun sare digitalaren bidez Goiena komunikazio labur baten bitartez ezarritako bitartekari bidez. Batez beste haren bitartekari baten bidez inbentzio deguz (30) 15/1000 legezko arazoa. Erabiltzailearen datuak ez dira onartzen, baina zozketaren bitartekari bidez onartzen dira. Gainera, zozketaren bitartekari bidez onartzen dira. Gainera, zozketaren bitartekari bidez onartzen dira. Gainera, zozketaren bitartekari bidez onartzen dira.

## Realaren eta Mallorcaren arteko Errege Kopako partidarako sarrerak!



### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Mallorca Errege Kopako partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuzen eta zuzenarekin beste lagun batek: Real Arena futbol zelaiako tokirik onenetik.

Partida otsailaren 27an, martitzena, 21:30ean izango da.

Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 22a.



## Irabazi bi lagunendako otordua

### MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 20



GOIENAKIDE Jabetza  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

**Etxebizita erosiko nuke Bergaran.** Etxea erosiko nuke Bergaran. 3 logela eta igogailua izateko gustatuko litzaidake. Matxiategi, Cristobrero eta Ernai kale inguruetan. Telefonoa: 673 35 95 98

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasaten etxebizitza errentan hartu.** Arrasaten etxebizitza errentan hartuko genuke. Umerik gabeko bikotea gara. Lan finkoa daukagu. Telefonoa: 680 87 38 66

**Oñati etxea hartuko nuke errentan.** Bi pertsonarendako bi logeladun etxea hartuko genuke errentan. Euskaldunak gara, oso arduratsuak, langileak eta lan kontratuekin. 630 63 18 39

**Pisu bila Arrasaten.** Alokairuan hartzeko 3 logela dituen pisu bila nabil Arrasaten. Lan kontratu finkoa dut eta pertsona oso arduratsua naiz. 633 05 22 60

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Debagoiena.** Emakume pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu 643 50 56 62 telefono zenbakira.

## 402. ESKAERAK

**Arrasate eta Oñati.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Nagusiak zaintzeko gertu. Soziosanitario titulua dut. Deitu 632 86 23 69 telefonora.

**Arrasate, Berga eta Oñati.** Emakume pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Astean zehar zein asteburuetan orduka lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Telefonoa: 695 12 06 79

**Arrasate.** Astean zehar, asteburuetan eta gauean orduka lan egingo nuke. Garbiketa lanak egingo nituzke, baita nagusiak zaindu eta konpainia egin ere. Soziosanitario titulua dut. 634 94 30 78

**Debagoiena.** Persona nagusiak zaintzen, gabiketa lanetan edota sukaldari lanetan jarduteko prest nago. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 602 87 65 07

**Debagoiena.** Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke, orduka, pertsona nagusien zaintza eta garbiketa lanetan. Legezko agiriak eta soziosanitario ikasketak ditut. 666 16 95 62

**Debagoiena.** Emakumezkoa nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua daukat. Interesa duenak deitu dezala zenbaki honetara. 643 95 55 27

**Debagoiena.** Emakumezkoa pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka, astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. 658 92 43 73

**Debagoiena.** Emakumezkoa prest nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Orduka lan egiteko aukera. Soziosanitario titulua dut. 685 22 54 01

**Debagoiena.** Emakumezkoa prest nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Astelehenerdik ostiralera, goiz zein gauzein asteburuetan orduka lan egingo nuke. 647 314 817

**Debagoiena.** Etxeak, lantegiak, elkartek eta bestelakoak garbitzeko prest dagoen gizonezkoa. Esperientzia dut ospitalen eta enpresa industrialen garbiketean. Orduetegi aldetik malgutasuna daukat. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Persona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. 602 82 99 55

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela, orduka. Lan egiteko gertu dagoen emakumea. Pertsona nagusiak edo mendeko pertsonak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. Soziosanitario titulua dut. 643 29 75 77

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka, astean zehar eta asteburuetan, egunzein zein gauzein lan egingo nuke. Persona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut. 626 91 49 04

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo haurrak zainduko nituzke. Garbiketa lanak egiteko gertu, etxe zein enpresetan. Azalera handiko garbiketarako egiteko titulua dut. Malgutasuna. 602 44 48 98

**Debagoiena.** Neska eskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko prest, astean zehar zein asteburuetan. 656 79 28 37

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Soziosanitario titulua dut. Deitu 632 19 08 26 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka, as-

tean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke. Deitu 604 23 85 31 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. 602 82 64 84

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest

dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo asteburuetan lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. Deitu 747 45 08 06 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo asteburuetan lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. Deitu 627 28 06 82 telefono zenbakira

**Korosti**  
inmobiliaria

**Bergara:**  
Zubiaurre, 61m<sup>2</sup>  
erabilgarri, 2 logela,  
balkoia eta argi natural  
askorekin.  
**120.000€**



**Bergara: Masterreka,**  
108,5m<sup>2</sup> erabilgarri,  
Bergarako erdigunean,  
4 logela eta bizitzera  
sartzeko prest.  
**125.000€**

**Bergara: Iriburu,**  
73m<sup>2</sup> erabilgarri, oso  
eguzkitsua eta  
kanpoaldekoa. Igogailua  
duen eraikinean kokatua.  
**160.000€**



**Ibargarai 3 BERGARA**  
Tel.: 943 76 97 97  
**www.inmokerosti.com**

Informazio  
gehiago:



## IRAGARKIA JARTZEKO:


943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**'BIXAMONA ERDI AROAN' EMANALDIA**  
Bergarako Aratuste kontzertua osorik ikusteko aukera: dantzak, kantuak eta beste hainbat.

'Bereziaik' Zapatua, 22:00; eta domeka, 17:00



**ESKORIATZAKO ALKATEARI ELKARRIZKETA**  
Edorta Zubizarreta elkarrizketatuko du Goitaz Aranak, kargua hartu eta zazpi hilabetera.

'Harira' Egubakoitza, 18:20, 20:20 eta 22:20



GOIENA  
TELEBISTA  
NAHIERAN:  
**goiena.eus/  
telebista**  
Edo eskaneatu  
aldameneko qr  
kodea.

## ZORION AGURRAK



ARAMAIO  
**Aimar Ugartetxe Ugarte**  
22an, 3 urte.  
Zorionak,  
Aimar! Ondo ospatu zure egune! Patxo handi bat!



BERGARA  
**Iokim Arregi Eraña**  
Otsailaren 22an, 3 urte.  
Zorionak familia guztiaren partetik! Asko maixe zaitxugu!



ARRASATE  
**Haizea Arribillaga Duque**  
21an, 6 urte.  
Zorionak! Asko, beti eta ondo maite zaitugu etxeko hirurok!



BERGARA  
**Malen Gimber Garcia**  
21an, 4 urte.  
Zorionak! Muxu handi bat familia osoaren, bereziki Markelen partetik.



BERGARA  
**Ariane eta Maialen Quintas**  
Otsailaren 19an, 9 urte. Zorionak, printzesak! Oso ondo pasatu zuen urtebetetze eguna. Muxu handi bat, guztiaren partetik!



ARRASATE  
**Aines Lete Gardoki**  
Otsailaren 16an, 3 urte.  
Zorionak eta patxo handi bat familia osoaren partetik!



ANTZUOLA  
**Paule Acosta Seguro**  
16an, 7 urte.  
Zorionak! Oso ondo pasa zure eguna! Patxo mordo bat etxeko guztiaren partetik!



ARRASATE  
**Hugo Alberto Roca Montaña**  
16an, 16 urte.  
Zorionak! Onena opa dizugu. Muxuak familia guztiaren partetik!



ARETXABALETA  
**Lia Olalde Altube**  
15an, 7 urte.  
Zorionak, maittia! Zoragarria zara poxpolin. Izugarri maite zaitzugu!



BERGARA  
**June Ugarte Elorza**  
15an, 6 urte.  
Zorionak! Segi beti bezain alai! Patxo bat maixe zaitxugun danon partetik!



BERGARA  
**Elene Txurruka Jauregi**  
Otsailaren 15an, 9 urte.  
Zorionak, Elene! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA  
**Xabat Cruz Aranzabal**  
Otsailaren 15an, 7 urte.  
Zorionak familia danan partetik!



ARETXABALETA  
**Malen Gartziaetxabe eta Nerea Olmedo**  
Nereak, otsailak 12an, 42 urte eta Malenek, otsailak 14an, 12 urte. Zorionak bikote etxeko danon partetik!



BERGARA  
**Unax Morales Garcia**  
14an, 5 urte.  
Gure etxeko txikitxoak 5 urtetxo iada! Asko maite zaitugu, besarkada bat!



BERGARA  
**Xabi Mendiaraz Osinalde**  
13an, 4 urte.  
Zorionak! Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA  
**Jule Olalde Altube**  
12an, 4 urte.  
Zorionak, politxo! Asko disfrutatu zure eguna, bitxi. Patxo erraldoi bat!



OÑATI  
**Aner Garcia Lopez**  
11n, 3 urte.  
Zorionak! Gure txikitxua ere haunditzen doa! Disfrutatu zure eguna! Muxu erraldoia bat.



BERGARA  
**Noa Revilla Urrutia**  
10an, 10 urte.  
Zorionak! Segi beti bezain jator eta alai! Muxu pilo bat etxeko partetik.

ESKER ONA



**Lourdes Etxeberria Azkarretazabal**  
 'Mantxueneke eta Txomiñeneke adarretako bat'



2024ko otsailaren 13an hil zen, 65 urte zituela.

*Zure gorputz berriak zeharkatu du zerumuga, badoa aske denbora eta espazio ezezagunen bidean zure indar guztia bizigai berri bilakatu. Eta bitartean, heldu eskutik...*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Bereziki eskertu nahi ditugu Aretxabaletako anbulatorioko medikua eta erizaina.

Aretxabaletan, 2024ko otsailaren 16an.

OROIGARRIA

**Lourdes Etxeberria Azkarretazabal**



2024ko otsailaren 13an hil zen, 65 urte zituela.

*Zuk ereindako haziak fruitua ematen jarraituko du. BIHOTZETZ IKASI.*




Kurtzebarri Eskolako komunitatea.  
 Aretxabaletan, 2024ko otsailaren 16an.

OROIGARRIA



**Antonio Astondoa Errasti**




2024ko otsailaren 14an, 93 urte zituela.

*Beti eramango zaitugu gure bihotzean, aitita. Asko maite zaitugu.*

Etxekuek.  
 Aramaion, 2024ko otsailaren 16an.

ESKER ONA

**Puri Garaigordobil Arteta**



Jose Ignacio Garitaonandiaren alarguna  
 2024ko otsailaren 12an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaio-Otxandio, 2024ko otsailaren 16an.

OROIGARRIA

**Sixto Cebrino Badillo**



2024ko otsailaren 14an hil zen, 59 urte zituela.


*Beti gogoratuko zaitugu.*



AMWko lankideak.  
 Aretxabaletan, 2024ko otsailaren 16an.

OROIGARRIA

**Sixto Cebrino Badillo**




2024ko otsailaren 14an hil zen, 59 urte zituela.

*Beti gogoratuko zaitugu.*

Kurtzebarri 77ko kideak.  
 Aretxabaletan, 2024ko otsailaren 16an.

ESKER ONA

**Mariano Ruiz de Azua Bengoa**




2024ko otsailaren 10ean hil zen, Aramaion, 80 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko otsailaren 16an.

OROIGARRIA



**Mariano Ruiz de Azua Bengoa**



2024ko otsailaren 10ean hil zen, Aramaion, 80 urte zituela.

*Aixolan jai, Arrasaten bizi, Labian pasa eguna ortuko lanetan beti fina ta jarduna*

*pertsona paregabia horreatik zaitugu hain kutuna oso zaila izango da betetia osaba zuk utzitako hutsuna*

Beitia familia.  
 Arrasaten, 2024ko otsailaren 16an.

ESKELA



**Sebastian Alday Aranzabal**



2024ko urtarrilaren 10ean hil zen, 75 urte zituela.

Seme-alabak: Karlos, Noelia eta Iñaki; biloba: Elaine; emazte ohia: M. Pilar; eta gainerako senideak.

*Beti izango zara gurekin.*


Familiak eskertzen ditu jasotako maitasun adierazpenak eta jakinarazten du agur ekitaldiak familia artean egingo direla.

Bergaran, 2024ko otsailaren 16an.

ESKER ONA



**Luis Pildain Altzelai**  
 Mari Karmen Peñagarikano Gisasolaren alarguna



2024ko otsailaren 13an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2024ko otsailaren 16an.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
 edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**Oroilore**  
 Hileta zerbitzuak

**BABESLEA**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei euren bidez aurkitzen lagunduko diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik bereenak gurean izan dituzten konfiantzagaririk eta maitasunagatik.*

Mario, Iban, Mariñe eta Cristian

617 44 21 55  
 BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OSATI



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 16

**OÑATI Odol ematea**  
Aurrez hartu behar da ordua, 943-00 78 84 zenbakian.  
*Enpresagintzan, 16:30etan.*

**ELGETA Ipuinen Ordua**  
17:30ean, HHko 2., 3., eta 4. mailakoak; 18:00etan, HHko 5. mailakoak eta LHko 1. eta 2.ekoak; eta 18:30ean, LHko gainerakoak.  
*Liburutegian.*

**ARRASATE 'Txotxongiloen ametsak' erakusketan bisita gidatua**  
Corrado Masaccik emango ditu azalpenak. Izena emateko: *kultura@arrasate.eus*.  
*Kulturaten, 17:30etan.*

**OÑATI 'Brevario de ecología libertaria' liburuaren aurkezpena**  
Carlos Taibo egilea egongo da ekitaldian, STH taldeak gonbidatuta. Ostean, solasaldia egiteko aukera.  
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ELGETA Nokono bakarlaría**  
*Soroko lore eder lirainena* diskoak aurkeztuko du.  
*Bolatoki tabernan, 19:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA Korrika batzordearen bilera**  
Aurrera begirakoak zehazteko.  
*Eskolan, 19:00etan.*

**BERGARA Amustei taldea**  
Bergarako taldearen kontzertua. Sarrerak, zortzi euro.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## ZAPATUA 17

**ARRASATE 'Makinak gara' tailerra, familian**  
Arraguak dinamizatuta. Gaur, lehenengo saioa. Izena: bibliotekan edo udal webgunean.  
*Kulturaten, 11:00etan.*

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**  
3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Orduetgia: 11:30-13:30.  
*Musakolako gazte txokoa.*

**ARETXABALETA 'Oso latza izan da' liburuaren aurkezpena**  
Xabier Mendiguren idazlea egongo da ekitaldian, Torturaren Aurkako jardunaldien baitan.  
*Urbaltz elkartearen, 11:30etan.*

**ARRASATE Grafiti tailerra**  
Gaztetxoendako.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**OÑATI Habi eta Ziraun taldeak**  
Sarrerak: ohikoak zortzi euro, eta murriztuak, hiru.  
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**BERGARA 'Esnearen kolorekoa' antzezlan**  
Tanttaka Teatroyen azken lana. Mireia Gabilondo eta Jon Olivares bergararrak egongo dira oholtzan. Sarrerak, zortzi euro.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## DOMEKA 18

**OÑATI Ordunte mendikatera irteera**  
Bizkaia eta Burgos elkartzen dituen mendikatera, Aloña Mendiko mendi sailaren eskutik.  
*Postetxeko geltokian, 07:00etan.*

**ARAMAIO Patinaje ikastaroa**  
Guraso elkartearen eskutik. 10:30ean, HHko 3. eta 5. maila artekoak eta LHko 1. eta 3. maila artekoak; 11:15ean, LHko 4. eta 6. maila artekoak; eta 11:30ean, gurasoak.  
*Kiroldegian.*

**BERGARA 'Escape the museum'**  
Aurrez eman behar da izena ihes gelan parte hartzeko: 943-76 90 03. Sarrerak, lau euro.  
*Seminarixoan, 11:30etan.*

**ARRASATE Aratuste kontzertua**  
Arrasate Musikaleko Bandaren emanaldia.  
*Amaia antzokian, 12:30etan.*

**OÑATI 'Dantza gunea' kontzertua**  
Pasodobleak, tangoak, euskal dantzak eta erritmo latinoak gaurko kontzertuan, Musika Bandaren eskutik. Debalde, baina

gonbidapenarekin. Aurretik, 11:00etan, kalejira.  
*Zubikoan, 13:00etan.*

**ESKORIATZA 'Bote prontoan' antzerki musikatua**  
Maria Zubimendi musikariarekin eta Esti Curiel antzezlearekin. Sarrerak, hiru euro.  
*Zaldibar antzokian, 17:00etan.*

**ARRASATE Familian Jolasean ekimena**  
0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako.  
*Okendoko ludotekan, 17:30etan.*

**ESKORIATZA 'Mi relación con la comida' hitzaldia**  
Nork bere buruarekin duen harremana ardatz, amaiera emango diote orain arte egindakoari, Lourdes Martinezek gidatuta.  
*Ibarraundi museoan, 18:00etan.*

**ARRASATE Salto lehiaketa**  
Gaztetxoendako.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**OÑATI Sara Zozaya**  
Sarrerak: arruntak zortzi euro eta murriztuak hiru.  
*Gaztetxean, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 19

**ARRASATE 'Lurrikarak eta erupzioak: Geologiarekiko jakin-mina pizten denean' hitzaldia**  
Arturo Apraiz geologoak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Kulturaten, 10:00etan.*

**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatuko dituzte Oñatin, Antzuolan, Bergaran eta Arrasaten.  
*Herri horietan, 12:00etan.*

**ARAMAIO Ahoz Aho jaialdia**  
Euskal Herriko ipuinak kontatuko ditu Birjiñe Albirak.  
*Kultura etxean, 17:00etan.*

**OÑATI Idazketa tailerra**  
Jose Mari Iturraldek gidatuta.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*



ESTI CURIEL

**ESKORIATZA 'Bote prontoan' antzerki musikatua**  
Maria Zubimendi musikariarekin eta Esti Curiel antzezlearekin, umeendako. 2021eko Donostiako Poltsiko Antzerki Sorkuntzako bigarren saria eskuratuta. Sarrerak, hiru euro.  
*Etzi, domeka, Zaldibar antzokian, 17:00etan.*

**ARRASATE Dantzertiri buruzko hitzaldia**  
Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza goi mailako eskolare gaineko informazio-hitzaldia izango da, irakasleen eskutik.  
*Kulturaten, 18:30etan.*

## MARTITZENA 20

**OÑATI Bingo-jokoa**  
Lagun Leku erretiratuen elkartearen.  
*Eltzian, 17:00etan.*

**BERGARA 'Kulturartekotasuna Hezkuntzan' zikloa**  
Amelia Barquinek eta Eli Dominguezek parte hartuko dute.  
*Seminarixoan, 17:30etan.*

**ARAMAIO 'Los caminos del románico alavés' hitzaldia**  
Gorka Lopez de Munainek egingo du berba, +55 elkartegiak egitasmoaren baitan. Hitzaldia egingo du.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**OÑATI Literatura solasaldia**  
Ivan Jablonkaren *La ètita o el fin de los hombres* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta.  
*Kultura etxean, 18:30etan.*

**ARRASATE 'Sahara. Herri bat erresistentzian' liburuaren aurkezpena**  
Kristina Berasain egilearekin. 2024ko Argia saria eskuratuta du prentsa kategorian.  
*Kulturaten, 19:00etan.*

**OÑATI 'Intsektuen gainbehera' hitzaldia**  
Biologian doktore eta EHUko irakasle Unai Ugaldek egingo du berba, Natur Eskolak gonbidatuta.  
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ARRASATE 'La memoria infinita' dokumentala**  
Maite Alberdiren lana, martitzenetako emanaldian. Sarrerak, bost euro.  
*Amaia antzokian, 19:30etan.*

## EGUAZTENA 21

**OÑATI 'Depresioa eta bere errekupeazioa. Begirada soziokultural eta feminista bat' hitzaldia**  
Maria Zapata antropologoak egingo du berba, gazteleeraz, osasun mentalari eta afektuen teoriari buruz.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Ipuin kontaketa saioa**  
Miriam Mendozaren eskutik, 5-8 urte artekoendako. Hilaren 20ra arte eman daiteke izena.  
*Liburutegiko Txiki Txokoa, 18:00etan.*

**BERGARA 'Elige pildora. Que no te engañen con Bitcoin' liburuaren aurkezpena**  
Ruben Romero bergararra. Ruben Romero bergararra da egilea, eta ekitaldian egongo da.  
*Irizar jauregian, 18:30etan.*



GORKA HERMOSA

**ARETXABALETA 'Sustraien matxinada' musika emanaldia**

Garikoitz Mendizabalek (txistua) eta Gorka Hermosak (akordeoia) tradizioa eta modernitatea batzen dituen proiektua aurkeztuko dute, Euskal Herriko eta Iberiar penintsulako erritmoak fusionatuz. Sarrerak, bost euro. *Eguenean, Arkupen, 19:00etan.*

**ARRASATE Ahoz Aho jaialdia**

Aldo Mendezek Kubako ipuinak kontatuko ditu. Helduendako. *Kulturaten, 19:00etan.*

**OÑATI 'Troglóbios: eso bichos de las cuevas' hitzaldia**

Zoologian aditua eta EHUKO irakasle erretiratu Carlos Prietok egingo du berba, Natur Eskolak gonbidatuta. *Kultura etxean, 19:00etan.*

**BERGARA 'La zona de interés' pelikula**

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoen, 20:00etan.*

**EGUENA 22****ARRASATE Sasoibide**

Bergarara joango dira. Bi ibilbide aukeran: Agarreko garaira edo San Martzialera. *Zalduspeko gemalekuan, 09:50ean.*

**ARRASATE Harrera-familien gaineko solasaldia**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. Lehenengo, *24 siete* film laburra ikusiko dute, eta, ostean, solasaldia. Aurrez eman behar da izena. *Kulturaten, 17:00etan.*

**ANTZUOLA 'Azken galdera amari' liburuaren aurkezpena**

Manex Beristain egilea egongo da ekitaldian. *Liburutegian, 17:30ean.*

**ARETXABALETA 'Sustraien matxinada' musika emanaldia**

Garikoitz Mendizabalek (txistua) eta Gorka Hermosak (akordeoia) tradizioa eta modernitatea batzen dituen proiektua aurkeztuko dute. Sarrerak, bost euro. *Arkupen, 19:00etan.*

**OÑATI 'La zona de interés' filma**

Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, bost euro. *Zinema-aretoan, 19:30ean.*

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: Rüdiger taldea**

Felix Buff musikariaren proiektu berria. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

**EGUBAKOITZA 23****ARETXABALETA Ixadebalde azoka**

Almila Shop, Tak, Belar Meta, Hankabeltz, Kiloka, Asensio eta Kilima dendek parte hartuko dute. *Durana kalean, 10:00etan.*

**ARAMAIO Erretiratuen mus txapelketa eta afaria**

Bikote bakoitzak, 20 euro. *Erretiratuen elkarteetan, 16:30ean.*

**ARRASATE 'Txotxongoilen ametsak' erakusketa bisita gidatua**

Corrado Masaccik emango ditu azalpenak. Izena emateko: [kultura@arrasate.eus](mailto:kultura@arrasate.eus). *Kulturaten, 17:30ean.*

**ARAMAIO Ahoz Aho jaialdia**

Kubako ipuinak kontatuko ditu Aldo Mendezek. *Kultura etxean, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Mendi Tour**

Bilboko Mendi Film festibaleko bost film labur: *The silent escape, Oinez, Light beams for Helena, Let it Bärn, Café americano* eta *Zerbait aldatu da*. Eguneko sarrerak, hiru euro; eta bi egunekoak, bost. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**ARETXABALETA 'Gora Euskal**

(H)erriertsak' liburuaren aurkezpena

Kulturaren transmisioan aitzindari izan diren emakumeak ekarriko ditu gogora Asisko Urmenetak. *Arkupen, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Foto Laso' dokumentala**

Pedro Sologaitza *Laso* (1920-2009) argazkigintzako Arrasateko aitzindarietako baten gaineko dokumentala egin du Arrasate Zientzia Elkarteak. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

**ARRASATE Korda Rota taldearen disko-aurkezpena**

*Panem et circenses* diskoaren aurkezpen-kontzertua egingo du Arrasateko taldeak. Santa Barbara taldea ere egongo da oholzta gainean. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

**OÑATI Bengo eta Sukena**

Oñatiko taldeak Oiarzungo bakarlariarekin partekatuko du oholzta. Sarrerak, zortzi euro. *Gaztelekuan, 22:00etan.*

**ZAPATUA 24****ARRASATE Ludoteka ibiltaria**

3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Orduategia: 11:30-13:30. *Musokolako gazte txokoan, 11:30ean.*

**ARRASATE 'Mr. Bro' antzezlan umeendako**

Marie De Jongh taldearen lana. Sarrerak, bost euro. *Amaia antzokian, 17:00etan.*

**ZINEMA****ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

**La zona de interés**  
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:30.

**El arca de Noe**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**BERGARA****SEMINARIXOA**

**Valle de sombras**  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Patrick**  
Domeka: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA**

**La tierra prometida**  
Egubakoitza: 22:00 (jatorrizko bertsioan)  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**El fantasma de Canterville**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABALETA****ARKUPE**

**Valle de sombras**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua eta domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**Doraemon**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ****FLORIDA**

**Bob Marley: one love**  
Egubakoitza: 16:45, 19:15, 21:45.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45, 19:15, 21:45.  
Martitza: 16:45.

**La zona de interés**  
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 21:30.  
Astelehenetik egunera: 19:30.

**Perfect days**

Egubakoitza: 21:45.  
Zapatua eta domeka: 21:00.  
Astelehenetik egunera: 19:30.

**Sala de profesores**

Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:00.  
Astelehenetik egunera: 19:15.

**El color purpura**

Egubakoitzetik domekara: 19:30, 22:10.  
Astelehenetik egunera: 16:30.

**Madame Web**

Egubakoitza: 16:30, 19:00, 21:15.  
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:00, 21:30.  
Astelehena eta martitza: 17:00.  
Eguaztena eta eguna: 17:00, 19:30.

**Patrick (euskaraz)**

Zapatua eta domeka: 12:00.

**Priscilla**

Egubakoitzetik domekara: 16:30, 19:00, 21:30.  
Astelehena, eguaztena eta eguna: 17:00, 19:00.  
Martitza: 17:00, 19:00.

**Terapia de parejas**

Egubakoitza: 16:25.  
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:45.  
Astelehenetik egunera: 17:15.

**La tierra prometida**

Egubakoitzetik egunera: 16:45.  
**La piscina**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 22:00.  
Astelehenetik egunera: 16:45.

**Buscando a Coque**

Egubakoitza: 18:30.  
Zapatua eta domeka: 21:15.  
Astelehenetik egunera: 17:00.

**KRITIKA****La sociedad de la nieve**

★★★★★

**Zuz.:** J.A. Bayona. **Herr.:** Espainia (2023). **Aktoreak:** Enzo Vogrincic, Agustin Pardella, Matias Recalt. **Iraupena:** 144 minutu.

**Elkartasunaren indarra****ANTONIO ZABALA**

Ez da makala J.A. Bayonak hartutako erronka. *La sociedad de la nieve* filma egiteko, Pablo Viercik idatzitako izen bereko liburuan oinarritu da. Bertan, 1972an Andeetako mendikatean izandako hegazkin-istripua kontatzen da, baita hegazkinean zihozten 45 pertsonetarik hamasei erreskatatu aurretik bi hilabetez bizirik jarraitzeko nola moldatu ziren ere. Zuzendaria txukun eta errespetuz hurbildu da biziraupen istorio izugarri horretara. Izan ere, edozein sentsazionalismotik urrundu da gertaerak islatzerakoan. Batez ere, ikusleari azaldu nahi dio kaltetu artean izan zen elkartasuna eta laguntasuna: antropofagiaren praktika onartzeko egin ziren urratsak,

hiltzera zihozazenean euren gorputzez baliatzeko emandako baimena eta ekintza burutzeko prozesua. Batzuen salbamenak zentzu handiagoa ematen dio besteen heriotzari, eta haiek, modu batean, bizirik irauten dute, narratzailearen pertsonaiak argi adierazten duen moduan.

Pelikulan, narratzailearen bitartez, gertatutakoaren ideia orokor bat ematen zaigu. Haren ikuspuntua heltzen zaigu eta horrek aukera ematen du unerik zailenetako batzuk planotik kanpo uzteko. Zuzendariak elipsiak erabiltzen ditu, eta ia ezinezko egiten zaio ikusleari hotz, gose, neke eta atsekabe sentsazioak guztiz helaraztea. Dena den, zuzendaria gai da erronka aurrera eramateko.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

## Ardatza(k)

Atzerritar batek galdetzen didanean hemengo politikari buruz, modu honetan hasten naiz. Ardatz horizontal bat marrazten dut eta puntu bat zentroan: albo batean ezkerreko alderdiak jartzen ditut eta bestean, eskuinekoak. Munduko herrialde askotan nahikoa izango da lerro hori, neurri batean bertako dinamika politikoari itxura hartzeko. Gurean, baina, zerbait falta da.

Beste marra bat irudikatu beharra dago, zentro hori zeharkatzen duena goitik behera: alde batean euskal nazionalismoa dago eta bestean, espainola. Gainera, azken ardatz horrek baldintzatzen du joko politikoa. *Baldintzatzen du idatzi dut? Baldintzatzen zuen jarri beharko nuke.* Eusko Legebiltzarrak erabiltzen dituen 75 aulkietatik 52 batzen dituzte EAJk eta EH Bilduk. Hau da, ia erakundearen %70ek autodeterminazio eskubidea defendatzen du. Hala ere, gaur egun, ez da askorik nabaritzen.

Laster izango ditugun hauteskudeei begira inkestak agertzen hasi dira. Aipatutako bi alderdien aulki kopurua antzerakoa izango ei da, EH Bilduk aurre hartuta oraingoan. Datorren legealdian, esandako ardatzak jarraitu egingo ote du diluitzen edo indartu egingo da?

BUKATZEKO

# Eztabaidarako gaiak sortu nahi dituen liburua

Gaur aurkeztuko du 'Horizontes de esperanza' liburua Javier Retegi bergararrak, Mondragon Unibertsitatearen Eskoriatzako Campusean, 15:30ean; esan duenez, gaur egungo gizarteak dituen hutsuneei nola aurre egin azaltzen du bertan

Iñigo Barrena ARETXABAETA

Jaiotzez bergararra da, baina Untzillara bidean bizi da Javier Retegi ingeniari teknikoa. Urteetan enpresen munduari eta hezkuntza munduari lotuta egon da; besteak beste, Eusko Ikaskuntzako presidentea izan zen 2002. eta 2008. urte bitartean; egun, ohorezko presidente da. Haren esperientzia baliatu du *Horizontes de esperanza* liburua kaleratzeko, non gaur egungo gizarteari eztabaidarako gaiak planteatu nahi dizkion. "Ez da soilik irakurri eta hor uzteko liburu bat; nik eztabaidarako gaiak planteatu gura izan ditut lan horrekin", dio Retegik.

Eztabaidarako gaiak planteatzeko haren usteak edo gizartea nola ikusten duen baliatu nahi izan ditu: "Gaur egungo gizarteak hutsune batzuk ditu, eta, hain zuzen ere etorkizunari begira horiek nola ikusten ditudan eta norantz joan behar dugun adierazi nahi izan dut".

**Liburua, lau ataletan banatuta**

Haren lanean, Euskal Herriak etorkizunera begiratzeko eman behar dituen pauso edo estrategiez mintzo da, eta lau ata-



Javier Retegi, liburua eskuan duela. IÑIGO BARRENA

letan banatu du liburua: lehenengoan, gaur egungo gizartea non oinarritzen den aipatzen du. Retegiren ustetan, indar politiko eta ekonomikoak euren aldetik doaz, eta hori ez da nahikoa gizarteak epe motzera

dituen erronkei "aurre egiteko"; hutsune horiek "ekintza komunitarioek" betetzen dituztela dio, eta gizartean ekonomia eta politika "batzen" ez badira sistema berri bat ezingo dela "eraiki" gaineratu du.

Bigarren atalean, gizartea "desorekatuta" dagoela aipatzen du, geroz eta "beranduago" hasten delako jendea lanean eta geroz eta jubilatuta gehiago daudelako. Etorkizunean hori ekiditeko, ikasketa zikloan, e-structura akademikoan eta e-structura laboralean eta proiektio sozialean lan egin beharra dagoela azpimarratu du.

Hirugarrenean, pertsonari buruz dihardu: "Nolakoa den pertsona, halakoa da gizartea. Gaur egun ez dago erreferente etikorik, eta horrela ezin daitezke gizarte komunitario bat sortu. Horretarako, ezinbestekoa da gutxieneko etika komunitario bat lantzen hastea; izan ere, bestela, ezinezkoa izango da gizartea lantzea".

Hain zuzen ere, ekintza komunitarioen indarra azpimarratu du laugarren eta azken atalean. Dena den, kritika ere egiten du. Retegik uste du komunitate bakoitzak bere "ildo" hartzen duela, "persona" oinarri moduan jarritz, baina ezin dituztela gizarteak dituen premiak puntu "bakar batetik" ikusi. Hori dela eta, dauden "txoko txiki" horietatik irten eta "txoko zabal" batean planteatu beharreko gaiak direla dio, ikuspegi zabalagotik. Indarrak "batu" behar dituztela ere gaineratu du; horrela, gizarteak "eraldatzeko" aukera izan dezakeela uste du.

**Aurkezpena, gaur**

Hiru aste dira liburua kaleratu zuela, eta aurkezpena gaur egingo dute, egubakoitza, Mondragon Unibertsitatearen Eskoriatzako Campusean, arratsaldeko hiru eta erdietan.

Z A T O Z

MIGUEL  
ALTUNA  
Lanbide  
Heziketa

EZAGUTZERA

Otsailak 21

18:30ean

Izena eman

[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)

943 89 92 70

